

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-10-22  
ASTELEHENA  
382. ZENBAKIA  
9. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM



"Gutxiago kontsumitzeak askatasuna ematen dio norbanakoari"

Toni Lodeiro | Idazlea | 8

Urretxuko atletak izan ziren azkarrenak Tafd Krosean | 22



Lokatzak erabat baldintzatu ditu bizikleta martxak | 26



Txotxongiloek eman diote kolorea Bergaran asteburu grisari | 29

## EUSKO LEgebILTzARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2012



EH Bildukoak Bergaran. | J.A.



EAJkoak Oñatin, pozik. | J.A.

### EH Bilduk irabazi arren, gehiago ospatu du EAJk

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE  
Normaltasun osoz igaro zen atzoko hauteskunde-eguna Debagoiengan. Emaitzei erreparatuz gero, EH Bildu nagusitu da gurean botoen %41,7rekin. EAJ izan da bigarren indarra, botoen %33,8rekin eta distantzia murriztuz. Eta hirugarren izan da PSE-EE, baina 20 puntuko aldearekin. | 2

### Debagoieneko legebiltzarkideak

Bailararekin lotura zuzena duten lau legebiltzarkide egongo dira Gasteizko Parlamentu berrian.




M. Eugenia Arrizabalaga  
EAJ




Rebeka Ubera  
EH BILDU



Pello Urizar  
EH BILDU




Blanca Roncal  
PSE-EE



# EH Bildu garaile gurean, EAJrekiko distantzia murriztuta

- ▶ Zortzi punturen aldea dago bi alderdien artean Debagoiengan
- ▶ lazko bi hauteskundeetan aldea 20 puntukoa zen, bikoitza
- ▶ EH Bildu, dena den, Gipuzkoan eta EAEn baino hobeto, gurean | 2

### EAJ garaile EAEn, EH Bildu indartsu sartu den arren



### GIPUZKOA

Partido	Botoak	%	Eserlek.
EH Bildu	114.460	32,19	9
EAJ	113.978	32,04	9
PSE-EE	68.525	19,26	5
Ezker Anitza	9.560	2,69	0
PP	30.160	8,48	2
UPyD	5.271	1,48	0
EQUO	2.647	0,74	0

### ARABA

Partido	Botoak	%	Eserlek.
EAJ	40.018	25,88	7
EH Bildu	34.122	22,07	6
PSE-EE	30.267	19,58	6
PP	29.303	18,95	5
UPyD	5.435	3,52	1
EQUO	4.274	2,76	0
Ezker Anitza	2.484	1,61	0

### BIZKAIA

Partido	Botoak	%	Eserlek.
EAJ	229.569	37,64	11
EH Bildu	128.407	21,05	6
PSE-EE	113.148	18,55	5
PP	70.444	11,55	3
Ezker Anitza	16.049	2,63	0
UPyD	10.786	1,76	0
EQUO	4.718	0,77	0

### EAE

Partido	Botoak	%	Eserlek.
EAJ	383.565	34,64	27
EH Bildu	276.989	25,00	21
PSE-EE	211.939	19,13	16
PP	129.907	11,73	10
Ezker Anitza-IU	30.179	2,72	0
UPyD	21.492	1,94	1
EQUO	11.639	1,05	0



Iñigo Urkullu agur indartsua egiten, beste alderdikide batzuek lagunduta, hauteskundeetako emaitzak jaso ostean. | ARGAZKI PRESS

# EAJ garaile EAEn eta EH Bildu Debagoiengan, baina bien arteko alde txikitu egin da

- ▶ EAJk emaitza onak lortu ditu EAEn eta Gipuzkoan ere
- ▶ EH Bildu indartsu sartu da EAEn, baina jaitsi egin da Gipuzkoan

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Aurreikuspenak bete eta EAJ atera da garaile Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan. Gainera, inkestarik positiboek aurreikusten zizkioten 27 eserlekuak eskuratu ditu. 2009an eskuratu zituen 30 legebiltzarkideetatik 27ra jaitsi da. Irabazle atera da berriro ere, eta hala izan da 1980az geroztik, 1986an izan ezik (EArekin banandu zen orduan, eta hala ere, bototan sozialisten aurretik joan ziren jeltzaleak).

Gertu-gertuan du, hala ere, EH Bildu koalizioa; indartsu sartu da, 21 eserlekurekin. Esan behar da, gainera, ezker abertzaleak hauteskunde autonomiko batzuetan eskuratu dituen emaitzarik onenak izan direla atzokoak, legez kanpo lau urte eman eta gero. Konparazio bat egitearren, 1998an ETArekin sutenarekin eta Lizarrako akordioarekin, 14 legebiltzarkide eskuratu zituen Euskal Herritarrok alderdiak.

Eta orain arte gobernuan izan diren alderdiei dagokionez, PSE-EEri 14 eserleku ematen zizkio-

ten inkestek eta 16 eskuratu ditu. Hala ere, kolpe gogorra hartu du, aurreko hauteskundeetan 25 eserleku eskuratu zituen eta. 9-10 eserleku iragarri zizkioten kiniek, eta 10 eskuratu ditu, aurrekoetan baino hiru gutxiago.

**Euskadi vs independentzia**

Etorkizunari dagokionez, beraz, "sukalde" kontuak sartuko dira jokoan datozen egun eta asteotan. Urkulluk lehendakaritza ez eskuratzeko bide bakarra da EH Bildu eta PSE-EEK gobernu osatzea. Eta aldiz, alderdi bi horietakoren batekin elkartzea nahikoa du EAJk gehiengo absolutua eskuratzeko.

Ospakizunak egiteko orduan, Iñigo Urkulluk berak Euskadiren aniztasuna nabarmendu du, akordio anitz eta zabalak beharko direla iragartzen. Horixe izan daiteke gakoetako bat. Bestea, akaso, militanteek eta alderdikideek ospakizunetan erakutsi zutena: EAJko jarraitzaileak ... *ari, ari, ari, Urkullu Lehendakari* esaten zuten bitartean, EH Bildukoek *independentzia* oihua zuten nagusi.

**Gipuzkoan uste baino gutxiago**

Gipuzkoari dagokionez, hemen gertatu da justu bi alderdi abertzaleen arteko berdinketarik handiena: 9na eserleku eskuratu dituzte. Hala ere, bototan EH Bildu atera da nagusi, 482 boto gehiagorekin. Hori bai, aurreikuspenen azpitik kokatu da ezkerreko alderdi abertzalea; seguru aski, Diputazioaren gober-

nua izateak ondorioak ekarri dizkio.

**Debagoiengan ere behera**

Eta gure ibarrak, Debagoienak, abertzaletasun orokorraz gainera, ezkerreko ukitua izaten segitzen du; izan ere, EH Bilduk eskuratu ditu botoen, %41,7, EAJren %33,8ren ondoan. Hala ere, Gipuzkoan moduan, Deba-

goiengan ere beherakada igarri dute ezker abertzaleko hautetsiek, eta EAJrekiko alde txikitu egin da.

PSE-EEK, berriz, segitzen du izaten hirugarren indar, baina dezente urruntasuna gordetzen du beste biekiko, botoen %13,85 eskuratu duelako. PP dator hurrengo, baina oso urruti, botoen %3,62rekin.

## Debagoieneko legebiltzarkideak

Bailararekin lotura zuzena duten lau legebiltzarkide egongo dira Gasteizko Parlamentu berrian.

**M. E. ARRIZABALAGA**

EAJ  
Zarautz, 1967.  
Zuzenbidean lizentziaduna, Gipuzkoako EAJren organo gorenaren, GBBren, bozeramailea da; zinegotzia Antzuolan eta legebiltzarkide azken legegaldian.

**PELLO URIZAR**

EH BILDU  
Arrasate, 1968. Elektronika eta Informatika ingeniari teknikoa, EAKo idazkari nagusia da egun. Arrasateko zinegotzi ere izan da bi agintalditan. Bildu koalizioaren bozeramaile ere izan da.

**REBEKA UBERA**

EH BILDU  
Elgeta, 1972. Haur Hezkuntzan eta Heziketa Fisikoko diplomaduna da ikasketez. Aralarko Antolaketa idazkaria da gaur egun, Gipuzkoako batzarkidea eta zinegotzia Elgetan.


**BLANCA RONCAL**

PSE-EE  
Auritz (Nafarroa), 1950. Medikuntzan doktorea da. Arrasaten zinegotzi izan da 12 urtez, Oñatin ere izan zen eta azken legegaldian, lehen lehendakariordea izan da Gasteizko Legebiltzarrean.




Laura Mintegi La Casillan, alderdikideen txalo artean, pozik. | ARGAZKI PRESS

**GIPUZKOA**



**Errolda:**  
554.243  
**Botoak:**  
362.509  
**Abstentzia:**  
191.734  
%34,54



\*Urrezko botoak ez zuen balio ofizialik.




**EAJk EH Bildurekin berdintzea lortu du eserlekutan**


**UBANE MADERA** | ARRASATE  
Gipuzkoan gertatu da justu bi alderdi abertzaleen artean parekotasunik handiena. Bototan, hala ere, EH Bildu jarri da EAJren aurretik. Hori bai, 482 botoren aldeko besterik ez du eskuratu,

eta hori izan da, akaso, askorendako ezustea, historikoki Gipuzkoa ezker abertzalearen feudoa izan delako. Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernua bere esku izateak ondorioak ekarri dizkio ezkerreko alderdiari.

**ARABA**



**Errolda:**  
246.315  
**Botoak:**  
159.209  
**Abstentzia:**  
87.106  
%35,36



\*Urrezko botoak ez zuen balio ofizialik.




**Indartsu sartu da EH Bildu Araban, sei eserlekurekin**


**M. BELASTEGI** | ARRASATE  
EH Bildu indartsu sartu da Araban. Sei eserlekurekin, PSE-EE alderdiarekin parekatuta geratu da, azken horrek hiru eserleku galdu ditu -eta 2009ko hauteskundeekin alderatuz gero.

EAJ eta PP alderdiek ere eserleku bat galdu dute eta UPyDk mantendu egin du zeukana. Diferentzia handiarekin izan ere bada ere, hiru lurraldeetako abstentzio handiena izan da Araban: %35,36.

**BIZKAIA**



**Errolda:**  
918.138  
**Botoak:**  
491.051  
**Abstentzia:**  
427.087  
%46,51



\*Urrezko botoak ez zuen balio ofizialik.




**Bizkaia: EAJ nagusi, 2009an baino boto gutxiagorekin**


**MIREIA BIKUÑA** | ARRASATE  
EAJk lortu du boto gehien Bizkaian: 229.569, hain justu ere. Jeltzaleak izan dira nagusi, 2009an baino boto gutxiago jaso arren. Bigarren indarra EH Bildu izan da. 128.407 boto jaso eta sei jarleku

izango dituzte Legebiltzarrean. Sozialistek eta popularrek indarra galdu dute: PSE-EEK 63.551 boto gutxiago eta PPK 10.571 boto. Ezker Anitzak, UPyDk eta Equok ez dute ordezkariarik izango Legebiltzarrean.

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA**



**Errolda:**  
1.718.696  
**Botoak:**  
1.131.485  
**Abstentzia:**  
577.211  
%34,17



\*Urrezko botoak ez zuen balio ofizialik.










**Sei eserlekuren aldearekin EAJk irabazi ditu hauteskundeak**

**A. EZKIBEL** | ARRASATE  
EAJk lortu ditu boto gehien EAEn. 383.565 botorekin 27 eserleku lortu ditu Inigo Urkulu EAJko hautagaiak. 2009an 30 eserleku lortu zituen alderdi jeltzaleak. Bigarren indarra EH Bildu

izan da. 276.989 boto lortu ditu koalizioak, eta, ondorioz, 21 eserleku izango ditu Legebiltzarrean. PSE-EEK 16 eserleku izango ditu, 2009an baino 9 gutxiago. Popularrek ere behera egin dute, 13tik 10era.








## ARRASATE

	4.110 (%36,69)
	3.361 (%30,01)
	2.272 (%20,29)
	561 (%5,01)
	440 (%3,93)
	69 (%0,62)
	56 (%0,50)

Errolda: 17.704 Abstentzioa: 6.310 (%35,64)

**EH BILDU GARAILE** 2009ko datuekin alderatuz sekulako gorakada izan du; alderantziz PSE-EEK, ia 800 boto galdu ditu-eta. EAJk antzeko boto kopurua lortu du eta PPK, aldiz, 200 baino gehiago galdu ditu. Abstentzioa %35,64 izan da.








## BERGARA

	3.316 (%42,20)
	2.885 (%36,71)
	969 (%12,33)
	240 (%3,05)
	173 (%2,20)
	58 (%0,74)
	18 (%0,23)

Errolda: 11.611 Abstentzioa: 3.620 (%31,18)

**EH BILDU GARAILE** 3.316 botorekin lehenengo indarra izan da Euskal Herria Bildu Bergaran. EAJk bigarren postua eskuratu du, 2009ko hauteskundeetan baino 19 boto gehiagorekin. Abstentzioa ia bi puntu handiagoa izan da.








## OÑATI

	3.010 (%47,47)
	2.463 (%38,85)
	423 (%6,67)
	197 (%3,11)
	97 (%1,53)
	27 (%0,42)
	7 (%0,11)

Errolda: 8.846 Abstentzioa: 2.438 (%27,56)

**BOTOEN IA ERDIAK EH BILDURENDAKO** Oñatin baliozkoak izan diren botoen ia erdiak, %47,47 alegia, EH Bildurendako izan dira. Guztira, 3.010 boto. EAJk 2.463 boto lortu ditu, 2009ko hauteskundeetan baino 65 gutxiago.








## ARETXABAETA

	1.479 (%40,89)
	1.250 (%34,56)
	497 (%13,74)
	132 (%3,65)
	117 (%3,23)
	34 (%0,94)
	17 (%0,47)

Errolda: 5.389 Abstentzioa: 1.710 (%31,73)

**EH BILDU GARAILE** Botoen %40rekin izan da nagusi EH Bildu, baina EAJk gertutik jarraituta, -200 boto pasatxoren alde-; EAJk, gainera, gora egin du boto kopuruan. PSE-EEK, ostera, behera; eta PP mantendu egin da.








## ESKORIATZA

	734 (%23,16)
	636 (%31,63)
	407 (%20,24)
	85 (%4,23)
	64 (%3,18)
	19 (%0,94)
	4 (%0,44)

Errolda: 3.169 Abstentzioa: 1.138 (%35,91)

**EH BILDU GARAILE** Eskoriatzan EH Bildu izan da alderdi bozkatuena 734 botorekin. Bigarren EAJ gelditu da ia 100 botoren aldearekin, 636 botorekin, hain zuzen. Ondoren, PSE-EE, Ezker Anitza eta PP, hurrenez hurren.








## ANTZUOLA

	660 (%52,41)
	402 (%31,93)
	124 (%9,85)
	24 (%1,91)
	22 (%1,75)
	5 (%0,40)
	3 (%0,24)

Errolda: 1.692 Abstentzioa: 421 (%24,88)

**EH BILDU NAGUSI** EH Bilduk gehiengo osoaren babesa jaso du Antzuolan, 660 boto; 2009an urrezko botoak 358 izan ziren. Boto gehien jaso duen bigarren alderdia EAJ izan da: 402 boto.








## ARAMAIO

	539 (%61,12)
	270 (%30,61)
	26 (%2,95)
	8 (%0,91)
	8 (%0,91)
	7 (%0,79)
	3 (%0,34)

Errolda: 1.199 Abstentzioa: 310 (%25,85)

**EH BILDU GORA, EAJ BEHERA** Bildu izan da indar nagusia Aramaion. 539 boto jasota, EAJren botoak bikoiztu ditu ia-ia. 2009ko emaitzekin konparatuz, jeltzaleek behera egin dute nabarmen.








## ELGETA

	333 (%50,78)
	254 (%38,72)
	17 (%2,59)
	14 (%2,13)
	6 (%0,91)
	4 (%0,61)
	1 (%0,15)

Errolda: 874 Abstentzioa: 213 (%24,57)

**EH BILDU LEHEN INDARRA** Elgetan ere EH Bildu izan da zerrendarik bozkatuena. EAJ geratu da bigarren eta gainerako alderdiak oso urrun geratu dira. Parte-hartzeak sei puntu egin du gora.

## LEINTZ GATZAGA

	79 (%65,29)
	38 (%31,4)
	2 (%1,65)
	1 (%0,83)
	1 (%0,83)
	0 (%0)
	0 (%0)

Errolda: 200 Abstentzioa: 78 (%39)

**EH BILDU NAGUSI** Gehiengo osoa EH Bildurendako Gatzagan, botoen %65ekin; bigarren geratu den EAJren boto kopuru bikoizta eskuratu du. Botoren bat beti jaso izan duen PP oraingoan ezer barik geratu da.



# Hauteskunde eguna aparteko barik igaro da Debagoienez

- ▶ Hautestokiak zabaldu orduko hasi zen jendea bozkatzeko; eguerdian ibili zen jende gehien
- ▶ Arazo barik eman ahal izan zuten herritarrek botoa. Dena normaltasun osoz igaro zen



Bergarako pilotalekua botoa ematera zioan jendez bete zen atzo eguerdian. | JOSETXO ARANTZABAL



Herritarra boto-papera hartzen. | JA



Pello Urizar EH-Bilduko zerrendagaia botoa ematen Uribarrin. | MIREN ARREGI



Boto kontaketa egiten Arrasateko Uarkapeko hauteslekuan. | JA



Aitor Urrutia EAJko zerrendagaia Eskoriatzan atzo goizean. | MIREN ARREGI



Herritar bat botoa ematen. | JA



Haritz Arrieta Arrasateko zingotzi sozialista botoa ematen. | MIREN ARREGI



Udalako mojak Uribarrin. | MA



Juan Luis Merino Ezker Anitza-IUko zerrendagaia. | MIREN ARREGI

HAUTESLEKUAN  
BERTAN

## Zer eskatuko zenioke hurrengo gobernuari?

CALIXTO AGIRIANO  
ESKORIATZA

"EAJri eman diot botoa, beti bezala. Hurrengoari eskatuko nioke diru-gosea alde batera utzi eta herriarentzat lan egin dezala".

ROSARITO OIANGUREN  
ESKORIATZA

"Bakea, lana, murrizketarik ez egitea eta pentsiodunak babestea. Horiek dira hurrengoari eskatzen dizkiedanak".

ALBERTO ARREGI  
ARRASATE

"Bakea lortzeko pausak eman ditzatela. Noski, krisitik ateratzeko medioak ipini ditzatela eta azkenik presoak etxeratzea".

ROSI OTADUI  
ARRASATE

"Seriotasuna eskatzen diet hurrengoari. Gutaz barre egiten ari dira. Barre euskaldunoz! Hori da gura dudana! Seriotasuna!".

CARLOS ALVAREZ  
ARRASATE

"Gehiengoa lortzeko ez duen alderdi bati emango diot botoa. Eta gobernuari eskatuko diot lana bermatzeko".

TXARO BARTUREN  
OÑATI

"EH Bilduri eman diot botoa. Zentzuzkoak izan daitezela; hori eta balentria eskatzen diet hurrengoari. Beharrezkoa da".

ROBERTO HERNANDEZ  
OÑATI

"Hasteko eskatuko nioke esaten dutena bete dezatela eta orain artekoek egindako akatsak ez ditzatela errepikatu".

MARCOS GABILONDO  
BERGARA

"Bakeari eta krisiari dagokionean aurrera-pausak eman ditzatela eskatzen dut. Bi gai horiek dira lehentasunak".

MIREN IÑARRA  
BERGARA

"Bereziki, bakea, lana eta gazteendako etxebizitzak izan daitezela hurrengo legegaldaren lehentasunak".

# Urkulluren garaipena, abstentzioa eta gobernua aipagai iritzi emaileek

**Fermin Etxegoien**  
Kazetaria  
Euskadi Irratia



## "EAJren kanpainako indefinizio emankorra"

"Indefinizioan oinarritu du EAJ bere kanpaina eta zoragarri atera zaio. Soberanismo kontuetan, independentziarako abenturarako bildurra zuenak botoa eman dio eta baita ikuspegi ez hain independenteduna baina soberaniaren alde zegoenak ere.

Eta krisialdi kontuetan ere gauza bera gertatu da, murrizketak iragarri dituen bakarria izanda ere, botoak lortu ditu. Horrek erakusten du, jende gehienaren ustetan, krisiari sistematik kanpo ezin zaiola erantzun bat eman, sistema bera delako eskuinekoa. Gogora etorri zaidan gailegoen txiste baten moduan, gora edo behera garbi esan barik, EAJk, abileziaz aurrera".

**Xabier Letona**  
Kazetaria  
'Argia'



## "EAJren garaipen zabal eta argia"

"EAJren garaipena oso argia izan da eta, seguruenik bakarrik, bere proiektuak aurrera ateratzeko aukera ugari izango du. Krisiari dagokionez, sarri topatuko du sostengua, bai PPrengan, bai PSE-rengan. Bilduk, PSEk eta UPyDk blokeo minoria osa dezakete hainbat gaitan. EAJ-Bildu lehian jeltzaleek samur irabazi dute; Gipuzkoan Bilduk boto mordoxka galtzeaz gain, EAJk asko irabazi ditu: kudeaketaren higadura, antza. PSEk eta PPK esperotako danbatekoa hartu dute. 1986tik aurrera dagoen Legebiltzarrik abertzaleena atera da, eta hori baliatu beharko litzateke bake prozesua behin betiko finkatu eta herri nortasunean aurrera egiteko."

**Joseba Lezeta**  
Kazetaria  
'El Diario Vasco'



## "Urkullu lehendakari, baina norekin?"

"EAJren eta EH Bilduren arteko diferentzia uste baino handiagoa izan da jeltzaleen alde. Ezusteko handiena Gipuzkoako emaitzak izan dira. EH Bilduk espero baino boto gutxiago lortu ditu eta EAJk gehiago. Jeltzaleak beti dira erregularrak hauteskunderetan, gorabehera txikiena izaten dutenak. Aurrerantzean zer? Nik uste dut Urkullu izango dela lehendakari, bakarrik edo beste alderdi baten laguntzarekin. Orain negoziatzeko ordua da. Bizi dugun egoera larria da, eta aurrera egiteko alderdi guztion beharra egongo da. Dena den, oso zaila izango da guztiak ados jartzea. Alderdi guztien konpromisoa beharrezkoa izango da".

**Unai Loidi**  
Kazetaria  
EITB



## "Abstentzioak izan duen gorakada kezagarria da"

"Eusko Legebiltzarren bi herena abertzalea da. EAJ izan da garaile garbia, eta aipatzekoa da 2009ko hauteskunderekin alderatuz, alderdi berri bat indartsu sartu ostean, hiru eserleku bakarrik galdu dituela. Deigarria da, era berean, Gipuzkoan EH Bilduk alde txikia lortu duela EAJren gainetik. Bestalde, parte-hartze baxua aipatu beharra dago. Abstentzioaren gorakada kezagarria da; esango nuke arrazoietako bat klase politikoarekiko etsipena dela. Botoak ezertarako balio ez duela uste duen gero eta jende gehiago dagoela esango nuke. Gobernua osatzeko orduan, nik Urkullu ikusten dut lehendakari, PSE-EEren babesarekin".

**Felix Iriarte**  
Kazetaria  
Noticias Taldea



## "EAJk urrats nabarmena egin du aurrera"

"EAJk irabaztea ez da sorpresa izan, esperotakoa zen. Zalantza zegoen bigarren indarrarekiko ze alde aterako zuen. Uste dut EAJk urrats bat aurrera eman duela. Gipuzkoan EH Bildurekin batera ibili da eserlekuei dagokienez, eta Araban eta Bizkaian irabazi egin du. Urkulluk nahi duenarekin gobernatuko du, gehiengoan.

Bestalde, EH Bilduk emaitza onak lortu ditu eta oposizioko lehenengo indarra izango da. Gipuzkoan udal hauteskunderetan baino emaitza txarragoa izan dute, eta hori hausnartu egin beharko dute. PSE-EEren emaitza ere esperotakoa zen. Egin dituzten paktuak ordaindu dituzte".

**Maria Agirre**  
Kazetaria  
Euskadi Irratia



## "Ez nau askorik harritu EAJren emaitza onak"

"Bazegoen aukera bat EAJk horrelako emaitzak ateratzeko, eta ez nau askorik harritu. Gipuzkoako kaleetan entzuten zen Euskadi krisi egoera honetatik irteteko EAJ ote zen kudeaketarekin pixka bat aurrera aterako zuena, eta uste dut horrek eragina izan duela EAJk atera dituen emaitza onetan. Orain, baina, ez dauka lan erraza.

EH Bilduren emaitza pixka bat hobeak espero ziren, baina ez ditu emaitza txarrak ere lortu. Emaitza nahiko onak atera ditu baita ere PSE-EEk. Azpimarratuko nuke, era berean, abstentzioa handia izan dela, eta, aurrera begira, EAJk bakarka gobernatuko duela uste dut".

## LEHEN BISTARAZOA

### Argazki hobea

**MIKEL IRIZAR**  
Iritzi-emailea  
'goiena.net/blogak/piperrautsa'



A tzoko argazkiak hobeto irudikatzen du EAEko aukera politikoen indar-erlazioa. Eta nabarmena da autogobernuaren ardatzean aisa nagusitu direla (ia bi heren) harago joatearen aldekoak oraingoa defendatzen dutenen gainetik. Orain arte Jaurlaritza osatu edo sostengatu dutenek argi ikusi dute norainokoa den beren benetako indarra. Hau da lehen datu esanguratsua.

Bigarrena da EAJk berreskuratu duela ekimena eta zer-nolako koska atera dion EH Bilduri. Hain zuzen, koska horrek joko-zelai ugari zabaltzen dio Urkullu lehendakari berriari eta aukera areagotzen geometria aldakorrean aritzeko. Ezker abertzalearen hatsa gertuago eduki izan balu, agian behartuago sentituko zen gobernu hitzarmen bat lotzea bere lehendakaritza apur bat egonkortzeko. Orain nahikoa izango du adostasun puntualak eraikitzea gaien araber, gehiengo ezberdinak ematen bai ditu Legebiltzar berriak.

## "Aisa gainditu ditu EH Bilduk bere markak; emaitza historikoa da"

Hirugarren datua da EH Bilduren emaitza. Aisa gainditu ditu orain arteko markak, beraz, emaitza historikoa da eta egoera bikaina ematen dio ezker abertzaleari bere egitasmoa garatzeko eta barne egituraketa burutzeko, lege arazoak gaindituta. Baina Gipuzkoako datuek erakusten dute ezer ez dela betiko eta politikan are gutxiago. Asko hurbildu zaio EAJ, elkar ulertzera kondenatuak daude.

Datu horien gainetik dago egoerak eskatzen duena: erakunde arteko lankidetzan krisiari erantzutea, bakegintza bidean aurrera egitea eta etorkizuneko herri-egitasmoa adostea. Biak uztartuta ateratzen da euskal politikak behar duen errezeta: apaltasun handia, elkarrenganako errespetua, lankidetzarako jarrera eta asko hitz egitea.

Zorionez, hauteskunde gauean alderdien ordezkariak entzun dizkiegun hitzak norabide horretan joan dira, ia salbuespenik gabe. Iraun dezala jarrera horrek, denon onerako.

### Normal moduan

ELENA LAKA

E uropako herri normal batean bizi bagina bezala eman ahal izan dugu botoa (ia). Emaitzak, Europako herri batekoen antzekoak. Krisi garaian, esperimenterik ez, esan zuen Urkulluk. Eta neurri batean hori erabaki dute hautesleek. Berrikeriarik ez, eskarmentua eta segurtasuna. Horri esker lortu ditu EAJk oso emaitza onak, EH Bilduk ez bezala. Hautesle europartuek ez diote bere konfiantza eman gobernuan egondako alderdiei: agintzeak higatu egin ditu EH Bildu Gipuzkoan, eta PSE eta PP. Debagoiena is diferent: EH Bildu garaile. 75 legebiltzarkidetik, 48 abertzaleak. Subiranotasunaren garaia?

## POLITIKARIEN BALORAZIOAK



**PELLO URIZAR**  
EH BILDU

"Aurreko egoera zein zen kontuan hartuta, oso ondo dago 21 legebiltzarkideko taldea sortu izana. Lau bozkatzailetatik batek guri babesa ematea eskertzekoa da. Aurrerantzean dauzkagun erroen herri bezala erantzun diegu, eta ikusi egin behar bes-teen borondatea nolakoa den".



**MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA**  
EAJ

"EAE osoan irabazi dugu eta Gipuzkoan bereziki oso emaitza onak lortu ditugu, EH Bilduren parean jarri gara. Orain urtebeteko emaitzekin alderatuz, gorakada nabarmena da. Gipuzkoarrak errespetatzen ditugulako lortu ditugu emaitzak; eskerririk beroenak babesa erakutsi diguzuenoi".



**HARITZ ARRIETA**  
PSE-EE

"Ez dira esperotako emaitzak izan, baina gu pozik gaude Arrasaten lortutakoekin, tinko mantendu garen herrietako bat izan delako. Horregatik, boto emaile guztiak eskertu gura ditugu.

Lan eta lan jarraitzeko asmoa dugu hurrengo emaitzak hobetzeko asmoarekin".



**ISABEL SALUD**  
Ezker Anitza

"EAJk irabazi duelako pena daukagu. Murrizketen aldeko politika egin eta ez dituzte premia handien dutenak kontuan hartuko. Bestalde, gure emaitzak oso txarrak izan dira. Ez dugu ordezkariarik lortu, baina lekua daukagula uste dugu, eta hori lortzeko lanean jarraituko dugu".



**ANTONIO BASAGOITI**  
PP

"Lehenengo eta behin, Urkullu zoriondu nahi dut lortu duen garaipenagatik. Gure emaitzei begira jarrita, esan behar dut gehiago nahi genuela. Bagenekien zaila izango zela, batez ere EH Bilduren sartzegatik eta boto baliagarriagatik. Baina PPK eserleku gehiago nahi zituen".



Munilla Gipuzkoako gotzainak esan zuen meza zapatuko agurrean. | TXOMIN MADINA

## Bergararren agur beroa jaso zuten zapatuan moja klaratarrek

- ▶ Trinitateko eliza goraino bete zen Munilla gotzainak esan zuen mezarako
- ▶ Mojek monasterioko atek ireki zituzten herritarrei luncha eskaintzeko

TXOMIN MADINA | BERGARA

Jaiotzez elgetarra den Sor Sagra-riok Bergarako Trinitateko monasterioan pasa ditu dituen 91 urteetatik 71. Aurrerantzean, Lekunberrin biziko da. Antzerako istorioak izango dituzte seguraski Sor Marinieves, Sor Encarnacio, Sor Maricruz eta Sor Beatrizek ere. Bost moja klaratar hauek azken hamarkadatan euren herria

izan dena utziko dute, eta zapatu goizean Bergarako herriak agur bero eta jendetsua eskaini zien.

Txiki geratu zen Trinitateko eliza Jose Ignazio Munilla gotzainak esan zuen mezarako. Amaiera hungigarria izan zuen mezak: han bildutako bergararrek mojei eskainitako txalo zaparrada beroa. Mezaren ostean, mojek lunch oparoa eskaini zieten monaste-

riko klaustroan bisitan joandako senitartekoei eta orain arte herrikide izan dituztenei.

### Kontenplazio-seroren lana

Ia 500 urte eman dituzte moja klaratarrek Bergaran. "Denbora horretan leialtasunez egon ostean, badaikit horrelako ekitaldi batean pena nagusitzen dela; baina bizitzaren aginduz joateko momentua heldu



Mojek eskainitako luncha klaustroan izan zen. | T.M.



Senitarteko eta bergarar ugariaren bisita jaso zuten mojek. | T.M.

zaie. Niretzat oso pozgarria da ikustea Bergarako herriak nola babestu dituen" azaldu zuen Muni-llak mezaren ostean eta mojek bergararren partetik jasotako esker on hitzak ere gogoratu zituen.

Kontenplazio-serorak dira Bergaran egon direnak eta Munillaren esanetan, era horretako beste konpainia bat Bergarara ekarri gura dute. Gotzainak azaldu zuen asko-

tan ez dela ulertzen kontenplazio-seroren funtzioa eta lan hori goraiatu zuen: "Egunen baten ulertuko dugu bizi ditugun gauza on asko moja hauei esker direla; ezkutuan, Jaungoikoari errezatzen eta sakrifikatzen egindako lanari esker". "Mojak joatea aukera bat da orain arte izandako grazia estimatzeko, gure fedea astintzeko" gaineratu zuen Munillak.



Bukatu berri duten Zarimuzko biaduktua. | ADIF

## Amaitu dituzte AHTaren Zarimuzko biaduktuko lanak

Eskoriatza eta Aramaio arteko zatian dagoen biaduktua 262 metroko luzera du denera

TXOMIN MADINA | ESKORIATZA

Abiadura Handiko Trenaren Eskoriatza eta Aramaio arteko zatia ari da itxura hartzen. Hala, Adifek, Espainiako Trenbide Azpiegituren Administrazaileak, jakitera eman duenez, amaitu du dagoeneko tarte horren barruan egitekoak ziren Zarimuzko biaduktua.

Biaduktu honek 262 metroko luzera du, eta 18 eta 45 metro artean dituzten lau zutabek eusten dute. Biaduktuaren taulak nazioarteko zabalera izango duen bide bikoitza du hartuko du, eta taula egiteko bultzatutako taula sistema erabili dute; hala bost bao sortu dituzte, 32 eta 60 arteko argiekien.

### Basoberritzea

AHTaren Gasteiz-Bilbo-Donostia linea barruan dagoen Eskoriatza eta Aramaio arteko zatiak denera 5,6 kilometroko luzera du eta ibilbidearen %64 lur azpitik egingo du. Zarimuzko biaduktuaz gain, beste hainbat elementu ere baditu, besteak beste Uriarteko biaduktua eta Uruburu I, Uruburu II, Induspe eta Mazmelako tunelak. Tunelek denera 3.507 metro izango dituzte.

Adifetik esan dutenez, Eskoriatza eta Aramaio arteko zatia lanak amaitzen dituztenean, azpiegitura inguruan integratzeko 285.672 metro koadro basoberrituko dituzte eta 31.000 zuhaitz autoktono birlandatuko dituzte.

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4,  
Araba ibilbidea  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941  
E-mail: info@eguzkigraf.com

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

30 urte  
baino gehiago  
zure  
zerbitzura

Toni Lodeiro | Idazlea

# "Gutxiago kontsumitzeak askatasuna ematen dio norbanakoari"

- ▶ Kontsumo arduratsua aldarrikatzen du Lodeirok
- ▶ Kontzientzia globala aldatzeko asko falta dela dio

UBANE MADERA | ARRASATE

Toni Lodeiro (Coruña, 1978) *Consumir menos vivir mejor* liburua- ren idazlea da. Pobreziaren eta bazterkeria sozialaren aurkako nazioarteko egunaren bueltan (urriaren 17), Arrasateko Pobrezia Zero Plataformak hainbat ekintza antolatatu ditu. Horien artean, Lodeirok ekitaldia egin zuen egubakoitzean Arrasateko Kulturaten.

**Zure liburu eta ekitaldien mezu orokorra zera da: Gutxiago kontsumitu, hobeto bizi, hain justu ere orain arte jaso dugun mezua- ren kontrakoa...**

Bai, halaxe da. Izan ere gutxiago kontsumitzeak abantailak izan ditzake maila pertsonalean, askatasuna ematen digulako. Azken urteotan ikusi ditugu hipotekek eragiten duten lotura, adibide bat ematearren. Eta gainera, kontsumo txikia osagarria da ingurumenaren babesarekin eta justizia sozialarekin, ze gutxi batzuk asko kontsumitzeko, beste batzuk gutxi kontsumitu behar baitute.

**Badiozu, baina ere, gutxiagorekin bizi izateak asebetetasuna eman- go digula; zela?**

12.000 euroko autoa erosten ez badut, eta zaharrarekin edo garraio publikoarekin aurrera egin, ba pentsa zelako lasaitasuna izan dezakedan gastu hori ez egitearren. Edo gehien igartzen duguna gaur egun da denbora falta, batzuetan beste ordu gutxiago egiten dugu lo, gurasoen ehuneko altu batek egunean bi orduetik behera ematen du seme-alabak zaintzen... Bada, behar material gutxiago baditut, gutxiago kontsumitzen badut, denbora luzeago daukat niretzat garrantzitsuak diren gauzak egin ahal izateko, eta, beraz, bizi kalitatea handitzen dut.

**Ez dut argi ikusten kontsumoa txikitzeak bizi kalitatean zela eragin dezakeen; bizi kalitateak denbora librearekin edo lan jardunarekin lotura zuzenagoa duela esango nuke.**

Jakina, hori oztopoa da. Hau da, bakarka ezin zaie erantzun eguneroko oztopoei. Nik erdia gasta dezaket, baina lanean ez badut aukerarik lan jarduna txikitze- ko, ezin dut ezer egin.

Oso galdera ona da egin didazu- na, argi geratu behar delako aldaketa indibidualez gainera, aldaketa legalak, politikoak, ekonomikoak, estrukturalak... behar direla ezinbestean, ohitura aldaketak...

**Ze punturaino hori ez da, baina, utopikoa?**

Egia da, badu utopia maila altu bat, mentalitate aldaketa, eta aldaketa politiko-ekonomiko... garrantzitsuak egin beharko liratekeelako, eta ezin direlako egun batetik bestera egin. Izan ere, ez da utopikoa, bidea eginez ikasten gozelako, irabazten: ekarpenak egiten dizkidaten pertsonak ezagutzen ditugu, osasunean irabazi egiten dugu... eta guztietan garrantzitsuena, sare sozialekin bat egiten dugu: produktu ekologikoak lantzen dituztenak, seme-alabak zaintze- ko hazkuntza taldeak ezagutzen ditugu, eta abar. Eta horixe bera da gakoetako bat: prozesua antze- ko pentsamendua duten pertso- nekin konpartitzea ezinbestekoa da. Bestela, oso zaila da, kontra- korrantean ibiltzea delako.

**Kontsumo arduratsuak, besteak beste, oraindik alternatiboak diren produktuak kontsumitzea dakar;**

**"Prozesua antzeko pentsamendua duten pertsonekin konpartitu behar da"**

**"Kontsumo kontzienteak gastua birbanatzera garamatza"**


**askotan, mitoak eta gezurrak izaten dira halakoak, baina ze punturaino produktu alternatibo horiek ez dira garestiagoak?**

Normalean egia da esaten zabil- tzan hori. Produktuaren kalita- te hobearren ondorioa izaten da halakoen garestitzea, edo pro- duktu minoritarioak izatean haiek banatu edo komertziali- zatzeak dituzten zailtasunek eragiten dute garestitzea... horre- gatik ez da bide ona orain arte moduan kontsumitzen jarraitzea produktu alternatiboak erabili- ta. Hau da, gakoa ez da, adibidez, urdaiazpikoa asteen bost bider jan nahi izatea, baina, gainera, orain ekologikoa eta ezkurrezkoa izan dadila. Kantitatea kalita- tearengatik alda dezakegu. Urdai- azpikoa asteen bost bider jan beharrean asteen behin jan, bai- na kalitate hobeko urdaiazpiko osasuntsuagoa izan dadila.

Orokorrean esanda, gehiago da eskema aldatzea marka aldatzea baino. Hau da, lehen paketeak saltxitxak kontsumitzen bageni- tuen, gauza ez da pakete horren marka aldatzea, baizik eta pro- duktu freskoak jatea. Kontsumo kontzienteak ez garamatza beti aurreztera, baizik eta gastua birbanatzera garamatza. Lehen jantzi, teknologia eta bestelako- tan gastatzen genuena, orain gastatuko dugu hobeto eta osasuntsuago jaten, kalitatezko denbora luzeagoa familiarekin ematen, lagunekin... Gehiago da lehentasunak gure balioekin harmonian jartzea.

**Gako bi aipatuta, orokorrean zein- tzuak dira kontsumo arduratsuen gakoak?**

Gako praktikoa da jakitea ohi- tura aldaketa prozesu motela dela. Adibidez, hilean aldaketa bakarra egitea gutxi dela dirudi, baina eutsiz gero, urtean 48 alda- keta dira, eta hori asko da gure bizitzan. Beraz, gakoetako bat pazientzia litzateke, beste bat malgutasuna; hau da, ez ahale- gindu guztia perfektu egiten lehen egunetik. Beste gako bat



Toni Lodeiro. | TONI LODEIRO

izan daiteke prozesuarekin goza- tzea; hau da, aldaketak ez auto- inposatzea. Beste bat antzerako pentsamendua dutenekin bat egitea eta beste gako bat aitortzea politikaren, gizartearen... garran- tzia, eta konturatzea aldaketa orokor bat ez dagoela norberaren esku, pertsona indibidualen esku, baizik eta erantzukizun politiko, ekonomikoa... ere badagoela.

**Liburuu idatzi duzu horretaz...**

Bai: *Consumir menos vivir mejor* da izenburua. Berba egin dugun hausnarketez gainera, ideia prak- tiko ugari daude nork bere etxean egin ahal izatekoak. Enpresen, elkarte, mugimendu, udalen...

**"Lehentasunak gure balioekin harmonian jartzea da gakoa"**

**"Aldaketa orokorra ez dago norberaren esku, erantzukizun politiko... ere bada"**

esperientziak ere jasota daude. Bestalde, webgunea ere badut: [nodo50.org/consumirmenosvivirmejor](http://nodo50.org/consumirmenosvivirmejor).

**Oraingo gure munduan bada kontsumo arduratsuekin bat egiten duen adibide garbiren bat?**


Urruti joan barik, Gipuzkoan, adibidez, oso interesgarria da atez atekoarekin lotuta lantzen diharduten prozesu politiko, edo Abiadura Handiko Trena moduko garraio azpiegitura erraldoiak zalantzan jartzeko prozesua. Kontsumo arrazional eta ez horren xahutzailearekin bat egiten dute biek ala biek.

**Eta uste duzu orokorrean bada- goela sortzen kontsumoarekin lotutako kontzientzia globalik?**

Handitzen doala esango nuke, modu esanguratsuan. Baina oraindik bidea egiteko falta da egoerari buelta emateko. Gobernu gehienendako herriaren zorientasuna lortzeko bidea haz- kunde ekonomikoa da. Baina pausoak ematen badabilta; hor- txe dago, esaterako, banka etikoa (Fiare...), edo elektrizitate- a komertzializatzeko lehen koope- ratiba sortu izana (Som Ener- gia)... Pausoak ematen dira, baina asko falta da egoerari buel- ta emateko.



# Debagoieneko GREMIOAK



## AROSZTEGIAK

### AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarrimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

## ITURGINTZA

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

## OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

## ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

## LOREZAINZTA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

## ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA  
http://goiena.net/iritzia/



## Hauteskontuak

J oan ei zen behin hautagai jauna herri batera eta agindu ei zuen: "Eta nik zuei zubi elegante bat egingo dizuet!". Jendeak, harrিতuta: "Baina jauna, guk ez daukagu errekarik". Eta hautagai jaunak: "Bueno, konforme, baina dena batera ezin da, erreka hurrengo hauteskundeetarako".

Gurean, promesak egiten hasita, era honetako promesak egin beharko zituzketen: "Ni lehenakari banaiz, Athleticen Europako Liga irabaziko du". Athleticen diot lau alderdi nagusietako hautagaiak bizkaitarrak izan ditugulako. Izan ere, badakizue, adibidez, Real Madrilek frankismoaren ondoren irabazitako hiru Championsak PP agintean zela irabazi dituela eta Barça irabazitako laurak, berriz, PSOE agintean zela lortutakoak izan direla? Ibarretxerekin Athletic txapeldun izango ote zen iaz?

Txantxak txantxa, tamaina horretaraino iritsi barik, gurean ere izan dira promesak handiak beste aldi batzuetan: "200.000 lanpostu sortuko ditut", "300.000 lanpostu sortuko ditut"...

Azkenaldian, oster, hautagaiek ardu handiagoa izaten dute hartuko dituzten zenbait neurri gordezen promesak ilusio-piztaile handi-landiak egiten baino. Bai baitakite jendeak politikoen konfiantza galdu duela.

Esango nuke azkeneko hauteskundeetan ilusioak baino presentzia handiagoa izan duela beldurak. Alderdi espainolistak beldurra sartu nahian ibili dira: "Horiek badatoz, independentziara eramango gaituzte". Abertzaleak, berriz, beldurak uxatu nahian: "Gu akordio zabalak lortzen saiatuko gara".

Inkestek bigarren estrategia nabarmen nagusituko dela esan izan dute. Artikulu hau esku artean duzunerako inkestak gaindituta egongo dira eta hainbat galdera erantzunda: zein izango da hautagai bozkatuena?; iritsiko dira alderdi abertzaleak 1984-tik 90era bitartean lortu zituzten 49-52 legebiltzarkideetara?; inkestek esan bezala, hiru lurraldeetan irabaziko dute? Erantzunon zain geratuko gara.

## USTEAK USTE

ARRITXU BARRUSO | abarruso@goiena.com

## Parentesia kanpainen

Domeka arratsaldean ez zen besterik kalean, tabernan edo lagunartean: "Bota dok ala?" edo "Salto ein ei jok". Krisi ekonomikoa edo Euskal Herriko hauteskunde kanpaina minutu batzuez gelditu eta estratosferara begira ipini gintuen Felix Baumgartnerrek domeka eguerdian. Askok zuzenean ikusi genuen kapsula ireki eta nola egiten zuen salto hutsera. Behin baino gehiagotan entzun izan dut munduak txundituta eta aho zabalik telebistaz ikusi zuela Armstrongek ilargian eman zuen lehenengo pausoa. Antzerako zerbait sentitu nuen domekan. Dena dela, parentesia motza izan zen. Iluntzerako Baumgartnerri lekua kendua zioten berriro ere Urkullu, Mintegi eta konpainiak.

## KALE INKESTA

Non egingo zenituzke murrizketak? Eta non ez?



ANA ARANZABAL  
ARRASATE

"Lehenengo, agintarien eta politikarien soldata errebisatuko nituzke, haiek izan behar dute-eta gure eredu".



URTZI AMIANO  
ARRASATE

"Politikarien gainsoldata horiek murriztu beharko liriteke, eta bakean utzi hezkuntza eta osasun arloak".



MARCELA FERNANDEZ  
ARRASATE

"Gure goikoen soldata horiek jaitziko nituzke, bankuenak adibidez, azpitik gaudenok jaten ari dira-eta".



JUAN CARLOS PASCUAL  
ARRASATE

"Hezkuntzan murrizketak egitea kontrako zentzuan joatea da, eta, azkenean, gure seme-alaben kalterako da".

### "Ilusioak baino presentzia handiagoa izan du beldurak"

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Erromes lizunen argia diktaturako gau ilunean

Juanma Sarasola  
http://berria.info/blogak/juanma/

Hendaiara, Miarritzera, Ipar Kataluniara, eta Frantziako hainbat tokitara izandako beste erromesaldi baten jomuga hil berri da.

Ez zuen Lourdesko ustezko mirariekin zerikusirik -are gutxiago ustezko birjintasunarekin-, baina hark ere benetako fenomeno soziologikoa eragin zuen bere garaian.

Ikustekoak izango ziren 1970eko hamarkadako irudi nahiz haragigoseku haien aurpegiak -batere ez 'haur begiak'- eta jokoerak, Frantziako estatuko karriketan -askok lehen aldiz zapalduetako herrietan galdu xamar- *Emmanuelle* filma ikusteko zinemaren bila ibilki, filmeko afixaren aurrean, pantailaren parean, gero lagunekin komentatzean...

Baita herrira itzultitakoan emazteari, andregaiari, edo familiari bidaiari haren zergatia edota nondik norakoak moztortzerakoan ere.

Diktaturako gau luzean politika eta musika ez ziren bakarrik izan Pirinioetatik hegoaldera bizi ziren askoren grinak asetzen edo bederen elikatzen.

Silvia Kristel, goian bego. Post Scriptum: *Izar berri bat piztuzera noa... Hollywoodeko zeru gainean!*

## Kausa-ondorio (minbizia eta beste)

Unai Brea  
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

"Fundamentuzko" politikariek, beren buruei eszeptiko esaten dieten zientzialari eta sasi-zientzialariek, industriako bozeramaileek... sarritan erabiltzen dute honako argudioa "ekofanatiko" konspiranoia agerian utzi nahi dutenean: transgeniko, erraustegi, pestizida, konposatu kimiko artifizial eta abarren kalteak salatzen beti, eta non daude horien arriskua demostratzen dituzten datuak?

Zenbat lagun artatu dituzte ospitaleetan, horiek

eragindako minbizi, alergia, malformazioengatik?

Zelula kantzerigenoek, mikroskopioan begiratuta, "Zabalgabik eraginda" dioen etiketa baleramate bezala.

Elektoralismo kiradun prentsaurrekoa eskaini digu berriki Rafael Bengoa EAEko Osasun sailburuak, bularretako minbiziaren detekzio goiztiararen eta tratamenduen onurak goratzea xede.

"Orain bularretako minbizi kasu gehiago egon arren, hilkortasuna beherantz doa", zioen titular batek.

[...]  
Zenbait gaitzen gorakadaren zergatia ikertzeari serio egingo balitzaio, agian erantzungo genizkieke lehenengo paragrafoko galderei, eta agian ez.

Mediku batekin hitz egin dut lerro hauek idatzi baino lehenago, eta esan dit detekzio goiztiarreko programek eta bizi-itxaropenaren handitzeak berez esplikatzeko dutela minbizi kasuen gorakada.

Ez dut hori ukatuko, baina zer pentsatua ematen dit, nolahi, kausak sakonki aztertu nahi ez izate horrek.

Seguruenik ekofanatiko konspiranoiko hutsa naiz.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Estepan Plazaola

**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Uthabe Madera  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitate)

**Asteburuko edizio arduraduna**  
Xabier Urtzelai  
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetzea eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
ARRASATE 20500:  
Utalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com


**Harpidetzea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetzea@goiena.com

**Legu Gordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale  
**Difusioa:** 4.383 ale

GOIENAN ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# HERRIAK

ARAMAIO

## Mendiola, bertako zein kanpoko sagardo eta sagar-zuku egileentzat

- ▶ Ikerketa eta Berrikuntza zentroan irail hasieratik dihardute lanean; orain, jo eta ke ari dira
- ▶ Laguntzeko pertsona bat dago, baina norbera da prozesu osoaren azken arduraduna

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaixo Basarri Barri fundazioarendako Mendiola Ikerketa eta Berrikuntza zentroari sagar usaina dario. Irail hasieratik dihardute lanean, baina orain dabilta jo eta ke sagardo zein sagar-zukua ekoizten. Izan ere, Aramaio Sagardogileen Elkarte zuzendaritza taldeko Jesus Arregiren arabera, doitze arazoengatik atzerapen batzuk izan ziren sagarrarekin lanean jarri ahal izateko. Baina, atzerapenak atzerapen, egoitza berria estreinatuta dute dagoeneko. Izan ere, ezin da ahaztu Mendiola "proiektu estrategikoa" dela Udalarendako. Hala, ASEkoak hainbat urtez Kultur etxearen azpian ekoiztu ostean, orain leku egoiagoa dute lanerako.

**Norbera prozesu osoaren jabe**  
Bertako sagardogile eta sagar-zuku ekoizleendako izateaz gain, Aramaioak ez direnek ere erabiltzen dute maiatzean inauguratu zen zentro berria. Funtzionamendua erraza da oso: norberak 600 kilo sagar eraman behar ditu, dolareko lana alperrik gal ez dadin. Beraz, kopuru horretara heltzen ez direnek beste interesatu bat bilatu beharko dute. Beste baldintza bat da lantalde bat beharrezkoa dela: "Sagardo zein sagar-zukua egiteko hiru pertsona ezinbestekoak dira", ziurtatu digu Enrike Galan Mendiola zentroko arduradunak. Gaineratu du erabiltzen den materiala norberaren ardura dela: "Ni laguntzeko nago baina erabiltzen den guztia txukun utzi behar da hurrengoarendako".



Arratiatik etorritako baserritarak, Enrike Galanekin batera. | JOKIN BEREZIARTUA

DATUA

# 600

KILO SAGAR

Sagardo edo sagar-zukua Mendiolan egiteko 600 sagar kilotan zehaztu dute.

Bestalde, labur-labur azaldu digu nola egiten diren sagarraren eratorriak: "Hasteko sagarra txikitu egiten da dolarean, ordu eta erdiz. Sagardo nahi bada, txikitutakoa kupelean sartzen da zuzenean. Sagar-zukua gura bada, berriz, pasteurizatu egiten dugu hemen bertan, 87 gradutan, eta gero botilaratu egiten da". Botilak ez baditu norberak etxetik eramaten litro bateko botila

KEPA LEIZA  
ERABILTZAILA

"Guretako 600 kilo gutxitxo da, baina aukera polita da"

Arratiatik etorri zen Kepa Leiza sagar-zukua egiteko.

**Nola izan zenuen aukeraren berri?**

Lagun batzuen bidez. Eurak iaz izan ziren ASEkoekin zukua egiten eta aukera polita zela pentsatu nuen. Lehen aldia da, ea ona irteten den.

**Gustura eskaintzarekin?**

Bai. Guretako 600 kilo gutxitxo da, baina aukera polita da. Prezio aldetik ere ondo dago, nire ustez. Sagar-zukua egitera etorri naiz; sagardo etxean egiten dut, 200 bat litro. Zukua etxerako eta laguntzeko izango da.



J.B.

XABI MONDRAGON  
ERABILTZAILA

"Dena bertan egin dezakezu, beste baten laguntza barik"

Arrasatekoa da Xabi eta hiru aldiz erabili du Mendiola zentroa.

**Nolako izan da zure esperientzia?**

Oso positiboa. Lehen sektorean lan egiten duen lagun baten bidez izan nuen aukeraren berri eta dagoeneko hiru aldiz etorri naiz.

**Zer nabarmenduko zenuke Mendiola zentrotik?**

Jende asko dago etxean birrintzailea, dolare edo fermentatzeko kupela duena. Zentro honek eskaintzen duena da dena bertan egiteko aukera, hirugarren pertsona bati laguntza eskatu barik.



J.B.

eta tapa bakoitzeko euro bat kobratzen dute. Lanari dagokionez, Galanek aitortu digu ekoizpenerako bi hilabeteak gogorrak izaten direla: "Bi hilabete urte osorako emaitza lortzen da eta beraz, jo eta ke aritzen gara".

**Hurrengoa, Irikiñ taldea**

Irikiñ taldea izango da Mendiola Ikerketa eta Berrikuntza zentroan sartuko den Aramaio

Basarri Barriko hurrengo taldea. Barazki eta frutak eraldatzeko sortu zen elkarte.

Maiatza amaieran egin zuten taldearen aurkezpena eta egun lau bazkide dituzte: "Ez dugu bazkide gehiago behar, gaudekin aurrera egingo dugu. Hori bai, atek zabalik daude elkartearen sartu gura dutenendako", adierazi du Adela Elejalde taldeko kideak.

UGARTE  
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

**AROSZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**BERGARA**



Proiektuak · Koltxoiak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurri  
Ateak · Eskailerak  
Leihoak · Tarimak  
Egur lanak





Miko-poteoan era ezberdinetan prestatutako perretxikoekin egindako pintxoak dastatu zituzten. | TXOMIN MADINA

ONATI

# Perretxikoen bidaiia: basotik sukaldera

- ▶ II. Jardunaldi Mikologikoa egin dute Arantzazun
- ▶ Alberto Elortzaren hitzaldiak ikusmina piztu zuen

TXOMIN MADINA | OÑATI

Antolatzaileen aurreikuspen guztiak gainditu zituen zapatuan Arantzazun egindako II. Jardunaldi Mikologikoa. Arantzazuko Adiskideek eta Naturgintza Fundazioak antolatuta, gastronomikoa izan zuen ardatz jardunaldiak.

## Berba eta jan

Jardunaldia Zelai Zabala jabetzeko Alberto Elortza sukaldaria eta

bere laguntzaile Raul Fernandezek eskainitako hitzaldiarekin hasi ziren. Bertan gastronomiarekin lotutako perretxikoen hainbat ikuspegi landu zituzten; hala nola, erabilerak, kontserbaziorako aholkuak eta errezeta ezberdinak. Hitzaldiko aretoa bete egin zen eta bertara joandakoek galderak egin eta zalantzak argitzeko aukera izan zuten. Sorpresarik ere egon: David de Jorge sukaldari

ospetsuak bideo bidez bidalitako mezua jaso zuten hitzaldira joandakoek.

Berbagai bakarrik ez, perretxikoak dastagai ere izan ziren, miko-poteo egin zuten-eta auzoko jatetxeetan. Zelai Zabalek, Goiko Bentak, Sindikak eta Arantzazuko Santutegia hotelak perretxikoak oinarri hartuta prestatutako pintxoek jardunaldiko parte-hartzaileak gozazari zituzten.

ALBERTO ELORTZA | SUKALDARIA


## "Badugu perretxikoak jateko ohitura, gertatzen dena da klasikoak garela"

### Bilatzeaz gain, euskaldunok badugu perretxikoak jateko ohitura?

Bai, badago. Gertatzen dena da klasikoak garela: ondoak denoi gustatzen zaizkigu, baina gehiago kostatzen zaigu gibelurdin bezalako beste maila bateko perretxikoak jatea.

### Jasotakoan kontserbatzeko metodoak azaldu dituzu hitzaldian.

Lehenengo, ondo hartu behar da; labanarekin zuztarrak moztuta, bestela, beste gauza batzuk egiteko aukera galtzen da. Behin hartutakoan, ez baduzu hirugarren egunera arte kontsumitu behar, emango diogun erabileraren arabera kontserbatzeko aukera asko daude: hutsean izoztea, oliotan ontziratzea, lehortzea...



T.M.

### Sukaldean aukera asko ematen dituzte perretxikoak?

Egin ditzakezu diren moduan, baina baita denok ezagutzen dugun nahaski moduan ere. Betegarria izateko balio dute; labean sartzeko; papillot bat egiteko; lehortu, hauts bihurtu eta beste jaki batzuei aroma emateko... Bai, sukaldean aukera asko eskaintzen dituzte perretxikoak. Kartan ez dugun arren, izozkia ere egiten dugu guk.

### Gomendatu perretxikoekin errez egin daitekeen errezeta bat.

Lehenengo egosi perretxikoak eta behin gordintasuna kendutakoan, berakatzarekin zartagin baten saltatu. Gero, arrautza bat hartu eta utzi hiruzpalau minututan ur irakinetan egiten. Behin eginda dagoenean, jarri perretxikoen gainean. Goringoa biguna egonda eta gainetik perrexila botata, plater ezberdin bat irtengo zaigu, baina betikoa era berean.

ARETXABALETA

# Gazteak eta kirola protagonista Emakume Astearen azken txanpan

Eguraldiagatik zenbait ekitalditan aldaketak egin behar izan arren, antolatzaileak gustura daude

TXOMIN MADINA | ARETXABALETA

Egubakoitz eta zapatuko ekitaldiekin eman zitzaien amaiera Aretxabaletan Emakumearen Asteari.

Egubakoitzean plazan aurreikusitako jolas ez sexistak eta grafiti ikastaroa azkenean plazako arkupetan egin behar izan zituzten eguraldiagatik. Paula Kasares unibertsitateko irakasleak bestalde, genero eta kultura kontuak landu zituen *Emakumeen jokaerak hizkuntzaren jarraipenean* hitzaldiarekin. Mainer Aizkorbe zinegotziaren esanetan, ez zen ekitaldi jendetsua izan, baina bertaratu zirenak oso gustura irten ziren hitzaldian jasotakoarekin.

Zapatuan, kirolen ingurukoak izan ziren antolatutako ekintzak: debaldeko spinning eta aerobik ikastaroak egin ziren kiroldegian, eta areto futbol partidua ere egon zen.

### Balorzio positiboa

"Lehen aldia izan da, eta beti dago zer ikasi" dio Mainer Aizkorbe Astearen balorzio egiterakoan, baina gaineratzen du orokorrean gustura daudela, batez ere udal teknikariek erakutsi duten inplikazioagatik. Datorren urtean ekimena errepikatuko duten galdetuta, Aizkorbe dio seguruenik baietz, baina aztertu egingo dutela noiz eta zein formatutan egin.



Ostiraleko ekintzen artean saskibaloia erakustaldia egon zen. | JOSETXO ARANTZABAL



Grafiti ikastaroak piztu zuen gaztetxoaren interesa. | JOSETXO ARANTZABAL



Landareak ere ipini zituzten salgai atzo frontoian. | JOSETXO ARANTZABAL



Denetarik eros zitezkeen herritarrek bigarren eskuko azokan ipinitako postuetan. | JOSETXO ARANTZABAL

## ESKORIATZA

# Bizimodu jasangarriago baten alde, asteburu oparoa Eskoriatzan

Herritarrek ipinitako postuei esker, berrerabilpena bultzatu zuten bigarren eskuko azokan

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

Jasangarritasun Asteburua egin dute Eskoriatzan eta zenbait ekimen burutu dituzte egitarauaren baitan. Alde batetik, uraren inguruko berbaldea eskaini zuten

zuten zapatuan Ibarraundi Museoa. Bertan, ur kontsumoaren gainen egin zuten berba esaterako, eta komun lehorren nondik norakoak ere azaldu zituzten. Arratsaldean XV. mendeko base-

ria bisitatu eta bioeraikuntza baten eredia ezagutu zuten bertatik bertara.

Domekan berriz, bi azoka egin zituzten frontoian. Alde batetik, eta hirugarren urtez, bigarren

eskuko azoka antolatu zuen kultura etxeak. Gura zuten herritarrek postua jarri ahal izan zuten bertan, eta etxetik arropa, jostailu, bitxi eta oro har, gura zutena eramanda tratuan aritu ziren.

Hala, egoera onean dauden gauzen berrerabilpena bultzatu zuten eta jendeak bikain erantzun zuen beste urte batez, 18 postu ipini baitzituzten.

Bestaldetik, irtenbide jasangarriak erakusten zituzten hamai-ka postu ere ipini ziren frontoian: komun lehorrak, instalazio termikoak, Jakionen produktuak, etxe zein orturako landareak...

Beste modu batetan bizi daitেকেela erakutsi dute modu horretan Eskoriatzan, eta jendeak ere mota honetako ekimenarekin edukitako jarrera ikusita, posible dela ondorioztatu zuten.



**DORLETA**  
ESKORIATZA

"Gure postuan herritarrek ekarritako arropa daukagu, jasotako dirua zaharren egoitzarako izango da. Lasai doa eguna, jendea egon arren ez dute askorik erosi. Plazan egon ginen iaz eta jende gehiago ibili zen".



**ROSA MARIA ETA JOSEBA**  
ESKORIATZA

"Postua jartzen dugun lehengo aldia da. Umek beraien gauzak ekarri dituzte, ea zerbait saltzen duten. Ganbara eta garajea husteko baliatu dugu, dena jostailuz beteta daukagu eta. Zer edo zer saldu dugu, baina kostata".



**SILVIA ETA MARISOL**  
ARRASATE

"Zu behar zaitut elkartekook ipini dugu postua. Autofinantzatu egiten gara aluminioa birziklatzearen bidez. Gaurkoan, erakustalditxo bat egin dugu, jendeari zerk balio duen eta zerk ez erakusteko asmoz".



**JAGOBA**  
ARRASATE

"Ekitermik-en zerbitzuak erakutsi eta eskaintzera etorri gara: instalazio termikoak, mantentzea eta abar. Aurreko urteetan baino jende gehiago ibili da eta egiten dugunarekiko interesa erakutsi dute postura gerturatuz".



**NAHIKARI**  
ESKORIATZA

"Ez da etortzen naizen lehengo aldia, eta gustuko ditut horrelako inizatibak. Neskatilarentzako gona bat erosi dut. Iruditzen zait daukagun egoerarekin, birziklatu edota berrerabiltea bultzatzen duten azokak primeran datoz".



ARETXABAETA

JOSETXO ARANTZABAL


## Kuku Mikuren ate irekiak

Haurren garapenerako elkarteak Durana kaleko 30. zenbakian duen lokaleko ateak ireki zituen zapatuan. Modu horretan gura zuten guztiak Kuku Miku hobeto ezagutzeko parada izan zuten. Guraso ugari gerturatu ziren beraien seme-alabekin eta primeran pasatu zuten denek, tokia ezagutzeaz gainera, aurpegiak margotu, puxikekin eta bestelakoekin jolastuz ederto igaro zuten.

## ONATI

## Denetarikoa II. Txanda Egunean

Oñatiko Txanda Elkarteko 21 dende bat egin zuten zapatuan II. Txanda eguna ospatzeko. Goizean izan zen jende gehien plazan, arratsaldean, berriz, eguraldiak moteldu egin zuen asistentzia. Denetarik topatu zuten kuxkuxeatzera animatu zirenek: sagarrak, bizikleta estatikoak, arropa, masajea, Chufamixa...



JOSETXO ARANTZABAL



Euria dagoenean itoginak izaten ditu Iturripe kiroldegiak. | JOKIN BEREZIARTUA

## Gabonetako oporretan egin gura dituzte Iturripeko lanak

Helburua da ahalik eta eragozpenik gutxien eragitea bertako kirol jardueri

UBANE MADERA | ARRASATE

Gaur, astelehena, bukatuko da Iturripeko kiroldegia berritzeko Arrasateko Udalak deituta duen obren lehiaketarako aurkezteko epea.

Bestela esanda, gaur arte Arrasateko Udaleko Obren Sailean jaso dituzten eskaintzen artean bat aukeratu beharko dute, eta horren arabera egingo dituzte obrok.

"Asmoa da lanak Gabonetako oporretan egitea, ahalik eta kalte gutxien eragiteko bertan egiten diren kirol jardueri. Dena den, lanak esleitu arte ez da jakiterik izango obra data horietan egin

ahal den", zehaztu dute Udaleko ordezkariak.

### Ia 100.000 euro

Behin obrak hasita, bi hilabetean bukatu beharko dituzte. Egi beharreko inbertsioari dagokionez, berriz, proiektuaren aurrekontua da 95.243'38 eurokoa (BEZ zerga barne).

### Estalkia eta habeak

Orokorrean kiroldegiaren beraren egitura berrituko dute. Hain zuzen ere, bi ardatz nagusi izango dituzte berritze lanek: kiroldegiko estalkia eta habe bi konpondu gura ditu Udalak.

Habeei dagokionez, "estalkian badago urteen poderioz, eurite eta haizearen eraginez, izorratuta dagoen habe bat. Bada, obra honetan habe hori aldatu egingo da. Habe horrexeri eta eraikinaren beste aldean dagoenari tratamendu bat emango zaie" jakinarazi dute Udaletik.

### Estalkia bera

Horrez gainera, adierazi dute habeen konponketa horrek eragina izango duela, baita ere, kiroldegiaren estalkian: "Estalkiari, bide batez, irtengune edo "biseratxo" bat jarriko zaio biga babesteko eta etorkizunean arazorik egon ez dadin".

Eta, estalkiari berari dagokionez, berriz, orokorrean "errepasotxo" bat eman gura dituzte, batez ere, estalkia iragazgaitzeko asmoarekin, gaur egun itoginak dituelako.

## Zaldibarko txapelketako izenematea ixtear

Urriaren 30a baino lehen eman behar dute izena txapelketan jokatu gura duten taldeek

U.M. | ARRASATE

Bihar zortzi, martitzena, izango da aurtengo Zaldibarko areto futbol txapelketan izena emateko azkeneko eguna. Kulturaten egin dute horretarako hitzordu fisikoa: 18:00etatik 20:00etara. "Edozelan

ere, fisikoki etorri barik, bestela ere eman daiteke izena, telefonoz, adibidez (635 20 58 58 edo 634 44 75 92)", azpimarratu du Jose Angel Tenak, antolatzaileetako batek.

Txapelketa horretan parte hartzeko 275 euro ordaindu behar-

ko du talde bakoitzak. Txapelketa bera, berriz, azaroaren 10ean abiaraziko dute. "Betiko moduan, partiduak zapatu goizean eta domeka goiz eta arratsaldean izango dira. Talde nahikorik ez balego, domeka arratsaldetakoak kendu egingo genituzke, gustukoagoa delako domeka goizean jokatzeari", jakinarazi du Tenak.

### Baldintzak eta kopurua

Izena emateko baldintzetako bi dira 16 urtetik gorakoak izatea, eta talde bakoitzean, gutxienez, 12 lagunek ematea izena.

Txapelketan jardungo duen talde kopuruari dagokionez, berriz, "iazko bera mantentzearekin" pozik egongo direla adierazi du Tenak, "ezen azken urteotan beherakada nabarmena izan da. Arrazoa izan daiteke gazteek bestelako zaletasun batzuk dituztela gaur egun", azaldu du.

Bestalde, jokatzeko ez ezik, txapelketa bera antolatzeko laguntza ere eskertuko dutela esan du Tenak: "Pare bat lagun beharko genituzke. Izan ere, lan kontuak direla-eta, antolatzaileetako batzuek baja hartu dute".

## Jamaikako erritmo dantzagarriak, gaztetxean

U.M. | ARRASATE

Eguenak, betiko moduan, musika-zaleen agendan gorritz markatuta daude Arrasaten, Kooltur Ostegunak ekimenari esker.

Oraingo honetan musikaz gozatzeko ez ezik, dantzarako aukera ere izango dute gaztetxera doazen zaleek.

Taula gainean Glaukoma taldea izango dute erritmoak markatzen. Gipuzkoako hainbat herritako musikariek osatutako "talde berri interesgarria" da, antolatzaileen esanetan. "Reggae, rap-a eta raggamuffia nahasten dituzte. Vol.1 izeneko diskoe aurkezten dabilta", zehaztu dute.

Betiko moduan, kontzertua 22:00etan hasiko dute. Bost euroren truke eskuratu ahal izango da sarrera.

### Neskak eta kantautoreak

Bestalde, antolatzaileek gogora ekarri dute "azaro eta abendurako ja lotuta" dituztela hitzordu batzuk. Eta ez edozein hitzordu gainera, besteak beste, Fermin Muguruzak egin duen filmaren protagonista den Zuloak neska musika taldea izango da-eta Arrasateko gaztetxearen taula gainean.

Horrez gainera, Krissy Mathews Eskandinaviako "gitarra-jole talentudun" bat ere izango da Arrasaten, bere taldearekin. Eta beste musikari pare bat aipatzearen, Eibarren jatorria duen Murrerri bakarlarri esperimentalaren musika eta Euskal Herrixen rock kantautoreetan aitzindari dan Javier Sun donostiarrarena ere entzungai izango dira eguenetan.

## Pako Aristi, euskara eta boterea

U.M. | ARRASATE

Egubakoitzeko GOIENA papekoan argitaratu genuen Pako Aristi idazleak hitzaldia egingo duela oraingo eguaztenez Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Bada, informazioa ez da zuzena, eguaztenez barik, martitzenez duelako hitzordua (19:00).

*Euskara, hizkuntza bat bere bakardadean* da Aristiren hitzaldiaren izenburua. "Ageritu nahi dut nola funtzionatzen duen botereak hizkuntzaren bermatzaile gisan. Hizkuntza baten hedapena sostengu ematen dion boterearen neurrikoa izaten da", aurreratu du idazleak, besteak beste.

## TXALOAK ETA TXISTUAK

## Putzu demasekoa Musikalen aurrean

Arrasate Musikalen sarreran (Monterron jauregian) demaseko putzua sortzen da euria egiten duenean. Irakurle batek kexua helarazi digu azpimarratuz hor herritar ugari batzen dela, eta kexu hau berau eginda izan arren, oraindik ez zaiolako konponbiderik eman.



SERGIO AZKARATE

# Pasioz betetako 'Carmen' Arrasaten izango da bihar

- ▶ 'La Bohème' operak izandako arrakastaren ostean dator 'Carmen'
- ▶ Bizeten obra bihar eskainiko dute Amaia Antzokian, 20:00ean hasita

## ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Bihar martitzena, Georges Bizet konpositorearen *Carmen* lan arrakastatsua Arrasatera iritsiko da. Ikusmin handia piztu ondoren, Amaia Antzokira gerturazten direnek gozatu ahal izango dute azkenik opera obra honekin, 20:00ean hasita.

Ozenki Elkarte lirikoak ekarriko du *Carmen* herrira. Jatorrizko hizkuntzan (frantsesez) izango da emanaldia. Ahotsa ipintzeko arduradunak, Opera 2001 konpainiako bakarlari eta koroak izango dira; musika, berriz, Bulgariako Pleven Orkestra Sinfonikoaren eskutik entzungo da. Bestalde, haiekin batera,

Murtziako Ballet Español arituko da Amaia Antzokian. Ez da Ozenki elkarteak ekarri duen aurreneko opera emanaldia; urte

hasieran *La Bohème* ikuskizunak edukitako arrakastaren ondotik dator *Carmen* gureru.

## DATUA

# 1875

URTEA

Urte horretan estreinatu zuen Georges Bizet konpositore frantsesak *Carmen* opera Parisen.



'Carmen' operako une bat. | ARGAZKILARIAXXX

## XIX. mendeko obra

Georges Bizet konpositore frantsesaren lana 1875. urtean estreinatu zen aurrenekoz, Parisen. Hasiara batetan, baina, kritikak ez ziren onak izan. *Carmen* estreinatu eta hilabete gutxira Bizet bihotzekoak jota hil zen, hain zuzen ere, etorkizunean bere lanak edukiko zuen arrakasta ezagutu gabe.

Kulturaten *Carmen* Operaren aurkezpena egin zenean, Ozenki Elkarteko Manu Gallardok honako adierazi zuen: "Parisen arra-

kastarik ez, baina bere lagun batek operari ukituak eginda, Vienan aurkeztu eta ordutik arrakastaz arrakasta lortu duen obra da".

*Carmen* obra apurtzailea izan zen bere garairako. Izan ere, bertan agertzen diren pertsonaiek kutsu errealista daukate; ordu-ra arte opera gutxitan ematen zen kasua, hain zuzen ere. "Politikoki ez zen zuzena garai hartako jendartearen ikuspuntuaren

arabera *Carmen*, bertako pertsonaiek maitatu eta gorrotatu egiten baitzuten, besteak beste." Gallardoren esanetan, istorioan ematen diren pasarteak ere, garai hartako ikuspegitik begiratu behar dira, "egun ez litzateke eta onartuko horrelakorik"

Arrakastatsua izango denaren zantzu guztiak ditu obrak. Opera zaleek ez dute Amaiako eserleketan eseri eta gozatzea besterik egin behar.



Pilates hastapen ikastaroa antolatu du kiroldegia azarorako. | YOGALOUNGE

## Pilates, abdominal hipopresiboak eta patinajea, azaroko agendan

### Z.V.D.M. | ARRASATE

Urria amaitzeko gutxiago gertzen denean, kiroldegia prest ditu azaroko zenbait eskaintza. Dagoeneko izena eman daiteke guzti horietan.

Astelehen eta eguaztenetan gimnasia abdominal hipopresibo ikastaroa emango dute, goizez (09:15) zein arratsaldez (17:30).

Sabel barruko presioa jaitsi eta zoru pelbiko zein horma abdominalaren tonua handitu

gura dutenei dago zuzenduta. Bestaldetik, pilateseko hastapen ikastaroak ere antolatu dituzte, azaroren 5, 7, 12 eta 14an goizez (11:15) eta 6, 8, 13 eta 15ean arratsaldez (15:00 eta 20:30ean).

### Patinaje ikastaroak

Bestalde, astelehen eta eguaztenetan, patinajea hastapen eta hobekuntza ikastaroak emango dituzte, 18:30ean eta 19:30ean hurrenez hurren.

## Urtean zehar egiteko tailerrak erabakitzeko asanblada Gaztetzan

Arrasateko Gaztetzak bihar, urriak 23, urtean zehar egingo dituzten tailerrak erabaki eta antolatzeko asanblada deitu du, 18:00etan. Interesatuei dei egiten diete beraien ideiak proposa ditzaten: soinu teknikari tailerra, bizikleten konponketa, sendabelarrak, garagardo ekoizpena...

## 'Trazando el Diálogo' liburua aurkeztuko dute gaur Kulturaten

Gizagune Fundazioaren eskutik *Trazando el Diálogo. Herramientas Esenciales para el Cambio Social* liburuaren aurkezpena egingo dute Kulturaten 19:00etan. Euskal Herriko politika, kirol zein kultura arloko aurpegi eza-gunekin eginiko ikus-entzuzkoak ere emango dute.

# Hizkuntza gutxituak hezkuntza bidez nola indartu landu dute

V. Truke Programaren baitan, nauatl eta kakchiquel hizkuntza gutxituak berba egiten dituzten bost lagunek Txatxilipurdiko lana ezagutu dute

### Z.V.D.M. | ARRASATE

Atzo amaitu zen Garabide kooperazio elkartearen V. Truke Programa. Hiru astetan zehar ekintza ezberdinak burutu dituzte. Hala, pasa den egunean, hilak 18, Arrasateko Txatxilipurdi Elkarteak ezagutu zuten erdiguneko Gaztegunera bertaratu ziren Mexiko eta Guatemalatik etorritako lagunak, gehienak lanbidez irakasle edota ikastetxeetako zuzendariak, Garabideko kideekin batera.

### Hezkuntza eta hizkuntza

Aurten hezkuntzaren bidez euskara nola indartu den erakutsi gura izan die parte hartzaileei Truke programak. Horretarako egitarau oparora prestatu zuten,

zenbait ikastola, eskola txiki eta eskola publiko bisitatu zituzten esaterako, metodologia eta didaktika tresnak ezagutzeko. Aisialdiak ere hezkuntzan garrantzia duela jakinda, Txatxilipurdi ezagutzera bertaratu ziren. Eguztean

jolas batzuk egin ostean, hizkuntzarekin izaniko harremanez eta aisialdi moduez egin zuten berba. Amaitzeko, batera bazkaldu zuten.

### Nauatl eta kakchiquel

Mexikoko eta Guatemalako lagunak hartu dute parte egitasmoan; nauatl eta kakchiquel hizkuntza da beraiena, hurrenez hurren. Guatemalako Chimaltenango eskualdeko Igor Xoyonek hala adierazi dio GOIENARI: "Nortasun handiko herri batetara etorri gara, eta hemen hizkuntza eta kultura berreskuratzeko nolako lana egin den ikustea baliagarri izango zaigu gure herrietan ere zein bide hartu jakiteko. Eta esperantza ematen digu".

## ESANAK

"Hemen eginiko lana baliagarri zaigu gure hizkuntza berreskuratzeko"

IGOR XOYON | GUTEMALDARRA



Truke Programakoak eta Txatxilipurdikoak, Gaztegunen kanpoan. | Z.V.D.M.

## Lokatzak hausnarketa prozesua hasi berri du

Zikloturistekin batera antolatzen diren ekintzak indartu nahi dira eta baita eskola bera ere

P.A./A.B. | BERGARA

Lokatza txirrindularitza elkar-teak hausnarketa prozesua hasi du. Klubaren barnean hainbat aldaketa egin nahi dituzte, besteak beste, "partaide gehiago lortzeko eta belaunaldi berriendako egitarau interesgarria eskaini ahal izateko".

### Eskola eta antolakuntza

Hausnarketa prozesua duela pare bat aste egindako bilera-ekin hasi zuten. Garai bateko Bergarako Txirrindulariak elkarteko zikloturistak, klubeko kideak eta eskolako neska-mutikoen gurasoak batu ziren bertan. Bi puntu nagusi izan zituzten hizpide: alde batetik Lokatzako txirrindularitza eskola, neska-mutikoak erakartzeko bide berriak zeintzuk izan dai-

tezkeen; eta bestetik antolakuntzaren inguruan ere jardun zuten inplikazio handiagoa nola lortu aztertzeke. Bileran bertan ez zen erabakirik hartu baina lokatzaren webgunean ([www.lokatza.com](http://www.lokatza.com)) argitaratuko dute hausnarketa prozesuak ematen duena.

Bilera berean zuzendaritza berritzeko asmoa agertu zen: "Estatutuak berritzeko tramite guztiak amaitu ostean, zuzendaritza berritzeko momentua izan daiteke orain".

### Murrizketak etorkizunean

Aurrera begira ipinita Lokatzaren izen ona mantetzea izango da klubaren helburu nagusia. Diru-laguntzen murrizketei nola aurre egin ere aztertu beharko dute.



Lokatzak 2012ko taldea aurkezteko egindako ekitaldia. | GOIENA

## 1.844 espediente tramitatu ziren 2011an Gizarte Zerbitzuetan

Aurrekontua 2.089.377 euro izan zen, aurreko urteetan baino txikiagoa; arrazoia da beste erakundeetatik jasotako diru-laguntzak jaitsi egin zirela

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuen departamentuak 2011. urteko jarduna laburbiltzen duen txostena kaleratu berri du. Bertan, besteak beste, departamentuak eskainitako laguntza eta zerbitzu bakoitzaren azalpena, egindako lan eta eskainitako laguntzen aipamena jasotzen da. Udal webgunean ere herri-tarren eskura ipini dute txostena.

### Espediente kopuruak gora

Txostenean erakusten denez tramitatutako espediente kopurua igo egin zen 2011an; 2010ean 1.743 izan ziren eta iaz 1.844. Hala ere, beste urte batzuetako tendentziarekin alderatuz gero igoera ez da hain altua izan. Sexuari dagokionez, %54. emakumezkoak izan dira eta %46 gizonezkoak, estatukoak izan ziren 71,55% eta gainontzekoak estatuz kanpokoak

Udalak 2011. urtean gizarte zerbitzuetan inbertitutako diru-kopurua jaitsi egin zen aurreko urtearekin alderatuta. Bi arrazoi nagusi izan dira: batetik Mizpirualde egoitzagatik Udalak egin beharreko ekarpenaren jaitsi-erata eta bestetik pertsonal gastua jaitsi izana, bai kontratazio mailagatik bai nominetan izandako jaitsieragatik.

Beste erakunde batzuetatik jasotako diru laguntzek ere behera egin zuten 2011an. Horren eragile izan da Jaurilaritza eta INEM-ek egindako ekarpenetan izandako murrizketa: batetik programa desberdinen finantzaketarako Eusko Jaurilaritzak egindako ekarpenaren murrizketak; eta bestetik INEMeko diru laguntzen desagerpena, izan ere, 2011n INEM erakundea Lanbide hartu zuen bere gain.

Udaleko Gizarte zerbitzuen departamentuko aurrekontua 2.089.377,23 eurokoa izan zen guztira, udalaren ekarpena 1.213.737,33 euro izan zen eta beste erakunde batzuetakoa 875.639,9 euro. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ekarpenak ere jaitsi egin ziren nahiz eta aurreko urtean baino maila txikiagoan.

### ESPEDIENTEAK

ALORRA	KOPURUA
Menpekotasunak	%37
3. adina	%14
Droga-menpekot.	%0,8
Lankidetzak	%2,7
Enplegua	%9,7
Diru-laguntzak	%24,6
Familiak	%3
Emakumea	%2,3
Inmigrazioa	%2,1
Beste batzuk	%3,1

### Gizarte zerbitzuak

#### GENERO INDARKERIA

18 pertsonak jaso zuten laguntza psikologikoa eta horietatik 16 emakumeak izan ziren eta bi gizonezkoak. Autolaguntza kasuan bestetik, 36 lagunek hartu zuten parte.

#### ARRISKU EGOERAK

Arrisku egoeran dauden gaztetxoekin eta horien familiekin ere egiten du la Udalak. Laguntza psikosoziala eskaini zaie 36 familiari

#### DROGAK

Orientazio arloan 155 kontsulta jaso dira aholkularitza zerbitzuan 16 kasu artatu dira.

#### DUTXA ETA IBILTARIAK

Dutxa zerbitzua behin eskaini da eta 24 ibiltariri eskaini zaie laguntza -ogitartekoa eta autobus txartela-.

### DATUA

# %54

EMAKUMEAK

2011n tramitatu ziren espedienteen %54 emakumezkoenak izan ziren eta %26 berriz, gizonezkoenak.

# %71

ESTATUKOAK

Jatorria kontuta izanez gero espedienteen %71 Estatukoak izan ziren eta gainontzekoak estatuz kanpokoak.

### OHARRAK

#### 1944AN JAIOTAKOEN KINTADA, AZAROAK 10

Irala kalean elkartuko dira 13:00etan eta bazkaria 14:00etan izango da Lasan. Izen-ematea Sanchez ileapaindegian.

#### 1934AN JAIOTAKOEN KINTADA, AZAROAK 24

14:00etan elkartuko dira txikiteoa egiteko eta 14:45ean argazkia ateratzeko. Bazkaria Errekin izango da eta bertan eman behar da izena (12 euro).

#### 1933AN JAIOTAKOEN KINTADA, AZAROAK 18

Azpeitxi jatetxean izango da. Santa Marinar elkartuko dira 12:00etako mezan. Intxorta tabernan eman behar da izena, sei euro ordainduta.

#### EQUOK DEITUTA HITZALDIA EGINGO DUTE

#### MARTITZENEAN KULTURA ETXEAN

Egubakoitzeko Goiena paperean oker agertu zen hitzaldiaren eguna. Urriaren 23an, martitzena, izango da kultura etxean 19:30ean. Besteak beste, lan baluntarioa, Fiare banko etikoa eta Oparitu Zuhaitz Bat ekimena izango dituzte hizpide.

#### 'NOCHE DE REYES O LO QUE QUIERAS' ANTZEZLANA ZABALOTEGIN BARIKUAN

Getxoko antzerki taldeak taularatuko du antzezlanaren egubakoitzean Zabalotegi aretoan. Emanaldia 22:00etan hasiko da eta sarrera bost euro ordaindu beharko da.

### Kirol argazkien sari banaketa eguaztenean egingo da

Pasa den astean eman ziren ezagutzera Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatutako Kirol Argazki Lehiaketaren irabazleen izenak. Bada sari banaketa atzeratu egin behar izan dute eta eguaztenean, hilak 24, egingo da 20:00etan Aroztegi aretoan.

Hain justu ere lehiaketara aurkeztutako 128 argazkietatik 40 aukeratu eta erakusketari ipini dute Aroztegin. Urriaren 28ra arte egongo da ikusgai ondorengo ordutegian. Astelehenean egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domekan 12:00etatik 20:00etara.

### Euskara Palan berritzeko herritarrekin bilera urriaren 23an

Bergarako Udaleko Euskara batzordeak 2012-2015 eperako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusi berria diseinatzeari ekingo dio datozen asteetan. Plan honek bete beharko dituen helburu eta ekintzen diseinuan Bergarako herritarren zein bestelako eragilean parte hartzea funtsezkoa dela irizten dio Euskara batzordeak.

Herritarrekin lehenengo bilerak irekia egingo dute urriaren 23an, martitzena, 18:30ean Irizar Jauregian. Bileran landuko diren gaien gaineko informazio zehatzagoa topatu ahal da ondorengo webgunean: [www.bergarakoeuskara.net/euskara\\_plana2013\\_15](http://www.bergarakoeuskara.net/euskara_plana2013_15).

### B26 mugimenduak burrunbada antolatu du egubakoitzerako

Irailaren 26ko greba orokorraren ostean B26 mugimendua sortu zen Bergaran "esku-bide sozialen alde" eta "murrizketen kotra" egiteko. Hilero 26. egunean elkartzeko asmoa daukate mota ezberdinetako protestak egiteko. Bada, datorren egubakoitzean, urriak 26, burrunbada egingo dute. Horretarako 19:00etan elkartuko dira San Martin plazan eta zarata egiteko edozein tresna eramateko gonbidapena egin diete bergararrei. Protestaren ostean asanblada egingo dute. B26ko ordezkariek adierazi dute mugimendua zabala eta anitza izatea nahi dutela.





Gazteak igerilekuan igeri egiten. | GOIENA

# DBHko ikasleendako multikirola, Agorrosinen

Adin horretako gazteengan kirola egiteko zaletasuna piztea da helburua

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

*Gazte DBH multikirola* delako ekimena abiarazi du Udaleko Kirol Zerbitzuak.

Kirol Zerbitzutik jakinarazi dutenez, azken urteetan, gazteen kirol praktikak nabarmenki egin du behera nerabazeroan daudenen artean. Izan ere, kirol federatua- ren bidea hartzen ez dutenek kirol praktika gutxi egiten dute normalean. Bada, horri aurre egiteko helburuarekin jarri dute martxan *Gazte DBH multikirola* ekimena.

Izenak zehazten duen moduan, DBHko ikasleei dago zuzenduta eta Agorrosin Ekintza Gunean eta inguruetan praktika daitezkeen askotariko kirol jarduerak eskainiko ditu: gimnasioko jarduerak, ur jarduerak, saskibaloia, esku- baloia, futbola, irristaketa eta

bizikleta, beste batzuen artean.

Ikastaroa azaroaren 5ean hasiko da. Ikasturte osoan, astelehen eta eguaztenetan 17:00etatik 18:00etara egingo dira ekintzak. Erroldatutako abonatuak 16,25 euro ordaindu beharko ditu hilean eta erroldatutako ez abonatuak, 24,5 euro.

Izen-ematea zabalik dago azaroaren 2ra bitartean, Agorrosin Ekintza Guneko idazkaritzan. 14 lagun behar dira taldea osatzeko.

## Taberna esleitzeko oinarriak

Agorrosingo taberna eta jatetxea esleitzeko baldintzak ere kaleratu ditu Bergarako Bihargin-tza 98 SAk. Alokairu kontratu horrek bost urteko iraupena izango du, kontratua izenpetzen denetik kontaktzen hasita, eta

urtez urte gehienez ere beste bost urte bete arte luzatuko da, aldeetako batek idatziz urte bakoitzaren amaiera baino gutxienez bi hilabete lehenago beste aldeari amaieraren berri eman ezean.

Hileko gutxienezko alokairua 750 euro –gehi BEZa– izango da. Kopuru hori gorantz hobetu ahal izango da. Bestalde, alokairua 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, urtero eguneratuko da, KPIaren arabera.

Aurkezteko epea iragarkia GAOn argitaratu –urriaren 11n argitaratu zen– eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 20 egun naturalekoa da. Proposamenak Bergarako Udaleko Bulego Teknikoan aurkeztu beharko dira. Oinarri guztiak [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean.

## Herrilagunetako eta Zurraderoko garajeak konpontzen hasi dira

M.B. | BERGARA

Martxan dira Zurradero eta Herrilagunak kaleetako lur azpiko garajeak konpontzeko lanak. Aurreko astean hasi ziren, hain justu ere, Zurradero kaleko 2. zenbakiko eta Herrilagunak kaleko 3. zenbakiko gara- jeetan aurreikusitako urbani- zazio lanak, kontratu administratiboa irailaren 14an izenpetu eta segurtasun eta osasun plana aurreko astean onartu ondoren.

Berrogei egunean bukatu beharko dituzten lan horien bitartez, lur azpiko garajeok dituzten hezetasun arazoak konponduko dira eta garaje gaineko urbanizazioa hobetu egingo da.

## Udalaren eta jabeen artean

Udaletik aurreratu dutenez, lanak Udalaren eta lur azpiko garajeotako jabe komunitateen artean finantzatu dira.

Alkateak abuztuaren 23an hartutako erabakiaren arabera, Zurradero 2 eta Herrilagunak 3ko lur azpiko garajeen gaineko urbanizazio lanak Asfaltados y Construcciones Morga SL enpresari esleitu zizkioten, 45.132,46 eurotan –BEZ kanpo.

Udaletik gaineratu dutenez, lanen gaineko edozein keza, kezka edo galdera duen edozein herritarrek udaletxeko bigarren solairuan dagoen bulego tekni- kora jo dezake, eta han emango dizkiote azalpenak.



Zurraderoko pasabideko lanak. | M.B.

## Laino skate parkeak 3. urtemuga ospatzeko jaia egingo du 27an

M.B. | BERGARA

Amillagako Laino indoor ska- te parkeak hirugarren urteu- rrena ospatzeko jaia antolatu du datorren zapatarako, urria- ren 27rako.

Skate txapelketa egingo dute 16:00etan. Euskal Herri osoko lehiakideek hartuko dute parte miniramp txapel- ketan eta sari ederrak erama- teko aukera izango dute: 500 euro eta materiala, hain justu ere. Finala 20:00etan joka- tuko da, eta gero banatuko dituzte sariak. Txapelketa, gainera, DJ batek jarritako musikak lagunduko du.

Gauean, 22:30ean, rock kontzertua egongo da. Disci- pulos de Dionisos eta Bitter Honey taldeek hartuko dute parte kontzertuan.

## Euskal Herriko lehen

Euskal Herrian egindako lehenengo indoor skate park ofiziala da Amillagakoa. Ska- tegunearekin batera kafetegia du, eta hor kontzertuak egi- ten dituzte egubakoitzero, baita aldika erakusketak ere. Horrekin guztiarekin batera, skate materiala eta arropa saltzeko denda ere badago bertan.



MARIAREN LAGUNDIA

Holandan izan dira Mariaren Lagundiko 32 ikasle

Mariaren Lagundiko DBHko 4. mailako ikasleek elkartrukea egin dute, laugarrenez, Holandako Groenlo herriko ikastetxearekin. Urriaren 6tik 12ra izan dira han 32 ikasle eta bi irakasle. Helburua, batetik, ikaslearen garapen pertsonala lantzea da, trebetasun sozialak landuz; eta beste alde batetik, egoera erreal batean atzerriko hizkuntza –kasu honetan ingelese– praktikan jartzea. Groenlokoak apirilean etorriko dira gurera.

UNED

BERGARA

IKASTAROAK

- **MINTZAPRAKTIKA INGELESEZ**  
Erdi mailako ezagupena dutenentzako.  
**Hasiera:** Azaroaren 7an.  
**Klase eguna:** asteazkena  
**Ordutegia:** 18:15 - 20:45  
**Matrikula epea:** Urriaren 26ra arte.

Informazio gehiagorako:

Tel.: 943 76 90 33

[info@bergara.uned.es](mailto:info@bergara.uned.es)



San Juan kaletik Bidebarrietara joateko ohiko errepidea itxita dago autoendako; Oinezkoek erabil dezakete. | TXOMIN MADINA

## Hasi dituzte anbulatorioko irisgarritasun lanak

Lanon ondorioz, ezingo da San Juan kaletik Bidebarrietara ohiko bidetik joan

TXOMIN MADINA | OÑATI

Bertara iristeko ibilbide seguru eta eroso egokitzeak, hasi dituzte Oñatin osasun zentroaren inguruko irisgarritasun lanak. Aurreikuspenak betetzen badira, lanek hiru hilabeteko iraupena izango dute eta bi fasetan egingo dira: lehenengoan anbulatorio aurrealdetik kiroldegiko eraikin berrira arteko tartean egingo dira lanak; bigarren fasean, aldiz, Bidebarrietako biribilgune pareraino luzatuko dira. Egaralaur enpresa dabil lanak egiten, eta aurrekontua, 91.500 euro gehi BEZa da.

### Egin beharrekoak

Lanen interbentzio nagusia anbulatorio aurrean egingo da: oztoporik gabeko plataforma bakar bihurtuko da eta espaloiak eta galtzada maila berean jarriko dira,

kiroldegi aurreko gorri koloreko asfalto guneari jarraipena emanez. Anbulantziak geratzeko gune bat ere markatuko da osasun zentroaren aurrealdean. Kiroldegi aurrealdean elbarrientzat dauden aparkalekuak berrantolatuegingo dira eta beste plaza bat egokituko da errepidearen bestaldean. Ikastolak autobusarentzat erreserbatutako aparkalekua lurraspikio parkingera sartzeko igogailua dagoen gunean egingo da.

Honetaz gainera, gaur egun Osasun Zentroaren parean marraztuta dagoen biribilgunea, biribilgune fisiko egingo dute: bost zentimetro altxatuko den plataforma bat egingo dute horretarako. Lurraspikio aparkalekuaren gaineko eskailera gunean ere egingo dute aldaketarik: eskailera gunea estutu egingo da, eta

gainerako espazioan ormatxo bat egokituko da segurtasun baranda batekin babestuta.

### Aldaketak lanen ondorioz

Lanek irauin bitartean, San Juan kaletik Bidebarrietara doan errepidea moztuta egongo da autoendako: saihebidiera irteteko edo Bidebarrieta eta kiroldegi ingurura joateko Arantzazuko Ama kaleko sarrera-irteerak erabili beharko dira. Otxuena etxeko eta San Juan kaleko 9 eta 13 zenbakidun etxetako garajeetara ezingo da sartu.

Hilabeteko epean erabilgarri egingo dira kiroldegi eta Txantxiku Ikastola pareko aparkalekuak. Baina hilabete barru, lanak inguru horretara zabalduko dira eta ondorioz errepidea itxi egingo dute kiroldegi ondoko biribilgunean.

### Lazarragako lorategia irekita egongo da aurrerantzean

Egubakoitzean zabaldu zuten behin betiko Lazarraga jauregiko lorategia. Egun horretan eta zapatuan 15:00etan zabaldu zuten arren, aurrerantzean goizetik ere egongo da zabalik: astean zehar 09:00etatik eta asteburuetan 09:30etatik aurrera. Itxiera ordua iluntzean izango da; urteko sasoi honetan, 19:00etan. Udaltzainak arduratuko dira lorategia itxi eta zabaltzeaz.

Lorategia edozeinentzat dago irekita, baina badira debekatutako hainbat ekintza. Oinezkoendako parkea denez, ezingo da bertan sartu ez bizikletarekin, ez patinetearekin ezta baloiarekin ere.

### Obispo Otadui kaleko bidegorria gorritz margotzea eskatu dute

Obispo Otaduitik Kasablankara arteko bidegorria gorritz margotuko dute. Abuztu hasieran bukatu zituzten lanak eta bidegorria errepide erdian margotu zuten, pintura zuria erabiliz. Hori horrela, erabiltzaileendako ez zen argi geratzen errepidean zeuden lau bideetatik zein ote zen benetako bidegorria. Herritar askok "atletismo pista" zirudiela esan du.

Hori horrela, eta hainbat herritarren eskaera aintzat hartuta, Udalak bidegorriaren gaineko kexa bideratu du Aldundiara: bidegorria gorritz margotu, erdiko marrak zabalagoak eta luzeagoak egitea, eta seinale bertikal eta horizontal gehiago ipintzea eskatu du.

### 'Bestetik bestera' lehiaketako lanak ikusgai daude

Gaztelekuak urtero antolatzen duen udako *Batetik bestera* argazki lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai daude kuboan: astelehenetik egubakoitzera, 18:30etik 20:00etara arte.

Herritarrek aukeratuko dituzte lehiaketara aurkeztutako bi erretratu onenak. Erakusketa bisitatzeaz gain, botoa eman ahal izango dute. Bi argazkiren aldeko botoa eman beharko dute, eta erretratu bozkatuenek jasoko dituzte bi sariak: 150 euro boto gehien duenarendako eta 100 euro bigarrenarendako. Sari banaketa ekitaldian emango dituzte sariok.

## 2013ko aurrekontuak zehazteko batzar irekiak

'Aurrekontuak herrijorran' bi txandatan egingo dute: hilaren 22tik 31ra eta azaroaren 19tik 30era

M.B. | OÑATI

Udal gobernua 2013ko aurrekontua prestatzen hasiko da herritarrekin gaurtik aurrera. *Aurrekontuak herrijorran* bi txandatan egingo dute: urriaren 22tik 31ra eta azaroaren 19tik 30era.

Gainera, lehen txandan LKSk herriko espazio publikoetarako egindako proposamenak ikusgai egingo dira Santa Anan. Udal Gobernuaren asmoa da, bigarren txanda hasi orduko, herritarren iritziak jasotzea. Bestalde, lehen

txandan, hiriguneko auzo elkar-te ezberdinekin bilduko dira auzoko beharrak jasotzeko.

### Aste honetakoak

Aste honetan egingo dituzten batzarrak dira: gaur, auzoak eta landa garapena, udaletxean 19:00etan; bihar, sozioekonomia batzordeko bi deialdi: 15:00etan, kultura etxean, merkataritza atala, eta leku berean 18:00etan, enplegua; hilaren 24an, lurralde antolamendu arloko ingurumena atala landuko dute.

## OHARRAK

### KINTADA

1970ean jaiotakoek irteera egingo dute Errioxara azaroaren 17an. Interesatuek 50 euro sartuko behar dituzte Euskadiko Kutxako 30350005320051047256 kontuan, azaroaren 12a baino lehen. Prezioaren barruan bisita, hamarretakoa eta bazkaria sartzen dira.

### ODOL-ATERATZEAK

Oñatiko odol-emaileen taldeak bi odola emateko bi deialdi egin ditu urtea bukatu aurretik. Azaroan eta abenduan ateratze bana egingo dute: azaroaren 9an, eta abenduaren 14an. Donostiako mediku eta erizainak 17:30etik 19:30era egingo dira Txantxiku Ikastolan.

### PLASTIKO BILKETA

Baserrietan sortzen diren plastikoen urteko azken bilketa azaroaren 27an egingo dute. Oñatin lau lekutan utzi daitezke plastikokka: ETEO atzealdean, Olabarrietako autobus geltokian, Murgiako Asentzio ermita ondoan eta Zañartuko Zuazola zubiaren ondoan.

### GRIPEAREN KONTRA

Osakidetzaaren gripearen kontrako txertoa hartzeko kanpaina hilaren 31n bukatuko da. Bereziki deialdia egin dute 65 urtetik gorako eta gaixo kronikoekin artean. Txertoa hartzeko ez da medikuarekin txanda hartu behar, anbulatoriora joan behar da.



MIREIA BIKUNA

## Txinari buruzko erretratuak

Ilunpetan argazki taldeak antolatuta Iker Iglesias aretxabaletarrak Txinan egindako hainbat erretratu ipini ditu ikusgai kultura etxean, hilaren 28ra arte: astelehenetik domekara arte, 18:00etatik 20:00etara arte. *Tell me and I'll forget; show me and I may remember; involve me and I'll understand* da erakusketaren izena.



Eguenean egin zen ohiko osoko bilkurako irudi bat. | A.T.

## San Pedro berritzeko obrak egin zituen enpresari, zigorra

Ez zituelako agindutako herriko lau langabe kontratatu lan horiek egiteko

**AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA**  
San Pedro auzoa berritzeko obrak egin zituen Olloquiegui enpresari zigorra jarri diote. Izan ere, esleipen proiektuan esan zuten Eskoriatzako lau langabetu hartuko zituztela obran lan egiteko,

eta horrela, herriko enplegua sustatzeko, baina ez dute kontratua bete, eta ondorioz, zigorra jartzea erabaki zuten aho batez egunean egin zuten ohiko osoko bilkuran. Zigorra hauxe izango da: obraren kostuaren %10a ez

zaio enpresari ordainduko, gutxi gorabehera 22.400 euro, eta "konpromiso bat hartu dugu Udaletik diru hori erabiltzeko Eskoriatzako enplegua sustatzeko. Oraindik ez dakigu zein modutan erabiliko den, aurrerago erabakiko da,

baina datozen hilabeteotan diru hori horretarako erabiliko dugu" esan digu Beñat Herce alkatetik.

### Bestelako gaiak

Bestalde, urtero egiten duten Eskoriatzako kirol elkartearekin lankidetzaz hitzarmena egitea ere aho batez onartu zuten eguneko ohiko osoko bilkuran.

Aho batez onartu zuten baita ere ondasunen inventarioan sei fotokopiagailu eta inprimatzaile baxa ematea. Bi ez daude erabilgarri dagoeneko eta beste lauak Gipuzkoako Gobernuz Kanpoko Erakundearen koordinadora-ri emango zaizkio eurek GKEtan doan emateko. Eskoriatzako Udalean berriak jarriko dituzte.

### Preso gaixoen mozioa

Amaitzeko, Bilduk mozio bat aurkeztu zuen. Bertan eskatu zuten preso gaixoen kasuetan legea betetzea eta lau aldeko botoarekin (Bildu) eta hiru abstentzioarekin (PSE-EE eta Elizateak) mozioa aurrera ateratzen. Alderdi sozialistak Jose Luis Cantero zinegotziak esan zuten eurek ez dutela nahi presoek sufritzea baina mozioan faltan bota zuela biktimen errekonozimendua.

## Patxaran lehiaketa, domekan Aretxabaletan

A.T. | ARETXABALETA

XVIII. Etxeko Patxaran Lehiaketa egingo da domekan, hilak 28, Aretxabaletan.

Lehiaketan aurkezteko oinarriak izan beharko dira, besteak beste, aurkeztutako patxaranak norberak egindakoa izatea, edaria kristalezko edo beira gardenezko botilan aurkeztuta egotea eta parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi botila aurkeztu ahal izango ditu lehiaketara. Botilen originaltasuna ere baloratuko du epaimahaiak.

Lehiaketara aurkezten diren botila horiek 2012ko urriaren 28an aurkeztuko dira 11:00etatik 14:00etara herriko plazan egokituko den tokian eta sariak ere egongo dira irabazleendako. Lehenengo hirurentzat garaikurra eta diru-saria egongo dira, hain zuzen.

## 'Gure bide galduak' antzezlanaren eguaztenean Arkupen ikusgai

A.T. | ARETXABALETA

Eguaztenean, hilak 24, Dejabu taldeak *Gure bide galduak* izeneko antzezlanaren eskainiko du Arkupen Zaratza aretoan. 19:00ean izango da emanaldia eta sarrerak 4 euro balioko ditu.

### Utopia kontakizuna

Bost aktore eta zuzeneko gitar doinuekin sortutako antzezlanaren *Gure bide galduak*. Miren Alkala, Iñigo Aranbarri, Maria Alonso, Urko Redondo eta Aina Gurrutxaga dira aktoreak; eta Arantxa Vicedo da ikuski-

zuzenaren parte hartzen duen musikaria.

Ordu eta erdian, konpainian ohikoa den moduan, errealismo magikoz zipriztindutako ikuskizuna da *Gure bide galduak*, Euskal Herriko historia hurbila abiapuntu hartuta: Franco hil ondorengo lehen urteak, mundua benetan alda zitekeela pentsatzen zen garaia, hain zuzen.

Utopia, amets eta desenkatuari buruzko kontakizuna da *Gure bide galduak*. Memoriatik berreskuraturako piezekin sortutako gaurko ipuina.

## Teleskoren azterketaren emaitzak martitzenean hizpide


Eskoriatzako galdeketa bat egin dute Teleskoren inguruko herritarren iritzia jasotzeko eta azterketa horretan jasotako ondorioen aurkezpena egingo dute bihar, martitzena, 19:00etan Ibarraundi museoa. Legealdi honetan Teleskoren inguruko hausnarketa egiteko beharra ikusi zuten, izan ere, uste dute erakundea bera eta eskaintzen dituen zerbitzuen inguruan erabakiak hartu behar direla. Bihar aurkeztuko dituzte ondorioak, beraz, eta bertara gonbidatu nahi dituzte herritar guztiak.

## Ez ohiko osoko bilkura egingo da gaur, astelehena, Aretxabaletako pleno aretoan

Hauexek izango dira eguneko aztergaiak: 2013ko ordenantza fiskalak; kredituak aldatzeko espedienteak, kreditu intsuldaketa; kredituak aldatzeko espedienteak, kreditu habilitazioak; taxista elkartearen eskaerak; Ilargiko lokalaren salmenta eta eraikin publikoen garbiketaren kontratuaren esleipena. Gai horiek guztiak jorratuko dituzte 18:00etatik aurrera egingo dute ez ohiko osoko bilkuran.

## "Dantza gogoz" dantza tailerra aurkezteko saio irekia egingo da egubakoitzean Arkupen

Aretxabaletako Jaiki elkarteak egubakoitzean 19:00etatik aurrera doako ikuskizuna eskainiko du Arkupen kultura etxean. *Dantza gogoz* izeneko tailerra aurkeztu nahi dute horrela, eta horretarako, dantza saio irekia egingo dute. Elkartetik herritar guztiei gonbidapena bidali nahi izan diete *Dantza gogoz* bertatik bertara ezagutu ahal izateko eta Arkupen dantza saio irekira joateko animatu nahi dituzte herritarrek.



A.T.

## Atez atekoaren kontra, sinadurak

Eskoriatza Garbia, atez atekoaren aurka dagoen herri plataformak, sinadurak batu zituen egun iluntzean Azkoaga Enea hotelaren parean. Egubakoitzean, berriz, Intxaurtuetan izan ziren.



A.T.

## Umeak oso pozik egon ziren ipuin kontaketa

Lau urtetik gorako umei zuzendutako ipuin kontaketa egin zuten egun arratsaldean Udala liburutegian. Pello Añorga kontalaria izan zen ipuinak kontatzen eta haur eta gaztetxo ugari izan ziren Añorgak kontatutakoak adi-adi entzuten. Umeek zentzumen guztiak jarri zituzten ipuinen munduan murgiltzeko eta istorio politetan barrena ibili ziren Eskoriatzako gaztetxoak hilero egiten duten bezala.



Herritar batek San Roke osteko oinezkoendako bidea txukuntzeko eskaera egin du. | LZ

## ELGETA

## Diru sarreren jaitsiera garrantzitsuak baldintzatuko du 2013ko udal aurrekontua

Irizpideak izango dira "mailegu berririk ez eskatzea, Udalaren gastua egongo diren diru-sarreretara egokitzea eta zerga politika jasangarria bultzatzea"

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Zortzi lagun elkartu ziren eguaztenez 2013ko aurrekontuaren inguruan Udalak antolatutako batzar irekian; bost zinegotziak ziren eta bi udal langileak. Herritar gutxi bertaratu arren, Oxel Erostarbe alkateak Udalaren egoeraren gaineko informazio ugari eman zuen.

### Zorra 1.107.069 euro

"Elgetako Udalak 1.107.069 euroko zorra du", esan zuen Erostarbek. Hala, zor bizia %62,98 da. "Ez da zor txikia", esan zuen alkateak, "eta 2013an Udalak 207.091 euro amortizatu beharko ditu bai mailegutuan bai Foru Funtseko itzulketarako egiteko". Aurrekontuaren gastuetan, beraz, diru kopuru hori aurreikusitako beharko da. "Irizpidea izango da mailegu gehiago ez eskatzea, gastua egon-

go diren diru-sarreretara egokitzea eta zerga politika jasangarria bultzatzea", azaldu zuen. Oinarriko zerbitzuei eta herriko elkarten dirulaguntzei dagokionez, irizpidea da mantentzea.

### Ordenantza fiskalak %3 gora

Eraikuntzarekin eta jarduera ekonomikoarekin lotutako zergetatik Udalak aurten iaz baino diru gutxiago jasotzea aurreikusten du. Ordenantza fiskalei dagokionez, berriz, hasierako planteamendua da KPI igotzea; %3, hain zuzen ere. Erabakitzeke dago, baina zaborren tasa gehiago igo daiteke: %3 eta %6,4 artean. Eta zergen kapitulu horretan bi berrikuntza aipatu zituen alkateak: inor errolatuta ez dagoen etxebizitzetako %150eko erretegia aplikatzea eta IAE zerga urtean milioi bat eurotik gora fakturatzen

duen enpresei ere aplikatzea. Elgetan hamar bat enpresa dira, eta neurriak 10.000 bat euro gehiago biltzea ekarriko luke.

### Inbertsioetarako 60.000 euro

Erostarbek 2013rako 1.500.000 euroko aurrekontua aurreikusten du —iaz baino 400.000 euro gutxiago—, eta gastua kontrolatzeko gerrikoa gastu arruntean eta inbertsioetan estutzea proposatzen du. Hala, inbertsioetarako 60.000 euro geratuko liriteke. Zazpi egitasmo aipatu zituen. Diruz lagundutakoak hiru dira: ibilbide tematikoaren proiektua, herri osorako wi-fi sarea ipintzea eta Mendikute baserrirako bidea konpontzea. Eskaerak, berriz, eskolatik eta haurreskolatik jaso dituzte. San Roke osteko bidea konpontzeko eskaera ere egin du herritar batek.

## ARAMAIO

## Emakumea herriko arlo ezberdinetan mugitzen da, aramaioarren arabera

Berdintasun Planerako diagnostia egiteko bilera egin zuten; txostena urtarrean argitaratuko dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Berdintasun Plana egiteko diagnostia egiten dabil Udala. Horretarako, Daiteke gizarte aholkularitza enpresarekin ari dira lanean, Aramaion Berdintasun Plan eraginkorra egiteko abiapuntua zehazteko. Hasteko, herriko errealitatearen argazkia atera gura dute, eta Udalak eta Daitekek berebiziko garrantzia eman diote herritarren iritzia-ri.

Kultur talde eta eragileekin egin zuten bilera, eta joan den egunean herritarren txanda izan zen. Deialdiak ez zuten arrakastarik izan; Edurne Urribarren-Iturrieta zinegotziaren arabera, herritarrak ez dira enteratu. Hala ere, Daiteke

enpresakoak ohituta daude, halako bileretara oso jende gutxi agertzen delako: "Esan zigutenez, aurrekoan beste herri baten izan ziren eta herritar bakarra agertu zen deialdira", adierazi digu zinegotziak.

### Oraindik asko dago egiteko

Bileraren ondorio nagusia izan zen emakumeak presentzia handia duela Aramaion. Herriko arlo ezberdinetan mugitzen da, eta, era berean, gizona hasi da pixkanaka orain arte emakumearenak izan diren lanak egiten. Hala ere, oraindik ere egiteko asko dagoela ondorioztatu zuten. Emaizta zehatzak emango dituen txostena urtarrean argitaratuko dute.



Joan den egunean herritarrekin egin zuten bilera. | ARAMAIOKO UDALA

## LEINTZ GATZAGA

## Bikote 'umezurtz' bat bakarrik etorri da herrira

Aquarius-ek bultzatutako kanpaina abenduaren 25a arte luzatzea erabaki dute

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Aquarius enpresak "hiritar umezurtzendako" abian jarritako kanpaina oraindik ez da bukatu. Oinarrietan iraila artean izango zela adierazi arren abenduaren 25a arte luzatzea erabaki du Aquarius-ek eta gatzagarrek onartu. Debagoieneko herririk txikienera etorri gura dutenen eskaera handia izan da, 1.291 lagunena, hain zuzen. Horietatik onartu dituztenak, baina, gutxiago izan dira, 435, eta zerrenda osoa kaleratu du Udalak. Gatzagak baino "umezurtz" onartu gehiago dituen bi herri bakarrik daude 147ren artean: Deva (Asturias) eta Ruega (Kantabria).

### Mallorcako bikotea

Estatu osoko 435 lagunek etorri gura dutela Gatzagara adiera-

zi arren, bikote bat bakarrik agertu dela orain arte jakinarazi du Aitziber Gorosabel turismo bulegoko eta gatz museoko arduradunak. Mallorcatik etorritako bikotea izan zen, eta Gaztainuzketa, gatz museoa eta Jakion bisitatu zituen, beste batzuen artean. "Askok gustatu zitzaizkien paraje guztiak, eta pozik itzuli zirela esango nuke", esan du. Beste hainbatek argibideak eskatuz idatzi dutela jakinarazi du Gorosabelek, baina horiek oraindik ez dira agertu.

Turismo bulegoko arduradunaren esanetan herria eza-gutuzera eman eta bertako zerbitzuak bultzatzeko kanpaina polita da Aquarius-ek egindakoa. Hori horrela, abenduaren 25a bitartean beste bisitari batzuk iritsiko direlakoan dago.

## ANTZUOLA

## 28. Antzuola-Aiherra senidetzea

Ohiturari eutsiz, Aiherra-Antzuola senidetze egun polita ospatu zuten. Antzuolatik 32 lagun joan ziren. 700 urte bete dituen Bastida bisitatu eta elkarrekin bazkaldu zuten antzuolarrek eta aihertarrek. Bazkalosteko musika eta dantzaldiak giro aparta jarri zuela esan digute. Datorren urtean Antzuolan ospatuko dute.



MADDI ELORTZA

**"Arte-an" antzerkirako sarreren irabazlea**

**Jesus Mari Elgoro Iturriaga  
(Arrasate)**

**DEBAGOIENA EZAGUTZEN**



**1391ean Bergarako hiriari erantsi bazitzaion, ze urtetan eten zuen Antzuolak batasun hori independentzia lortuz: 1429, 1529 ala 1629an?**

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorberezibar



**JAKION**  
Jakionek emandako **Produktu sorta\***  
\* Jakioneko produktuz osatutako otarra.

**Parte hartzeko**

Telefonoz: 943 25 05 05  
SMS bidez: Bidali **KLUBA ERANTZUNA** [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.  
E-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
Whatsapp bidez: 688 69 00 08

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

**Atera etekina**

goienakluba 2012

**%10 eko deskontua**



- **%10eko deskontua** denboraldiko haur-arropan. (Beharpenetan eta eskaintza berezietan izan ezlik).
- **%5eko deskontu gehigarria** helduentzako atseden arloan.
- **%5eko deskontua** haur-kotxe eta automobileko segurtasun - aukietan.
- **%5eko deskontua** sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aukietarako denboraldiko ehungaietan.

**LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL**

**AQUARIUM**  
Donostiako aquarium-a  
Donostia, 943 44 00 99

**ARGIA**  
euskarazko aldizkari orokorra  
Lasarte-Oria  
943 37 15 45 - 943 37 34 03

**AVIA MECA**  
gasolindegia  
Arrasate, 943 79 13 39

**BEGIENDO**  
optika  
Aretxabaleta, 943 79 98 21

**EUREKA!**  
zientzia museoa  
Donostia, 943 01 24 78

**ESKO SPORT**  
kirol denda  
Eskoriatza, 943 71 52 96

**GAHIR**  
fisioterapia-osteopatia  
Eskoriatza, 943 71 43 41

**GAES**  
entzumen zentroa  
Arrasate, 943 71 27 93  
Bergara, 943 76 94 55

**GUZTIZ EDER**  
edertze zentroa  
Oñati, 943 78 01 46.

**IKER SUKALDEAK**  
IKER sukaldeak  
Arrasate, 943 79 00 43  
Oñati, 943 53 35 48

**IZENADUBA BASOA**  
Euskal Herriko parke mitologikoa  
Mungia, 94 674 00 61

**JAIXAK**  
denda  
Bergara, 943 76 31 45

**LILURA**  
edertze zentroa  
Bergara, 943 76 31 71

**MULTIOPTICAS**  
lehen zerbiztu optikoetan  
optika  
Arrasate, 943 79 29 95  
Bergara, 943 76 15 75

**NAREN**  
fisioterapia zentroa  
Aretxabaleta, 943 08 21 89

**RENAULT AUTOBERRI**  
kontzesionarioa  
Arrasate, 943 71 24 72



**TXURI URDIN**  
izotz jauregia  
Donostia, 943 46 44 00

**URRIKO SARRERAK**

**Parte hartzeko**

Telefonoz: 943 25 05 05  
E-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
WhatsApp bidez: 688 69 00 08

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

**FILMA**

**BYPASS** filma ikusteko gonbidapenak  
Deitu 943 25 05 05 telefonora



**KONTZERTUA**

Urriaren 26an. "Gatillazo" taldearen kontzertua Oñatiko Gaztelekuan.  
Bidali **KLUBA KONTZERTUA** [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



**HAUR ANTZERKIA**

Urriaren 28an. "Azken portua" haur antzerkia Kulturaten.  
Bidali **KLUBA ANTZERKIA** [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)



# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

## Gol aukera garbiak alferrik galduta ere Touringek min egin zuen Mojategin

Sailkapenaren erditik gora salto egiteko aukera galdu zuten zuri-moreek, azken asteotako sentsazioak oso onak zirenean

EMAITZA

MONDRA  
**0-1**  
TOURING

### FITXA TEKNIKOAK

**Mondra:** Zabaleta, Kevin, Del Palacio, Garmendia, Zabaleta, Dueñas, Pavon, Lopez, Aizpurua, Urizarren, Andres. Ordezkoak: Ruiz de Azua, Erik, Calzon, Ormaetxea, Azkarate, Gonzalez, Markel.

**Touring:** Salinas, Arrillaga, Altuna, Fernandez, Rubio, Caballero, Guemes, Marin, Benito, Nagore, Montes.

**Bestelakoak:** Erretereriako taldeak normalean baino zale gehiago ekarri zituen Mojategira.

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Mondrak bere burua aurrealdean ikusteko aukera erabakigarria duenean jasotzen ditu kolpe handienak. Eta hau kontu zaharra da, ez da oraingoa. Azken asteotan etxetik kanpora jarraian bi garaipen lortu ostean -Zarautzen oso ondo jardun zuten- etxeko zaleak gogoz zeuden Iturrinoren mutilak Mojategin zer egiteko gauza ziren ikusteko. Sailkapenari begiratuz gero, gainera, bazirudien parean egon zitezkeen bi talderen arteko lehia izan behar zela, eta partiduko lehenengo orduerdiak hori erakutsi zuen.

Futboleko jokatzeko eguraldiak ere lagundu egin zuen: euri langarra, freskotxo, eta futbol zelaia bizkor jokatzeko moduan.



Andoni Aizpuru, Touringeko kontrarioaz. | JOSETXO ARANTZABAL

Horretarako, baina, gaitasuna behar da, eta zapatuan Touring izan zen horretan hobea, azkar jokatzeko, alegia: 2-3 pase eta Mondraren area inguruan ziren Alberto Nagore eta Pablo Montes.

Hasieran, arrisku jokaldirik egin barik, elkarri neurria hartzen

ibili ziren bi taldeak. Mondra ondo zegoen berdegunean, eta igartzen zen Gorka Dueñasen ekarpena. Kategoria handiagotatik ibilita, azken urteotan futbol utzita izan du Dueñasek, eta denboraldi hasieratik dabil zuri-moreekin entrenatzen; etxeko

debuta izan zuen. Jokoa antolatzekeo ardura zuen eta igartzen zaio non jokatu duen, baina baloia lehenago askatzeko eskaera ere jaso zuen harmailetatik.

Ondo kokatuta egon arren, inoiz, behar ez diren arriskuak hartu zituzten Mondrako jokalariek -atzealdean batez ere- eta hanka-sartze nabarmenen bat edo beste egon bazen ere, Touringekoek ez zituzten opariok aprobetxatu. 40. minutua heldu zen arte. Hor, baina, ez dago ezer aurrepizterik; Touringeko Iñigo Fernandezek ezkerretik neurria egindako pasea bultzatu baino ez zuten egin behar izan 0-1eko egiteko. Eta handik minutu batera kanpotarrek ez zuten jakin partidua errematatzen: Baloi loratuz, Mondrako atezain Oier gaindituta zegoenean bigarren aurrelariak baloia saretara bultzatzea erabaki zuen -marra gainean- eta epaileak jokoz kanpo adierazi zuen.

### Azken estutualdian ere ez

Bigarren zatian Touringek beste pare bat aukera on izan zituen. Hala, 61. minutuan Montese sekulako gola egin zuen, baina epaileak balio gabe utzi zuen, jokoz kanpo adierazita -oso eztabaidagarria. Ostera, 75.enean zutoinera bota zuten baloia.

Azken txanpan, aldaketak eginda, eta jokalariek erasora joateko animatuta, Mondra ezustea emateko moduan egon zen. Kevinek barneraketa ederra egin ostean Dueñasek kanpora bota zuen baloia. Eta, Aitor Azkaratek bi jokaldi oso antzerako egin zituen ezkerretik, biak onak, baina aldaratzeetan ez Txonan-ek ez Aizpuruak ez zuten asmatu.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Aloña Mendik saria, Bergara esku hutsik, kanpoan

X.U. | ARRASATE

Asteburu grisa koloreztatzeko gauza izan ziren Aloña Mendiko (11) mutilak zapatu arratsaldean Beti Gazteren zelaian (0-1). Oñatikoek jarraian eskuratzen duten hirugarren garai-pena izan zen: "Txukun ibili ginen, baina ez genuen partidua errematatzen jakin, eta Beti Gazte hiru aukera izan zituen partidua berdintzeko", adierazi digu Andoni Azkaratek. Kontuak kontu, urrian atzean egotetik aurrealdeko boskotean egotera pasa dira txantxikuarrak.

### Bergarak, ostera, galdu

Jokatu dituen sei partiduetatik lau irabazita Oartzun (12) da, oraingoz, lider dagoen Hernani (18) estutzeko intensio handiena erakusten dabilen taldea. Bergarak (7) joan den astean etxean jasandako porrotari buelta emateko asmoaz egin zuen zapatuan bidaia, baina Oartzungoek aukera gutxi eman zituzten. Oartzungoek gola egiteko duten erraztasuna baieztatu zuten, hiru eginda. Gol gehien egin dituen taldeetakoa da.

ERREGIONAL PREFERENTEA

## Antzuolak lider jarraitzen du, nahiz eta asteburuan berdindu

Antzuolak oso ondo hasi du denboraldia, emaitzei dago kienez bai, behintzat, eta asteburuan Beasainen bisitarren aurrean berdindu egin duten arren (1-1) lider jarraitzen dute, 11 puntu batuta. Getaria eta Amaikak bat dituzte atzetik puntu batera; Getariak aurrerapausoa egin du, baina Amaikak Batek errepaso galanta jaso du Azpeitian (5-1).

OHOREZKO ERREGIONALA

## Lehenengo zatiko kolpea 'Piru'-k zuzendu zuen, area ertzeko jaurtiketaz

X.U. | ARRASATE

Aretxabaletak partidua on egin zuen Tolosaren kontra, sentsazio onarekin erretiratu ziren Albistegiren mutilak baina seguruenez, larregi barkatu zutela pentsatu duenik ere izango da.

Lehenengo zati ona egin zuen Aretxabaletak; Tolosa baino gehiago izan zen, eta 2-3 aukera oso garbi izan zituzten aurreratzeko.

Sorpresa, baina, Tolosak eman zuen, 45. minutuan falta batean gola eginez (0-1). UDAkoak gorputz txarraz erretiratu ziren aldage-lara, baina partiduari buelta emateko esperantzaz. Horretan saiatu ziren bigarren zatian, Piru-k area ertzetik gol ederra egin zuen arte (1-1). Ordurako Tolosa 10ekin zegoen, UDAk estutzen jarraitu zuen, baina alferrik.



UDAkoek gola egin zutenean hika-mika izan zuten atezainaz. | J.A.

LEHEN ERREGIONALA

## Aretxabaleta UDA B lider, Urkiri Ibarren 2-1 irabazi ostean

Etxean jokatu duen ordezkarri bakarra Aretxabaleta UDA B taldea izan da. Eta, Urki mendean hartuta aretxabaletarrek lider jarraitzen dute lautik lau irabazita. Kanpoan Bergara Bk ere 3 puntuak batu zituen, Ikasberriri irabazita (1-2). Azkenik, Eibarren jokatu zuen Arizmendik galdu egin zuen.



Egubakoitzeko Kulturateko partidari, Franco pentsakor. | XABI URTZELAI

## XAKEA

# Alejandro Franco berriz ere Arrasate Hiriko jaun eta jabe

## Francok bosgarren txapela jantzi zuen egubakoitzean

X.U./J.D. | ARRASATE

"Oso txapelketa ederra izan da aurtengoa, oso gustura geratu gara". Ez dira txapelketako irabazle Alejandro Francok esandakoak, eta bai hirugarren sailkatu zen Josu Tornayren adieraz-

penak, hain zuzen, azken jardunaldian madrildarra estutzeko aukerak zituen ordezkeri bakarretakoa, David Astasio arabarrarekin batera. Baina, azken jardunaldi horretan, halaber, Tornayk nahi baino abantaila

handiagoa eman zion Francori, jardunaldia aurreratu egin behar izan zuelako -arrazoia, egubakoitzean ezkondu egin behar zela Arrasateko xakelaria.

Tornayk galdu egin zuen Astasio gasteiztarraren kontra, eta

porrot horren jakitun, Franco lasai asko aurkeztu zen Kulturaten jokatu zuten azken jardunaldi *erabakigarria*, jakinda, ez zuela zentzurik Etxagibel gaztearen kontra behar baino gehiago arriskatzeko: "Normalena zen Francok partida ondo irabaztea, baina kontrarioaren emaitza ezagutzen ez duzunean beti dago hanka-sartzeren bat egiteko aukera handiagoa, eta alde horretatik, abantaila eman nion", zioen Tornayk azken jardunaldiari buruz.

## Txapeldun ezaguna

Aurten ere Alejandro Franco madrildarra izan da Arrasate Hiria Naziarteko Xake txapelketaren irabazlea. Egubakoitzean, bosgarren aldiz jantzi zuen txapela xake jokalaria profesionalak. Arrasate Hiria hamabigarren edizio honetan, David Astasio promesa arabarrari gailendu zitzaion Franco egubakoitzeko hitzorduan, Arrasateko kultur ateko klaustroetan jokatu azken jardunaldian.

Madrildarrak, Arrasateko Etxagibel-en aurka zuen partida irabazi zuen eta horri esker 5,5 punturekin amaitu du txapelketa; erabateko autoritateaz. Astasio gasteiztarrak, oster, Josu Tornay aurreratu zuen sailkapenean, eta txapelketan bigarren postuan amaitu du 4,5 punturekin. Hala, azken partida galduta Tornay hirugarrena izan da, 4 puntu batuta -txapelketako gipuzkoar eta arrasatear onena izan da. Laugarren postua Alcaide eta

Miguel aretxabaletaren artean zegoen, eta bien arteko lehia berdinketan amaitu zenez, Alcaidek lortu zuen laugarren postua.

## Gazteen lan polita

Aipatzekoa da, Etxagibel jokalaria gazteak bosgarren postua eskuratu zuela, eta Liher Urrutia eta Eneko Carrasacal gaztetxoaren lehen federatu txapelketa izan dela eta txapelketaren maila kontutan hartuta, lan polita egin zuten bakoitzak 2 puntu lortuz.

## 40. urteurrena

San Andres Xake Taldearen 40. urteurrena da aurten, eta txapelketa azken urteotan indartu egin da. Franco eta Astasio bezalako jokalariek bertan jokatzeko on egiten diote txapelketari; besteak beste, etxekoendako irakasle apartak direlako.

## SAILKAPENA

1. Alejandro Franco	5 ½ pt
2. David Astasio	4 ½ pt
3. Josu Tornay	4 pt
4. Aitor Alcaide	4 pt
5. Asier Etxagibel	3 ½ pt
6. Egoitz Irure	3 ½ pt
7. J.M. Hernando	3 ½ pt

## Antxintxika krosa bueltan datorren azaroaren 3an

JD | BERGARA

Antxintxika triatloi taldeak, Soralue eta Bergara arteko krosaren zortzigarren edizioa antolatuko du datorren azaroaren 3rako. Aurtengoa ere Olatz Rementeria memoria ospatuko dute Antxintxika triatloiko kideek.

Korrikalariak, Soralue eta Bergara herrien arteko 10 kilometroak korrituko dituzte bi asteburu barru. Aurten ere hiru modalitate ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute kirolariak: patinekin, krosetan eta gurgildun aulkiekin.

Urtero ohitura den bezala, parte hartzaile gehiago espero dituzte oraingo honetan. Aurreko urtean 800 korrikalarik hartu zuten parte eta aurten zerbaki hori gainditzea espero dute antolatzaileek.

Lasterketa 17:00etan hasiko dute, baina patinatzaileak eta gurgildun aulkiko atletak apur bat lehenago irtengo dira. Egunean bertan ezingo da izenik eman, baina oraindik garaiz zaudete, *kirolproba.com* webgunean.

## Nuptse mendi gailurretik 161 metrora gelditu dira Iñurrategi eta konpainia

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Iñurrategi, Zabaltza eta Vallejok ezin izan dute Nuptse mendiaren gailurrera heldu. Naturgas BBK Nuptse proiektuko kideek, Himalaiako mendia, garraiatzaile barik, oxigeno barik eta soka finko barik igotzea nahi zuten. Baina azkenean Nuptsek dituen 7.861 metroatik, 7.700 metroan gelditu behar izan dute euren segurtasunagatik.

Eguena zen gailur egiteko eguna, hala ere, ez zen posible izan batez ere eguraldi arazoak zirela medio. Haizea izan zen bidearen azken txanpako etsai nagusia, egunerako 100 kilometro orduko haize boladak jasa zituztelako eta baldintza horiek,

oinarrizko kanpalekura buelta egin behar izan zuten etxera osorik etorri ahal izateko.


## Lortu dutenaz harro

Nahiz eta hasieran pentsaturiko helburua lortu ez duten, egindakoak harro dago hirukotea. Vallejok esan duen bezala, 50 urtetan Nuptse mendia igotzeko bide hau egin gabe egon da, beraz zailtasun handia duela argi dago.

Basque Team-eko hirukoteak gailurra egin ez arren, bizitza osoan ahaztuko ez duten esperientzia izan dela argitu du Vallejok, hasieran pentsa baino erronka askoz ere zailagoa izan delako.



Basque Team taldea Nuptseko gailurrera bidean. | BASQUE TEAM



Zapatuan, partidu bateko unea. | ANDER MONEDERO

## Arrasateko AKE squash taldeak antolatutako txapelketa, borobila

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Asteburu honetan, Musakolako kiroldegian, Arrasateko AKE squash taldeak, Euskal ligaren barne dagoen txapelketa antolatu du. Egubakoitzean arratsaldeko 18:00tan hasi zen txapelketa, eta finala zapatuko 19:00tan izan zen. Bertan Euskadi osoko 27 jokalarik hartu zuten parte.

Besteak beste, Sestao, Eibar edota Gasteizetik etorri ziren jokalariek eta 55 partida ikusleko aukera egon zen asteburu osoan zehar. Txapelketaren irabazlea, David Marin izan zen, Iruñako Oberena squash taldeko kidea hain zuzen ere.

Bigarren postuan David Marin sekaotarrak lortu zuen eta hirugarrena oster, Alberto Ferreiro eibartarrak lortu zuen.

**Aldarrikapenerako eguna**  
Zapatuan mundu osoan, squash kirolaren eguna izan zen, eta squash zaleen aldarrikapen nagusia, 2020ko joko olinpiarretan kirol hau kirol olinpiar bezala kontutan hartzea izan zen. Eta arrasatekoek euren ekarpen txikia egin zuten.

Iñaki Uribeetxeberriaren esanetan, txapelketa borobila izan zen, bai giro bai parte hartzaile kopuruagatik. Datorren urterako zain daude dagoeneko AKE squash taldeko kideak.



Gizonezkoen podiumeko erretratua. | XABIER URTZELAI



Emakumezko azkarrenak. | X.U.



Lasterketaren hasiera, Ferixaleku parean, 20:00etan. 80 lagun batu ziren irteera puntuan | JOSETXO ARANTZABAL

## ATLETISMOA

# Urretxuko atletendako Tafyd Gaueko Kroseko txapelak

- Unai Hernandez eta Ainhoa Sanz izan ziren azkarrenak, biak Urretxukoak
- Euria egin arren iazko atleta kopuru antzerakoa batu zen irteeran

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Egubakoitzeko Gaueko Tafyd Krosean euriak ez zituen atletak kikildu, eta 80 lagun batu zituen irteera puntuan, iazko kopuru antzerakoa -iaz 88 izan ziren. Hala, zoru labainkorrean Urretxuko korrikalariak ezarri zuten euren legea, gizonezkoetan Unai Hernandez izan zelako azkarrena (17.06), eta emakumezkoetan iaz moduan, kontrariorik izan ez

zuen Ainhoa Sanz (18.49), hain zuzen, Tafyd ikasketak egiten dabilen atleta. Sanz-ek ez zuen estatusunik izan lasterketa irabazteko, sei minutuko tartea atera zion-eta bigarrenari.

**Giro ona, eta ikusle artean**

Euri txikia eta temperatura epe-la, horixe aurkitu zuten korrikalariak Ferixalekuan, lasterketa aurretik. Eta Arrasateko erdial-

deko kaleak jendez beteta, atletak animatzeko gogoz. Egubakoitz iluntzean korrika egitea ez da ohikoena, baina hor dago Tafyd Krosearen xarma: "Lasterketa hau antolatzea pentsatzen hasi ginean lehenengo asmoa zen Ikastolaren egunean egitea, baina ez genekien zapatu goizean egin, arratsaldean... Azkenean egubakoitz ilunkeraren aldeko erabakia hartu genuen; beste lasterkete-

kiko erabat ezberdina da, Arrasaten bizitasun apur bat jartzea ere bazen asmoa, eta lortu duguna da taberna giroan dabilzanak kalera ateratzea. Hainbat atletekin izan naiz, eta esan digute oso pozik geratu direla, erritmo biziko lasterketa dela, baina oso gustura etortzen direla".

Egiari zor, elkarrizketa egin genien atletak behin eta berriro errepikatu zuten Seber Altuben,

Iturriotzen, Erdiko Kalen edo Maalako Errabalan batu ziren herritarren -txikiteroen- animoak izugarri eskertu dituztela.

**Kontuz, zorua labainkor**

Zorua labainkor egoteak apur bat zaildu zuen proba, batez ere Arrasateko kaleetan kurba itxi asko dagoelako. Hain zuzen, Portaloi inguruan lasterketan agintzen zebilen Martin Berrizbeitiak irrist egin eta erritmoa galdu zuen, eta tarte hori aprobetxatu zuen Unai Hernandezek Arrasatekoa harra-patzeko. Badirudi irrist egiteak *hoztu* egin zuela Arrasatekoa, eta Urretxukoak hor lortu zuen etekina, lehenengo helmugaratuz. Hala, Berrizbeitia bigarren izan zen, eta hirugarren postuagatik ez zen lehiarik izan, Donnay eta Romero eskutik helduta helmugaratu zirelako.

Azken ediziotan Oñatiko Sergio Gartzia eta Durangoko David Gartzia izan dira protagonista; egubakoitzean ez ziren lasterketan egon, baina izan zen hutsune hori bete zuenik.

**ENDIKA DONNAY**  
ARRASATE

"Lasterketa gogorra izan da, ikusita ze erritmo jarri dugun beldurtu ere egin naiz, baina gero Endika Romerorekin egin dut lasterketa osoa. Batera iristeko asmoa genuen".

**AINARA BORDES**  
ARRASATE

"Lehenengo aldia zen halako lasterketa batean parte hartzen nuena, amaitzea zen helburua, eta oso gustura geratu naiz. Beldurra kenduta, Santamasetakora ere animatuko naiz".

**MARKEL ELORZA**  
ARRASATE

"Ikusita ze giro zegoen beldur apur batekin joan gara tarte batzuetan, labainkor zegoelako. Gainera, kurba itxiak daude, eta ez erortzea zen helburua. Jende asko animatu da, eta oso giro ona egon da".

**ANGEL DELGADO**  
ARRASATE

"Ondo ibili gara, dagoeneko hirugarren aldia zen niretako. Lasterketa oso azkarra da, eta gaur tarte batzuetan arriskutsu zegoen; herrian halakoak antolatuta eta gu etortzen ez bagara...".

**MARKEL SANMIGUEL**  
ARRASATE

"Oso giro ona egon da, eta gustura ibili naiz. Taberna inguruetan jende asko ibiltzen da, eta euren animoak asko eskertzen dira. Besteak beste, horrek egiten du berezi lasterketa hau".





Alejandro Altuna, korrika. | J.A.



Endika Donnay eta Gaizka Romero batera helmuratzen. | J.A.



Erdiko Plazan korrikalariak, lehenengo itzulian. | J.A.



Bi emakumezko Portaloian. | J.A.



DAVID BEREZIBAR  
ANTOLATZAILEA

## "Eguraldiaren beldur ginen, baina aurrera egiteko konbentzitura geunden"

Arizmendi ikastolako Lanbide heziketako irakaslea da David Berezibar, eta egubakoitzean, lasterketa amaitutakoan balorazio "oso positiboa" egin zuen aretxabaletarrak. Euriaren beldur izan zirela onartu zigun, baina korrikalariak bikain erantzun zutela.

### Zer moduz joan da dena?

Oso ondo. Iazko kopuru antzerakoa izan dugu parte-hartzeari dagokionez, eta oso gustura geratu gara. Sekulako lana dago halako lasterketa baten atzean, eta eguraldi txarra zela-eta beldur ginen. Baina, neurri berean konbentzitura geunden jendea etorriko zela, eta hala izan da.

### Laguntza handia izan duzuela aipatu didazu.

Bai, eta eskerrak eman nahi diet laguntzen izan diren irakasleei, herritarrei, eta baita lasterketa babestu duten komertzioei ere. Garai txar hauetan laguntza handia jaso dugu, opariak eman dizkigute eta ekonomikoki ere babesa jaso dugu; horri esker antolatu ahal dira halako ekimenak. Horrekin batera, eskertzekoa ikusleen jarrera; dagoeneko badakite zer den kros hau, ez diete korrikalari traba egiten, eta animatu egiten dituzte, gainera.



Unai Hernandez, helmugaratu zen unean. | J.A.

### UNAI HERNANDEZ | LEHEN GIZONEZKOA

## "Duela bi urte seigarren izan nintzen, iaz hirugarren; aurten lortu dut irabaztea"

### Zelan joan da lasterketa? Azkar irten zarete.

Hasieran sufritu egin dut. Bizpahiru korrikalari jarri dira aurrean, eta oso erritmo bizia jarri dute. Hasieran kosta egin zait jarraitzea, baina ondoren gustura egin dut aurrera.

### Ezagutzen zenuen lasterketa?

Bai. Duela bi urte seigarren izan nintzen, iaz hirugarren egin nuen, eta aurten lasterketa irabazi ahal



X.URTZELAI

izan dut. **Eguraldiak ez du lagundu, baina zuek Urretxutik animatu zarete.**

Bai. Lasterketa hau izugarri gustatzen zait, oso giro ona egoten da kaleetan, eta merezi du etortzeak. Datorren urtean ere hemen

izango gara, seguru. **Euriagatik tarte batzuk labainkor zeuden.**

Bai, zatiren baten kontuz ibili behar zen, irrist ez egiteko.

### AINHOA SANZ | LEHEN EMAKUMEZKOA

## "Tafydeko ikaslea naiz, eta gustura etortzen naiz lasterketa honetara"

**Gaur Urretxutik koadrila polita etorri zarete, eta gizonetzko zein emakumezkoan zuek izan zarete azkarrenak. Zer moduz?**

Oso ondo. Azkenean ez du aparteko euririk bota eta giro ona egiten zuen korrika egiteko, tenperatura oso ona egiten zuen. **Azken orduan erabaki duzue etortzea, ala egutegian markatuta zeneukaten?** Iaz ere lasterketan izan ginen



X.URTZELAI

—emakumezko azkarrena izan zen— eta aurten ere bagenuen etortzeko asmoa. Ni Tafydeko ikaslea naiz, eta ez nuen lasterketara kale egin nahi.

### Animu asko jaso dituzue?

Bai, oso giro ona egoten da lasterketan, jende asko egoten da kalean, eta asko animatzen gaituzte.

**Horrenbestez, datorren urtean ere errepikatzen.** Bai, noski.

## SAILKAPENA

### GIZONEZKOA

1. Unai Hernandez 17:06
2. Martin Berrizbeitia 12:02
3. Endika Donnay 17:38
4. Gaizka Romero 17:39
5. Kepa Varela 17:52
6. Aitor Etxeberria 17:52
7. Xabier Luis 17:53
8. Iñaki Gil 18:07
9. Igor Fernandez 18:11
10. Iñaki Ariznaba. 18:14
11. Luis De Esa 18:17
12. Marcos Bernaola 18:18
13. Jose Negreira 18:19
14. J. Carlos Gomez 18:02
15. Iñigo Alzola 18:24
16. Javi Arconada 18:29
17. Juan Mari Poza 18:32

### EMAKUMEZKOA

1. Ainhoa Sanz 18:49
2. Yolanda Ezkurra 24:11
3. Marije Velasco 24:24
4. Edurne Baltzategi 25:52
5. Yolanda Perez de A. 26:36
6. Mireia Flores 26:54
7. Vanesa Dacosta 28:49
8. Leire Sanchez 29:00
9. Ane Miren Arana 31:19
10. Onintza Langaran 33:07
11. Ainara Bordes 33:54



Zapatuan eta domekan erabat lokaztuta amaitu dute ziklistek; argazkian, Monterron jaisten. | XABIER URTZELAI



Gure Ametsa pareko anoa postuan, arazo mekanikoekin. | JOSETXO ARANTZABAL



Eskoriatzako plazara iritsita, merezitako sariekin. | JA.

# Gustura dabilenak lokatza ez du traban

- ▶ laz baino jende askoz gutxiago ibili da bi probatan
- ▶ Lokatza tarteko hainbat arazo mekaniko izan ziren



Monterrongo goiko partean, tarte horrek ez zuen zailtasunik. | XU.

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Aurreikuspenak beteta, Arrasateko eta Eskoriatzako mendi bizikleta martxetan esku hartu duten lagunek lokaztutako ibilbideak aurkitu dituzte asteburuan. Baina ziklistek etxetik irten aurretik ondo zekiten zerekin egin behar zuten topo; beldurrik ez, lokatzean ere badagoelako gozaterik.

Zapatuko Besaideko martxara 75 lagun joan ziren. Udala aldean lehenengo kilometroak egin eta

gero –Enduro bonus trebeenek baino ez dute bizikleta gainean pasa– Anporretako zatia egin eta Monterronen bizikletak garbitu ahal izan zituzten, ibilbideko bigarren zatiari ondo ekiteko. Hala, Bedoñara igo ostean –eta Galarrizako tarte kenduta– azken zatia ikusgarria zuten, Kurtzetxikiko bidexka berria; lehor dagoenean jaitsiera azkarra da, baina zapatuan argi ibili behar izan ziren, min ez hartzeko.

Eskoriatzan ere txarra

Domekan eguraldiak ez zuen tregoarik eman, eta 51 kementsu animatu ziren martxa egitera: "Pena, beste urte batzuetan 200 lagun etorri izan direlako, baina eguraldi honekin normala da", zioten antolatzaileek. Ziklista askok lehenengo zatia baino ez zuten egin, arazo mekaniko dezente izan zituztelako, batez ere frenoekin. Onena, Gurutze Gorrikoek ez zutela batere lanik izan.



Arrasateko martxa, Monterronen bizikletak garbitzen. | XU.

## Arrasateko eta Eskoriatzako mendi bizikleta martxetan batutako iritziak:

**FERNANDO AIAPE**  
ARRASATE

"Eguraldiak dezente baldintzatu du proba. Lokatzara handia zegoen, gurpilak lokatzez betetzen ziren eta tarte batzuetan nahikoa lan bizikleta gainean joateko, kontrola erabat galduta".

**JOSE RAMON PETREÑAS**  
ARRASATE

"Lagun artean etortzeko asmoa genuen, eta eguraldi txarra egin arren ibilbidea egin dugu. Eroriko dezente egon dira, ni ere joan naiz lurrera. Tarte oso politak zeuden, baina lokatzaz jaisteko zaila".

**JUAN CARLOS SEGIN**  
EIBAR

"Lehenengoz etorri naiz Arrasateko martxara. Entzunda nuen oso polita zela, gogorra, eta gauza biak bete dira. Aurrean ibili garenok hobeto, baina atzetik zetozenek lokatza handia izan dute".

**JESUS MARI BELOKI**  
ESKORIATZA

"Eskoriatzako martxako lehenengo zatia baino ez dut egin. Frenoekin arazoekin nabilen, freno gutxi nuen eta ez jarraitzea erabaki dut. Bidea oso labainkor zegoen eta ez erortzeko lasai ibili gara".

**IÑIGO BITERI**  
ESKORIATZA

"Ondo ibili gara, osoa egin dugu. Hezetan handia zegoen, baina hotzik ez dugu pasatu. Lokatzara handia zegoen eta aldagailuaz arazoak izan ditut; iazko jende kopuru erdia-edo etorriko zen".

SASKIBALOIA

# Garaipena, eta bazkide egiteko kanpaina aurkezpena Zubikoan

Oñatiko Natra taldeak Ardoi hartu zuen mendean 67-63 markagailuarekin

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Zapatu arratsaldean Oñatiko Natra saskibaloia taldeak liga hasi aurretik azken lagunarteko partidaz gozatu zuen Zizur-eko Magacalzado Ardoi taldearen aurka. Eneko Blancoren mutilek, 67-63 irabazi zuten EBA mailan jokatu duen taldearen aurka.

Puntu gutxiko partidua izan zen zapatuko, batez ere defentsa lanetan gogor ibili zirelako bi taldeak. Txapelketako erritmoa lortzeko martxa bana falta zitzairen bai Natra-Oñatiri bai Ardoiri ere, denboraldi-aurrea luzea izan bada ere, partidu ofizialen motibazio eta gatza falta zaielako jokalariei eta zaleei. Partidu nahiko trabatu izan zen, erasoan ez zirelako fin ibili, hala ere azken laurdenean, Magacalzados Ardoiren zonakako defentsa nahiko ondo erasotu zuten Oñatikoak 6,25 metroko marratik haratago. Hala ere, datorren asteko hitzordurako hobetzeko gauza asko dituzte euren esanetan.

**Aurkezpen festa**

Atzoko azken partidua, zaleen aurrean taldearen eta bazkide kanpainaren aurkezpena egiteko erabili zuten Natra taldekoek.



Ander Gartzia aurtengo bazkide kanpainako kartelarekin. | MIREIA BIKUNA

Partidua amaitu ondoren, NBA estiloko *show*-a prestatu zuten klubeko talde denak aurkezteko. Kadetetaik hasi eta EBA taldera heldu arte, Zubikoako kantxara salto egin zuten klubeko jokalariei denak. Eta amaitzeko, bazkide

kanpainako spot-a eta kartela aurkeztu zituzten. Ander Gartzia jokalaria du protagonista bezala, eta Natra babeslearekin jolastuz, txokolatea eta saskibaloia uztartu dituzte interneten ikusgai dagoen kanpainan.

SASKIBALOIA

## Emaizta onak lortu dituzte azken jardunaldi honetan eskoriatzako neskek, MU-k eta Natrako probintzialek

Asteburu honetako jardunaldia nahiko ona izan zen gure ibarreko taldeentzako. Mondragon Unibertsitatearen talde probintzialak, Mutrikuko taldeari 76-33 irabazi zion zapatuan, horrela sailkapenean lehenengo postuan daude Txisko entrenatzailearen mutilak. Oñati Natrako probintzial taldeak ere, 85-69 irabazi zuten Viento Sur taldearen aurka, sailkapenean hirugarren postua lortzeko. Bestalde Eskoriatzako taldeak, 40-53 irabazi zuten, Tolosako, Take-Aralar kirolak taldearen aurka. Hiru partida jokatu ostean, sailkapenean bosgarren postuan daude Fernando Rasok gidaturiko Eskoriatzako nesken taldea.

SASKIBALOIA

## Mondragon Unibertsitateko seniorrek kale egin zuten atzo Iruñean Lagunak taldearen aurka

Partidu hasiera eskasa izan zuten Josu Larrategiren mutilek, 7-0 partziala kontrari jaso zuten eta ordutik markagailuan atzetik joan ziren partida osoan zehar. Azken emaitza 86-80 izan zen, eta partidua klabea defentsan egon zen. Azken partiduetan ez bezala, defentsa lanetan ez ziren fin ibili arrasatekoak eta horrek irabaztea galarazi zien. Hala ere, erasoan nahiko ondo jolastu zuten eta partidua amaitzeko 5 minuturen faltan, 5 puntugatik irabazten joan ziren, baina jokaldi pare baten baloia galdu ostean, berri markagailuan atzetik jarri ziren partidua galdu arte.

SASKIBALOIA

## EBA denboraldi berria datorren zapatuan hasiko dute Eneko Blancoren mutilek Zubikoan

Datorren asteburuan hasiko du EBA mailako bigarren denboraldia Eneko Blanco-ren taldeak. Zubikoan jokatu dute lehenengo partidua Donostiako EASO taldearen aurka, arratsaldeko 18:00tan. Denboraldi-aurreko azken astea, EASO Pastas Arruabarrena taldearen aurkako partida lantzeko erabiliko dute, bi hilabete luze entrenatzen ibili ondoren. Lehenengo partida irabaztea espero dute horrela denboraldia dinamika positibo batean hasteko, EBA mailako denboraldia ondo hasteko konfiantza emango diolako aurreko urtean baino indartsuago den Natra Oñati saskibaloia taldeari.

FUTBOLA

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**

**EMAITZAK**

Hondarribia-Zarauz	1-4
Lagun Onak-Berio	2-2
Ostadar-Urola	0-2
Aurrera-Real Union	-
Aretxabaleta-Tolosa	1-1
Trintxerpe-Hernani	0-1
Oiartzun-Bergara	3-1
Beti Gazte-Aloña Mendi	0-1
Mondra-Touring	0-1

**SAILKAPENA**

TALDEA	P	J
1 Hernani	18	6
2 Oiartzun	12	6
3 Tolosa	11	6
4 Berio	11	6
5 Aloña Mendi	11	6
6 Touring	10	6
7 Zarauz	9	6
8 Aretxabaleta	9	6
9 Hondarribia	9	6
10 Real Union	8	5
11 Trintxerpe	7	6
12 Bergara	7	6
13 Mondra	6	6
14 Beti Gazte	5	6
15 Lagun Onak	4	6
16 Urola	4	6
17 Aurrera	4	5
18 Ostadar	4	6

**HURRENGO JARDUNALDIA**

Hondarribia-Lagun Onak
Berio-Ostadar
Urola-Aurrera
Real Union-Aretxabaleta
Tolosa-Trintxerpe
Hernani-Oiartzun
Bergara-Beti Gazte
Aloña Mendi-Mondra
Zarauz-Touring

**EUSKAL LIGA, EMAKUMEAK, 2. MAILA**

Osasuna-Mondra	2-1
----------------	-----

**EUSKAL LIGA, GAZTE GIZONEZKOAK**

Antiguoko-Aretxabaleta	4-0
------------------------	-----

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

Antzuola-Beasain	1-1
------------------	-----

**I. ERREGIONALA**

Aretxabaleta B-Urki	2-1
Eibartarrak B-Arizmendi	4-2
Ikasberri B-Bergara	1-2

**OHOREZKO GAZTEAK**

Bergara-Aurrera	3-2
Lagun Onak-Mondra	2-1
Euskalduna-Aloña Mendi	1-2

**GAZTEEN 1. MAILA**

Bergara B-Eibartarrak	3-3
Eibartarrak B-Aretxabaleta B	1-1
Urki-Arizmendi	9-0

**OHOREZKO KADETEAK**

Mondra-Aloña Mendi	7-1
Aurrera-Bergara	0-3
Eibar-Aretxabaleta	0-2

**GAZTE EMAKUMEAK**

Amaikak Bat-Bergara	1-2
---------------------	-----

**EMAKUMEAK, 1. KADETEAK**

Ikasberri-Bergara	3-1
Aloña Mendi-Lazkao	1-3
Beasain-Arizmendi	6-0

ESKUBALOIA

**SENIOR GIZONEZKOAK**

Hondarribia-Ford Mugarri	-
Basauri-Soraluze BKE	32-34

**2. LURRALDEKO TXAPELKETA**

Arrasate-Urmieta	18-25
------------------	-------

**GAZTE GIZONEZKOAK**

Bergara-Berstein	-
------------------	---

**GIZONEZKO KADETEAK**

Arrasate-Soraluze BKE	28-28
-----------------------	-------

ERRUGBIA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

Getxo-Arrasate	35-10
----------------	-------

SASKIBALOIA

**EBA MAILA, LAGUNARTEKOA**

Natra Oñati-Ardoi	67-63
-------------------	-------

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**

Take Aralar-Eskoriatza	40-53
------------------------	-------

**SENIOR GIZONEZKOAK**

Lagunak-Mondrago Uniberts. A	86-80
Hernani-Soraluze Bergara	61-56

**SENIOR GIZONAK, 2. MAILA**

Aloña Mendi-Viento Sur	85-69
------------------------	-------

**SENIOR GIZONAK, 3. MAILA**

Mondragon Unib. B-Mutriku	76-33
---------------------------	-------

**KADETE GIZONAK, ERRENDIM.**

Cafes Aitona-Aloña Mendi	103-45
Internacional-Mondrago Unib. A	62-80
Ordizia-Soraluze Bergara	60-41

ARETO FUTBOLA

**EUSKAL LIGA**

Elorrioko Buzkantzeta-Eskoriatza	4-2
----------------------------------	-----

# GU RE KI RO LA

GOIENA TELEBISTA  
HARMAILATIK  
ASTELEHENERO,  
22:03, 23:56



goiena



Haurra eta gurasoa ohean batera lo. | VEGANZA

## Gaueko bisitaria: gurasoen ohera behin eta berriz

Neurriak hartu aurretik aztertu egoeraren aurrean dauzkazuen sentimenduak

**LARRAITZ ZEBERIO** | ARRASATE  
"Normala da haur txiki batek bere gurasoengan behar duen segurtasuna eta erosotasuna bilatzea. Gurasoek segurtasun eta erosotasun hori ematen nahi izatea ere oso normala da". *Crianza natural* taldean argi dituzte bi printzipio horiek, eta egoerarekin estutu aurretik zenbait galderari erantzuna emateko gomendatzen diete gurasoei: "Zure bikoteak, umeak, eta zuk ondo

lo egiten duzue?, Zer da benetan gogaitzen zaituena?, Zergatik dator zure txikia gauero zure ohera?...". Berdin jarraitzea, aldaketa txikiak egiten hastea edo neurriak hartzea egoeraren aurrean dauzkagun benetako sentimenduak aztertu ostean finkatzeko gomendatzen dute.

### Bere ohera nola itzuli

"Zure txikia bere ohean uzteko metodo desberdinak daude. Ume

bakoitza desberdina denez, eta egoerak ere desberdinak direnez, familia bakoitzak modu desberdinean egingo dio aurre".

Aukera ezberdinak daude: hasiera batean gurasoen ohetik kanpo, baina logela berdinean haurrendako lotarako txoko bat prestatzea; aukera hori aste bukaeretara mugatzea; bisitak goizaldean —argia dagoenean— soilik onartzea... Xehetasun gehiago ere ematen dituzte.

## Txikiei gatz gehiegi ematen diegu eta ondorioak ditu horrek

**L.Z.** | ARRASATE

Beharrezkoa den garrantzirik ematen ez diogun arren, gatz kontsumoak eragin handia du gure egunerokoan; zer esanik ez haur txikietan. *Ttiklik.com* atari digitalean argitaratutako artikulua ekarri dugu gurera. "Gatza egunero hartzen ditugun elikagaietan ondo ezkutatuta dagoela jakin behar dugu", adierazten dute artikuluko horretan. Gaineratzen dute gatzaren presentziak gosea gehiegi estimulatu duela, lau hankatan edo oinez ibiltzeko zailtasunak eragiten dituela, garapena murriztu eta haztea moteltzen dituela, eta odol zirkulazioa geldotzen duela. Gorotzak, bestalde, gogortu egiten dira, eta kolore iluna hartzen dute.

Sintoma horietako baten aurrean kontsumitzen dugun

gatz kopurua eta elikagai uzkur-tzaileak kopuruz jaitsi edo ekidin beharko ditugu. Elikagai horiek zeintzuk diren ere azaldu dute: haragia, gatz komertziala, arrautzak, hestebeteak, gaztak, sakoteak (fiambre), aurrez prestatutako jakiak, fast-food-a, latatan sartutakoak —olibak, berberetxoak—, izoztu industrialak, opil industrialak, ogi industrialak, pizza izoztuak edo industrialak, fruitu lehor industrialak...

### Amaren elikadura

Garrantzitsua da bularra ematen ari den emakumeak elikadura zaintzea bere esnaren kalitatean eragina baitu. Esne artifizialarekin elikatzen diren haurrendako, berriz, landare-esneak hobesten dituzte artikuluan.



Haurra biberoia hartzen. | NAIARAIS

## Gurasoek aldatu egin behar dituzte adingabeen Interneten erabilera zaintzeko estrategiak

**L.Z.** | ARRASATE

Adingabeak linean seguru egotea erakundeen kezka nagusietako bat da. Horrekin lotuta, EU Kids Online proiektuak gomendio berriak egin ditu. Europako 25 herrialdeetan 25.000 adingaberi eta beren gurasoei egindako inkesta batean oinarrituta *National Perspectives* alderatze txostena kaleratu dute, eta emaitza interesgarriak irakur daitezke.

### Alfabetizazio digitala

Gurasoen alfabetizazio digitala ezinbestekoa dela jasotzen du txostenak, izan ere, Espainiar Estatuko 9-16 urte bitarteko adingabeen erdiak (%47) oso ados dago "Nire gurasoek baino askoz ere gehiago dakit Interneti buruz" baieztapenarekin. Sarearen inguruko ezjakintasun erlatibo horrek berekin du gurasoek adingabeek

Interneten bizi dituzten arriskuak ondo ez ezagutzea.

### Gomendio zaharkituak

Txostenak jasotzen du, bestalde, betiko gomendioak zaharkituak gelditzen ari direla. Gero eta gutxiago dira Internet gelan duten adingabeak, baina teknologia aurrera doa, eta gero eta gehiago dira Internet gailu eramangarri berrien bidez erabiltzen duten adin txikikoak. "Industriak segurtasuneko eta erabiltzaileen adina egiaztatze gailuak hobetzea, baina baita gurasoek Interneten erabilera gainbegiratze-ko estrategiak aldatzea, eta lineako jarduerari dagokien adingabeekiko komunikazioa hobetzeko estrategia aktiboagoak aplikatzea" beharrezkoa dela dio proiektuko arduradun, eta EHUko irakasle den Maialen Garmendiak.

## Ikasketa zailtasunen aurrean ulerkorra izan behar da

**L.Z.** | ARRASATE

Badira aste batzuk ikasturtea hasi dela, eta gurasoek nahi izaten dugu seme-alabek hasieratik emaitza akademiko onak izatea. Argi izan behar dugu, baina, haur bakoitza mundu bat dela, eta ikasketa zailtasunak ere ematen direla.

### Sintomak

Ikasketa zailtasunak detektatu egiten dira, horregatik lehenengo sintomak antzemanen gero komeni da irakaslearekin harremanetan jartzea. Emaitza akademiko eskasak alferkeriarekin lotu ohi ditugu, baina ez du zertan. Sarri, haur horiei asko gustatuko lieke gainerako ikas-kideen erritmoan ikastea, baina ezin dute. Egoera horrek eragin handia du autoestimian, eskolarako jarreran, edo motibazioan.

Zenbait kasutan portaera arazoak, buruko edo urdaileko mina, eta gaueko enuresia —ohean pixa egitea— dakar.

### Ulerkorra izan

Hartu beharreko lehenengo neurria da gaia irakaslearekin komentatzea. Hark ezagutzen du inork baino hobeto umearen ikasketa erritmoa, eta oso lagungarria egingo zaio etxeko jarraera ezagutzea. Alderatu iritziak eta beharrezkoa ikusiz gero jo profesional batengana. Garrantzitsua da egoera lehenbailehen detektatzea, hala garaiz ipiniko ditugu neurriak, eta kalteak arinagoak izango dira.

### Neurriko helburuak

Egoeraren ez jakitun bagara joera izango da haurra presionatzeko: gehiago exijitzea, hase-

retzea, zigortzea... Ez da biderik egokiena ikasteko zailtasunak dituen haur batendako.

Diagnostikoa dugunean ulerkortasunez jokatu behar dugu, eta haurrari bere gaitasunen arabera helburuak finkatu behar dizkiogu. Ez ahaztu umeak gainerako ikas-kideen modukoa izan gura duela.

### Azterketa sasoiari

Azterketa egunak oso txarra izan ohi da ikasketa zailtasunak dituzten haurrendako; tentsioa, antsietatea eta estres egoerak bizi izan ohi dituzte egun horietan. Izan bereziki ulerkorra azterketa garaian, eta ez ahaztu egoerara egokitutako espektatibak ezarri behar dituzuela. Nahikoa presio bizi du haurrak egun horietan, ez gehitu etxetik.



# KULTURA

## Nork zioen txotxongilo ikuskizunak umeendako bakarrik zirenik?

Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen XI. Mostra egin dute Bergaran

TXOMIN MADINA | BERGARA

Euria, haizea, giro ezatsegina... Atzean utzi berri dugun asteburua grisa izan da. Baina egon da grisa kolorez bete duen ekitaldirik;

Bergaran egin duten Helduentzako Nazioarteko XI. Txotxongilo Mostra, hain zuzen ere. Eguenetik atzo bitartean, munduko hainbat txokotatik etorritako txotxongilo

ikuskizunak izan dira nagusi Bergaran eta antolatzaileen arabera, jendea animatu da etxean geratzeko tentazioari aurre egin eta antzezlanaz gozatzera.

**Askotariko ikuskizunak**

"Oso gustura gaude aurtengo edizioarekin, balorazio oso ona egingen dugu" zioen atzo Mostra antolatzen duen Taun Taun antzerki

taldeko Itsaso Azkaratek. Eguraldiak izan du eraginik eta hala, kalean egin behar ziren hainbat antzezlari Zabalotegiko frontoian egin behar izan dituzte. Horixe gertatu zen zapatuan Iñaki Matak eskaini zuen *H, O2 TOPOZ* ikuskizunarekin, baita Markeliñe konpainiaren *Zoomzoom* antzezlarekin ere.

Zabalotegi aretoa da Mostraren gune garrantzitsuenetako bat, eta programatutako antzezlari aretoa ia guztiz bete da. Zapatuan, Companya Pelmanec taldeak *Diagnóstico Hamlet* lana erakutsi zuen Zabalotegiko agertokian; egubakoitzean bestalde, Roberto White argentinarrak *Criaturas particulares* izeneko antzezlana eskaini zuen. Bergarako gainera, Whiten antzezlaren Euskal Herriko estreinaldia izan zen.

Ez da hori izan Euskal Herrian lehen aldiz ikusi ahal izan den antzezlari bakarra. Gauza bera gertatu da Ymedioteatroren *Siete* ikuskizunarekin ere. Formatu txiki-antzezlana da berau, Errege Mintegiko arkupetan jarritako gurdian egin dutena eta Itsaso Azkarateren esanetan, emanaldi guztietan bete dena. Beste estreinaldi arrakastatsu bat: Merçè Gosten *Sota Mínims*. Pikupe Produzioaren bulegoan izan da ikuskizun berezi hau eta askotariko publikoaren interesa piztu du. Ikusleek eurek aukeratu dute zein antzezlari ikusi, eta jatetxe izpiritu hori jarraituta, antolatzaileek tragoxka bat eta gilda bat jateko aukera izan dute antolatzaileen eskutik.

**Artistak ere gustura**

Artistak ere gustura geratu dira Mostrarekin; horixe zioen behintzat atzo Merçè Gostek: "Asko gustatu zait, eta gainera maila handia dago. Nire lanak erantzun ona izan du. Publikoa oso ona izan da, uste dut konektatu dela kontatu gura nuenarekin; hori nabaritu egiten da". 1.998an ere izan zen Gost Bergaran, eta bereztat antolatzaileek ausardia handia erakusten dute helduentzako txotxongiloen Mostra antolatzean. Itxura guztien arabera, aurtengoa ere merezi izan duen ausardia.



Ymedioteatro taldekoek nahiko zituzten betaurreko batzuk, plastiko poltsa bat eta goilara bat publikoak gozarazteko.



**IDOIA LARRAÑAGA**  
BERGARA

"Ymedioteatroren bi emanaldiak ikusi ditut eta asko gustatu zaizkit, gehienbat bigarrena. Badut txotxongilo ikuskizunetara joateko ohitura eta behin Bergaran Mostra egonda, ikuskizun denetara joateko aprobetxatzen dut".



**HILARIO MANZANEDO**  
BERGARA

"Ahal dudanetan joaten naiz Mostrako ikuskizunetara eta antolatzaileei laguntzen ere ibiltzen naiz. Nire ustez sorkuntzaren inguruko ekitaldiak bultzatu eta mantendu egin behar direla".



**ANA BUJANDA**  
BERGARA

"Oso polita izan da Ymedioteatroren antzezlana; harriz geratu naiz, bi gauzarekin antzezlari guztia egiten dute. Badut Mostrako ikuskizunetara joateko ohitura, ez da ume kontua bakarrik".



**HARITZ OTEIZA**  
BERGARA

"Ymedioteatroren ikuskizuna oso orijinala iruditu zait. Formatu txikian ikusi dudanean lehen antzezlari izan da eta gustatu zait. Ikuskizun motza izan da gainera, nire ustez merezi du etortzeak".



Merçè Gosten *Sota Mínims*. | J.A.

Dantzas Konpainiako kideak, *A place between* dantzaren une batetan. | JOSETXO ARANTZABAL**AMAIA**  
ARRASATE

"Estilo honetako ikuskizun batera natorren lehenengo aldia da eta primeran pasatu dut. Dantzak eta musika, dena gustatu zait izugarri. Ez nuke zalantzarik edukiko esperientzia errepikatzeko, eta baita gomendatzeko ere".

**PELLO**  
GOIERRI

"Semeak parte hartzen duelako etorri naiz Arrasateraino. Ikusten nuen lehenengo aldia izan da, eta primeran aritu dira. Oso gogorra da, ordu asko eskatzen duen lana da, eta harro nago emaitzarekin".

## KRONIKA

## Pasioa artelan bilakatu zenean

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Tradizioa eta berrikuntza izugarri ondo elkartzeagatik epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen urri hasieran *Arte-an* ikuskizunak Aragoiko Dantza eta Antzerki Ferian. Eta zapatu iluntzean Amaia Antzokira bertaratutakoek ongi ulertuko zuten zergatia.

**Bi dantza, bi estilo**

Argiak itzali eta oihala ireki zen momentu beretik magia betetako emanaldiarekin gozatu zuten Amaiara bertaratutakoek. Erritmo biziekin irten ziren aurrene-

ko dantzariak jendaurrera. Sinbologiaz betetako dantza izan zen *Earth apple*. Sagarrez bete zuten taula gaina, ama-lurraren ikur; eta dantzariak berriz, bizirauteko gogoia duten pertsona zapaldu bilakatu ziren. Kololetsua eta pasioz betetako lana.

*A place between* dantzaren txanda izan zen ondoren. Guztiz aldatu zen eszenografia, argi batek apurtzen zuen bakarrrik iluntasuna. Musika ere aldatu zen, lasaiagoa zen eta baita tristeagoa ere, zenbaitetan.

*Earth apple* estilo garaikidekoa bazen, dantza klasikorantz

jo zuten kasu honetan Dantzas Konpainiako kideek. Banaka batzuetan, taldetan egin zuten dantza bestetan, eta musikarik gabe ere zenbait pauso dantzatu zituzten, leun, geldo.

**Txalaparta eta danborrak**

Hamar minutuko etenaldiaren ostean, azken piezaren ordua iritsi zen. Dantzariak fin aritu ziren; aurretik taula gainean aritutako guztiek bat egin zuten bertan, eta danbor doinuez aurrena, eta txalapartari jarraituz ondoren, *Flash deluxe* dantzak bizia hartu zuen. Indartsua izan

## FITXA

DANTZA

**DANTZAZ KONPAINIAREN 'ARTE-AN' IKUSKIZUNA****Estiloa:** Dantza klasikoa eta garaikidea.**Non:** Amaia Antzokia.**Eguna:** Zapatua, urriak 20.**Iraupena:** 70 minutu.

zen azken lana, beren aulkian geldi-geldi zeudenek ere hankekin erritmoa jarraitzen hasi ziren. Txalo zaparrada jaso zuten amaieran dantzari gazteek, lan bikainaren erakusgarri. Modu horretan, dantza munduan aurreneko lana lortzeko bidea izan gura duen konpainiako kideek, profesionaltasunik ez zaiela falta argi utzi zuten.

**AINARA**  
ARRASATE

"Ez dut askorik jarraitzen dantza garaikidea, eta asko gozatu dut. Lan handia egin dute, eszenatokia beteta eta koordinazio handiz dantzan. Gainera, musika ere bikain egon da, adibidez, txalaparta erritmo afrikarrekin eta abar."

## Txapa Irratiko denboraldi berria aurkeztu zuen Raki txotxongiloak

Irrati libreak 18 saio propio emitituko ditu 97.20 fm zein Internet bidez

Z.V.D.M. | BERGARA

Bergarako Txapa Irratiak 28 urte daramatza emititzen. Uhin zein internet bitartez, irrati librea milaka lagunengana iristen da.

Egubakoitz iluntzean, 2012-2013 denboraldiko egitarau berria aurkeztu zuten gaztetxean. Raki txotxongiloa eta DJ Elbis Cainok gidatu zuten aurkezpena. Saioen aurkezleek ere hartu zuten hitza tarteka eta amaieran, Izaki Gardenen emanaldia egon zen.

**Hamazortzi saio**

Batzuk berriak, besteak ezagunak; orotara, 18 saio propio ekoiztuko ditu aurreko Txapa Irratiak. Berrien artean, *Metapetik* dago. "Modu kritiko batean munduan gertatzen diren gaiak landu eta entzuleak hausnartzera bultzatu gura ditugu. Fracking-ari buruz egingo dugu berba, esaterako". Eguaztenetan emango dute, 22:15ean hasita. Bestalde, saio klasikoaren artean, *Ametsetako lurra* dago,

11 urtez musikaren bidez, "ideiak, emozioak, ametsak eta abar bideratzen" dituzte.

*Xelebregara, Teilatupean, Gurasuak, Jar itzazu tapoiak mesedez, Kolax, Bergara Sutan...* Makina bat saiorekin gozatuko dute entzuleek urte berrian.

Bestalde, Txapa Irratiak Bergaran egiten den Txotxongilo Mostrari keinua egin gura izan zion Raki-ren bidez; urteetan edukitako erlazio onaren isla.



Txapa Irratiaren programazio berriaren aurkezpena. | Z.V.D.M.



Disco festa Gaztelekuan. | JOSETXO ARANTZABAL



Xake Txapelketa, goizean. | CRISTINA VAL

## Xakelariak goizez, dantzariak arratsaldean Gaztelekuan

XVIII. Xake Txapelketa Alejandro Francok irabazi zuen; 1. go oñatiarra Diksan N. Leonard izan zen

ZURIÑE V.D.M. | OÑATI

Ez zen aspertzeko betarik egon zapatuan Gaztelekuan; goizean xakea nagusi izan zen bitartean, arratsaldean disko festarekin gozatu zuten bertaratutakoek.

### Oñatiko Xake Txapelketa

Goizeko 9etan hasita, Oñatiko XVIII. Xake Txapelketa jokatu

zuten eta iaz bezala 35 partaidek hartu zuten parte.

Alejandro Francok irabazi zuen; bigarren Marcos Rodriguez izan zen eta hirugarren Francisco Miguel. Laugarren eta bosgarren sailkatuek ere saria eduki zuten, Aitor Alkaide laugarren eta bosgarren David Martinez izan ziren. Hamasei urte azpiko

gazteetatik berriz, Eneko Carrascal izan zen lehenengoa, eta aurreko oñatiarra, Diksan N. Leonard izan zen.

### Arratsaldean, musika

Disco festa egiten dute hilean behin Gaztelekuan, eta zapatuan Oñatiko Sound Project izan zen musika ipintzeko arduraduna. Gaztelekuko Cristina Valek adierazi digunez, "arrakasta edukitzen du" disko festak. Denetariko musika entzun zen Sound Projecten eskutik; beraiek hautatu zein gazteek eskatutako kantuak izan ziren. Poliki-poliki jendea Gaztelekura gerturatuz joan zen, eta amaierarako ehun neska-mutil inguru dantzan ari ziren.

KRONIKA

## 60ko doinuekin 'gaixo'

### FITXA

MUSIKA

#### THE DEALERS

**Generoa:** Garage / Psychodelic / R&B.

**Non:** Antton Taberna, Oñati.

**Eguna:** Egubakoitza, urriak 19.

**Iraupena:** Ordu eta laurden.

Z.V.D.M. | OÑATI

Single berria aurkeztu zuen The Dealers talde gasteiztarrak Oñatiko Antton Tabernan egubakoitz iluntzean: *Hypochondria*. Hain zuzen, 60ko hamarkadako doinuengatik, rock-and-roll, rhythm-and-bluesarengatik *gaixo* dagoen

taldea. Nahiz eta 2006an sortu, melodiek urrutiago eramaten dute entzulea, bai denboran, bai eta espazioan ere.

Hala izan zen Antton Tabernako kasuan. Atetik sartzeaz batera 60ko hamarkada ingurura bidaiatu zuten bertaratutako berrogei bat lagunek. Oñatira iritsitako *sixties* doinuekin, kutsu nostalgikoko melodia freskoekin gozatzeko parada izan zuten modu horretan Anttonen elkartutakoek.

Fin aritu zen ordu eta laurden inguruko saioan laukotea; eta berrogeita hamar urte pasata ere, estiloak bizi-bizi dirauela argi utzi zuten, tragugile arabarrek.



The Dealers, zuzenean. | JOSETXO ARANTZABAL



## AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



23.900€-tik aurrera

> FORD Kuga  
2012 | Diesela | 0 Km

**MUGARRI**

Araba etorbidea, z/g ARRASATE  
943790744 • www.mugarri.es

• Ford Focus 2012   Diesela   Km 0	18.500 €
• Ford Transit 2012   Diesela   Km 0	21.700 €
• Ford Focus Tdci 110 2011   Diesela	12.500 €
• Citroën Picasso Td 92 Zp 2007	7.800 €
• Toyota Land Cruiser Td 3 Ate 125 Zp 2000   Diesela	7.800 €
• Ford Fiesta Tdci 70 Zp 2007   Diesela	6.800 €
• Ford Connect Tdci 90 Zp 2009   Diesela	7.900 €
• Kia Sportage Td 2008   Diesela	12.500 €
• Land Rover Td Freelander 2000   Diesela	5.500 €
• Mercedes Vito Cdi 8 jarleku 2004   Diesela	14.500 €



11.450 €

> Renault Grand Modus  
2012 | Diesela | 0 Km | Txuria

**RENAULT AUTOBERRI**

San andres auzoa 8  
ARRASATE • 943 71 24 72

### HAINBAT AUTOTAN 2012KO PIVE PLANA AUKERAN

• Renault Clio 2010   Diesela   17.015 Km   Txuria	10.450 €
• Renault Clio Automatiko 2009   Gasolina   17.934 Km   Urdina	8.250 €
• Renault Clio G.T. 2011   Diesela   12.890 Km   Urdina	12.890 €
• Renault Twingo 2011   Gasolina   0 Km   Beltza	9.890 €
• Renault Fluence 2009   Diesela   15.500 Km   Gorria	14.650 €
• Renault Megane 2010   Diesela   20.787 Km   Grisa edo Urdira	13.850 €
• Renault Kangoo furgon 2008   Diesela   130.550 Km   Txuria	7.950 €
• Dacia Sandero 2012   Diesela   4.500 Km   Gorria edo Grisa	8.950 €
• Dacia Stepway 2012   Diesela   5.600 Km   Gorria edo Grisa	11.450 €



38.000 €

> Citroen DS5 Hybrid Sport  
2012 | Diesel elektrikoa | 6.400 km | Zuri nakaratua

**CHAPIME**

Debagoieneko kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5  
ARRASATE • 943 79 45 22

• Citroen Berlingo Com. 2.0HDI Multispace 2004   Diesela   147.000 km   Urdin argia	4.600 €
• Citroen C3 1.4HDI Cool 2010   Diesela   40.500 km   Beltza	8.000 €
• Citroen C3 Picasso 1.6HDI SX 2010   Diesela   57.400 km   Beltza	10.500 €
• Citroen C5 2.0 HDI Business 2010   Diesela   58.000 km   Gris argia	14.900 €
• Citroen C4 Aircross 1.8HDI Exclusive 4WD 150 2012   Diesela   3.500 km   Txuria	32.000 €
• Citroen C5 2.0HDI Business 2010   Diesela   38.000 km   Gris argia	14.900 €
• Citroen DS4 1.6e-HDI Design STT 2011   Diesela   3.000 km   Urdin iluna	20.000 €
• Citroen DS4 1.6e-HDI CMP STYLE 2012   Diesela   1.200 km   Gris argia	22.500 €
• Citroen C4 Aircross 1.8HDI Exclusive 2WD 150 2012   Diesela   750 km   Mangaro marroia	30.500 €
• Citroen Berlingo XTR Plus 115 2012   Diesela   0 km   Nocciola	18.500 €

Iragarkia jartzeko: 943 25 05 05

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

# Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



## ABOKATUAK

### **BERNARDINO MAIZTEGI**

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### **JUAN ANTONIO SIERRA**

BERGARA / Irizar 2  
Tel.: 943 76 03 35

### **BEGOÑA LASAGABASTER**

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
[blasaga@conet.es](mailto:blasaga@conet.es)

### **RAFAEL ARANBURU**

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### **ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
[zenbaki@zenbaki.es](mailto:zenbaki@zenbaki.es)

## AHOLKULARITZAK

### **AIERDI AHOLKULARITZA**

BERGARA / Artekale 1  
Tel.: 943 76 03 50

### **ANDRA MARI AHOLKULARITZA**

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
[andrama@arrakis.es](mailto:andrama@arrakis.es)

### **ASEGI AHOLKULARIAK**

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
Tel.: 943 71 25 49  
Faxa: 943 71 17 79  
[asegi@asegim.com](mailto:asegi@asegim.com)

### **TBG AHOLKULARITZA**

BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### **ZENBAKI AHOLKULARIAK**

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
Faxa: 943 71 22 68  
[zenbaki@zenbaki.es](mailto:zenbaki@zenbaki.es)

## ARKITEKTOAK

### **BIARK ARKITEKTOAK**

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
[www.biark.net](http://www.biark.net)

## ARKITEKTO TEKNIKOAK

### **JESUS LASKURAIN PEREZ**

BERGARA / Zurradero 4  
Tel.: 943 76 53 53

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

### **URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
[uribesalgo@telefonica.net](mailto:uribesalgo@telefonica.net)

## PROKURADOREAK

### **JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.  
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49



## GURE MUSIKA TALDEAK

# "Gaztetxeko komunetan hasi ginen punk-rock taldeen bertsioak egiten"

- ▶ 2008. urtean sortu zen Interprete Desconocido taldea, eta ordutik hona aldaketa asko jasan ditu taldeak
- ▶ Taldeak sei abestiz osatutako lehenengo diskoa grabatu berri du Aretxabaletako Nekrosounds estudioan

JAGOBA DOMINGO. | ARRASATE

Ibilbide luzea dute Arrasate eta Leintz Gatzagako punk-rocker gazte hauek. 2008an hasi ziren gaztetxeko komunean entseatzen, eta ordutik hona gustuko doinuak lantzen jardun dute gaurko egunera arte. Taldeko bateria-jolearekin, *Morenito*, egon gara taldearen ibilbidearen errepasoa egin eta disko berriaren grabazio eta etorkizun planen inguruan hitz egiteko.

## Noiz eta nola sortu zen Interprete Desconocido?

Orain dela 6 bat urte hasi ginen Arrasateko gaztetxeko komunetan denbora pasa bezala jotzen. Hasieran, Antton, Uso, Pajero, Dani, Mikel eta ni elkartzen ginen Rip, Comando 9mm edo Social Distortion taldeen bertsioak egiteko. Beranduago, Gatzagako Ibai eta Jose-ri deitu eta taldearen formazio klasikoa osatu zen. Orduan nik 14 urte nituen eta beste taldekideek urte bat edo bi gehiago besterik ez. Ondoren, gaztetxetik, depositotako lokale-tara entseatzera joan ginen eta berriz ere gaztetxean bukatu dugu, baina komunean beharrean, entsegu lokalean gaude orain.

## Lehenengo kontzertua egin arte denbora luzea pasatu zen?

Egia esan, ez dut oso ongi gogoratzen. Gure lehenengo kontzertua Arrasateko Gaztetxean izan zen, komunean jotzetik eszenatokira pasatu ginen. Material Rechazado eta Des-Kontrol taldeekin jo genuen eta sei bat kantu jo genituela uste dut, ondoren Dat tabernan jo genuen. Ordurako seiurk geunden taldean, hala ere, taldeak ez zuen izenik.

## Orduan, noiz jarri zenioten izena?

Esan bezala, lehenengo kontzertuak, *Morenito* & cia eta Riot kids izenekin eman genituen. Baina inspirazio momentu batean, laguneren batek Interprete Desconocido izena bota eta berau gelditu da gurekin.

## Kanpora jotzen irteteko aukerarik izan duzue?

Bai, 2010. urtean Galiziara joan ginen, Lalin-era hain zuzen ere. Bertako lagun batzuek, Mondra vs Donra egitasmoa sortu zuten eurak hona etortzeko eta gu bertara joateko asmoz. Arrasateko Aggressive Combat eta Fight to Life taldeekin joan ginen, eta Lalin-eko Skarmento, Ultima Sacudida eta Second Army taldeekin jaialdian parte hartu genuen. Esperientzia polita eta bizia izan zen.



Interprete Desconocido Arrasateko Iluntz tabernan egindako kontzertu batean. | GORKA MORRAS

## Urte horretan taldeak aldaketak jasan zituen.

Bai, alde batetik Mikel Iglesias-ek taldea utzi zuen, beraz gitarra batekin geratu ginen, eta bestetik, Pajero abeslaria hil egin zen. Beraz, sei izatetik lau izatera pasatu ginen; Dani, abeslaria; Ibai, baxuan; Jose, gitarran eta ni baterian. Kolpe latz hau jasan arren, taldearekin aurrera jarraitzea erabaki genuen.

## Zuzenekoetan formazioaren aldaketa igerrri zen?

Hasieran kontzertuak ez ziren hain zuzen eta bortitzak. Kontutan hartu behar da bi abeslarik zuzenekoetan oholtza gainean mugimendu eta giro asko jartzen

dutela. Hala ere, bi urte daramatzagu horrela eta oso pozik gaude.

## Sei urte pasa ondoren estudioara sartu zarete.

Bai, egia esan ez dugu presa handirik izan. Aurretik bilduma baten parte hartzeko kanta bat grabatu genuen, Nafarroa 1512-2012 Punk-Oi doinuak bildumarako *Gurea da askatasuna* kantua. Baina oraingoan sei kanta propio grabatu ditugu Aretxabaletako Nekrosounds estudioan.

## Nolakoa izan da grabazioa?

Oso azkarra. Asteburu batean grabatu dugu dena, Ibai baxujolea ikastera Bartzelonara joan delako eta Jose gitarra-jolea, Ale-

maniara joan da. Beraz, azken orduan grabatu dugunez, gauzak presaka egin ditugu! Horrez gain, sei kanta propio grabatu ditugu eta esperientzia aberasgarria izan da.

## Orduan momentu honetan taldea geldidago?

Bai. Gure asmoa, Ibai eta Jose etxera datozen asteburu edo oporetan, kontzertuak ematen jarraitzea da. Baina normala den bezala, ezin dugu astero entseatu, beraz pixkanaka-pixkanaka aurrera jarraitzen saiatuko gara.

## Diskoa noizko?

Otsailean diskoa kaleratzea gus-tatuko litzaiguke, izan ere, oraindik nahasketak eta masterizazioa

egitea falta da diskoa amaitzeko. Horrez gain, diskoa kaleratzeko laguntza bila gaude, agian kantuak beste talderen batekin split [disko konpartitua] bat egiteko erabiliko ditugu. Kopia egiterako orduan, berriz, finantziazioan laguntzeko zigilu independientekin hitz egiteko asmoa dugu.

## Interprete Desconocido-k denbora luzerako bizitza dauka oraindik?

Bai, nahiz eta orain taldekide batzuk kanpoan egon, ez dugu taldea lurperatuko. Erritmoa bestelakoa izango da, baina aurrera egiteko asmo finkoa dugu! Oraindik borrokan jarraitzeko indarra dugu.





# Software librearen aurrezte handia frogatu dute

Europako administrazioek software liberarekin 450.000 miloi euro aurreztuko lituzkete, ikerketa baten arabera lehen aldiz egin du

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Software pribatiboa baino askoz ere merkeagoa da libre. Abantaila horrengatik da, batez ere, ezaguna gaur egun. Horrela, administrazio publikoetan, geroago eta gehiago dira software librearen aldeko apustua egiten dutenak, baina orain arte ez da ikerketa zehatzik egon aurrezte hori zenbatekoa den zehazten duenik.

## Ikerketa argigarria

Carlo Daffara adituak egin du Europa mailako lehen ikerketa, eta, hark erabilitako datuen arabera, Europako administrazio publikoek 450.000 milioi euro aurreztuko lituzkete software pribatiboa librearengatik ordezkaturatu. Baina aurrezte mailarik handiena ez da lortzen programa libreek gutxiago balio dutelako, garatzaileek programak egokitzeko denbora laburragoa behar dutelako baizik. Kasu gehienetan, berrerabili egin daitezke aurreko garapenak, eta modu merkean kalitate handiko



Richard Stallman. Software librearen "guru". | GOOGLE

kodea erabil daiteke aplikazioetarako. Garapenerako erabiltzen den denbora laburtu egiten da horrela eta askoz merkeagoa da programa eta aplikazio libreak erabiltzea. Ikerketa berak dio, gainera, software librea dara-

bilten enpresa eta erakundeak askoz ere produktiboagoak direla eta emaitza hobekien lortzen dituztela. Software libreak denbora eta dirua aurrezten dituela frogatuz eman du ikerlariak datu horiekin.

## Android berria aurkeztuko ei du Googlek aurkezpenean

J.B. | ARRASATE

Aurkezpen berri baterako gonbidapenak bidali dituzte Googletik. Urriaren 29an izango da, New Yorken, eta dagoeneko hasi dira zurrumurruak indarra hartzen. Irargarpenetan ausartu diren lehenek LG Nexus 4 modeloaren aurkezpena izango dela esan dute, sarean dagoeneko badaude -eta haren existentziaren frogak bideo eta argazkitan.

Androiden bertsio berria izango dela ere badabil hara eta hona, azken bertsioaren arrakasta ikusi eta gero. *Key Lime Pie* izena edukiko luke Googleren sistema eragile berrienak eta garatzaile eta fabrikatzaileen artean ahalik eta lasterren zabaltzea litzateke helburua, ahalik eta arinen bertsio egokituak egiten has daitezten.

Bi suposizio horiekin batera esaten da prezio politikaren aldaketa bat ere iragarriko dutela Googlen, eta euren produktuak merkeago salduko dituztela esaten da; tabletak, batez ere, iPad Miniaren etorreraren beldurrez.

## Appleren aplikazioak %16 astundu dira

J.B. | ARRASATE

Aplikazioek, nahiz eta berdinak izan, lehen baino pisu handiagoa dute iOSen. Neurketa baten arabera, orain dela sei hilabete baino %26 astunagoak dira aplikazioak gaur egun. Arrazoi nagusia da erresoluzio handiagoko irudiak erabiltzen dituztela aplikazioek, baina hori ez da arrazoi bakarra.

## Deskarga muga berria

Applek ezarritako deskarga mugaren aldaketak ere badu eragina. Orain arte 20 MBtik gorako aplikazioak wi-fi bitartez soilik jaitz zitezkeen, baina orain muga hori 50 MB da eta aplikazioen egileek orain ez dute zertan konpresioan hain estu ibili. Geroago eta aplikazio astunagoak egiteko joeran, gainera, itxura guztien arabera, antzera jarraituko du, operatzaileak datu tarifa geroago eta zabalagoak dabiltzalako eskaintzen eta mugak ere geroago eta zabalagoak direlako. Datorren astean iPad Minia aurkezten badute, joera horrek motibo gehiago izango ditu.

## Iruzkinetan emotikonoak baimendu ditu Facebookek

J.B. | ARRASATE

Txikikeria hutsa badirudi ere, Facebookek ez du orain arte iruzkinetan *smiley* edo emotikonorik erabiltzen utzi.

Beste zerbitzu askotan ez bezala, bi puntuak eta parentesia idatziz gero ez zuen aurpegi irribarretsarik erakusten, :) baizik, beste barik.

Emotikonoen erabilera oso zabaldua da eta Facebookek berak bere txatean lagatzen zituen, baina ez iruzkinetan, eta erabiltzaile askok faltan igartzen zituzten sinblook. Hala ere, iruzkinetan bai, baina egoeraren eguneraketan ezin dira oraindik

emotikonoak erabili. Ez dute adierazi hor ere erabili ahal izango diren etorkizunean. 25 emotikono ezberdin jasotzen dira Facebooken erabiltzeko moduan.

## Historia luzea

Morse kodearekin batera hasi ziren erabiltzen emotikonoak. 1908an dokumentatu ziren lehen aldiz karaktere bitartez adierazitako musu eta maitasun sinboloak. Gaur egun konplexutasun maila handia hartu dute eta animalia zein objektuen itxura daukaten lerro bat baino gehiagokoak daude.

Smiley	Name	Shortcut
☺	smile	:-) :) :] =)
☹	frown	:-( :( :[ =(
😮	gasp	:-O :O :-o :o
😄	grin	:-D :D =D
😛	tongue	:-P :P :-p :p =P
😉	wink	;-) ;)
😏	curly lips	:3
😘	kiss	:-* :*
😠	grumpy	>:( >:(
👓	glasses	8-) 8) B-) B)
🕶	sunglasses	8-  8  B-  B

Emotikono batzuen zerrnda. | TREEBITS.COM



Zerbitzari zerrenda luzea. | 20MINUTOS.ES

## Datu biltegien atea zabaldu ditu lehen aldiz Googlek, birtualki

J.B. | ARRASATE

Joan den eguaztenean ireki zituen lehen aldiz Googlek informazio eta datu guztiak gordetzen dituzten biltegiak. *Datuen Gune* delakoan, Gmailko e-posta guztiak, Youtubeko bideoak eta bilaketa motorren datu guztiak biltzen dira, besteak beste. Segurtasun neurri handienak dituzte zentrook -8 guztira, 6 Estatu Batuetan eta 2 Europan, Finlandian eta Belgikan- eta [Google.com/intl/es-419/about/datacenters](http://Google.com/intl/es-419/about/datacenters) helbidean egin daiteke *tour* birtuala.

## Gardentasun politika

Ekimena Googleren azkenaldiko gardentasun politikaren barruan

dator, ziklo berri bati ekin nahi baitiote enpresan, gardentasuna eta pribatutasuna eta segurtasuna zutabe nagusiak izango dituen, Googletik behin eta berriz zabaldu dutenez.

## Jakintza partekatuz

Sekretismo handiak inguratu ditu beti Google biltegi erraldoiak, baina, kontraesankorra badirudi ere, horien diseinuan eta energia aurrezteko neurrien xehetasunak aspalditik publiko egiten ditu Google, jakintza hori mesede orokorraren izenean partekatzen. Milioi bat zerbitzari baino gehiago dauzka Googlek gaur egun lanean.

## Hil bukaeran aurkeztuko ei dute iPad Mini berria

J.B. | ARRASATE

iPad Minia hilaren 26a baino lehenago aurkeztuko ei dute. Applek, behintzat, "zerbait oso txikia" aurkeztuko duela iragarri du. Aipatutako data horretan aurkeztuko ditu ofizialki eta zeremonia guztiekin Microsoftek bere Surface tableta eta Windows 8 sistema eragile berria, esan dutenez "iPada gainditzen duena". Zehazki, *AllThingsDigital* gunean urriaren 23a ipini du data moduan, Apple barruko iturriak aipatuta.

## Prezioak

Prezioen ustezko zerrenda bat ere filtratu da hedabideetan. Alemaniako blog batek atara ditu prezioak eta 249 eurotik gora egongo lirateke, 8 GBko wi-fidun modelotik hasita; merkeena. Hedabideetan esan da Applek hamar miloi tableta-ekoizpena enkargatuta daukala. Ustezko neurria izango da 7,85 hazbeteko pantaila, eta Lightning konektore berria ekarriko luke iPad txiki berriak.

## TELE-BEGI

OIHAN  
VEGATorturatzeko ikastaroa:  
lehen lekzioa

Hartu txakur bat. Lotu. Eman ostiko bat bere barrabiletan eta askatu animalitxo. Ondoren, eskolan esku lanak egiteko erabiltzen den puntzoi horietako bat hartu eta zaztatu bizkarrean odola irten arte; geroz eta gogorrago sartu, orduan eta odol gehiago irtengo zaio orduan eta min gehiago egingo diozu txakurrari. Beranduago, bota pilotatxo bat eta egin dezala korrika horren atzetik odol gehiago gal dezan. Min gehiago egiteko, hartu bi labana, sartu bizkarrean eta utzi labanak hor zintzilik, horrela, korrika egiten duenean gehiago sufrituko du txakurrak. Segi pilotatxo botatzen, egin dezala korrika, nekatu dadila, gal dezala odola, sufri dezala. Hori da helburua.

Errepikatu akzio hori 25 minutuz jarraian, eta txakurra oso nekatuta dagoenean eta odol asko galdu duenean, hartu haragia mozteko labana handi horietako bat eta sartu bihotzeraino, ea lehenengo sartualdian hiltzen den.

Zer? Hau guztia astakeraia dela? Barkatu, aldatu animalia, txakurra beharrean, jarri zezena eta kitto. Hori da TVE telebista publikoak -guztiok ordaintzen dugunak- telebistaz ematen duena.

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

## ASTELEHENA 22



## Harmailatik

Aratz Losadak Natra -Oñati saskibaloitaldeak aurtengo denboraldirakohelburueiburuz hitz egingo du. | 22:00

12:25 Magazinea  
13:10 Zorion agurrak  
13:15 Onein: Menestra  
13:41 Gipuzkoa Kultura  
14:13 Ekogune  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:08 Zorion agurrak  
15:13 Dantza Txapelketa  
16:01 AsteON  
16:35 Musikaz Gain: Manent  
16:45 Berriak  
17:05 Eguraldia  
17:08 Onein: Menestra  
17:34 Hamaika.bit  
18:04 Beranduegi.tv  
18:29 Ekogune  
18:59 AsteON  
19:29 GCC: Garbiñe Irizar  
19:52 Berriak  
20:12 Eguraldia  
20:15 Magazinea  
21:00 Gurean Gaur  
22:00 Harmailatik  
22:45 Berriak  
23:05 Eguraldia  
23:08 Magazinea  
23:53 Harmailatik  
00:38 Gurean Gaur  
01:38 Eguraldia

## MARTITZENA 23



## Gurean Gaur

Tokiko telebistek eguneroko elkarlanean egindako abestegia da Nagore Uriartek aurkeztutako saioa. | 21:02

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean Gaur  
13:15 Zorion agurrak  
13:20 Harmailatik  
14:05 Hamaika.bit  
14:40 Zorion agurrak  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:08 Harmailatik  
15:53 Onein: Legatz betea  
16:25 Gurean Gaur  
16:51 Berriak  
17:11 Eguraldia  
17:14 Dantza Txapelketa  
17:59 Harmailatik  
18:44 Beranduegi.tv  
19:08 Musikaz Gain: Lain  
19:18 Gipuzkoa Kultura  
19:48 Zorion agurrak  
19:53 Berriak  
20:13 Eguraldia  
20:17 Magazinea  
21:02 Gurean Gaur  
22:02 Berriak  
22:22 Eguraldia  
22:27 Harmailatik  
23:12 Magazinea  
23:57 Berriak  
00:17 Eguraldia

## EGUAZTENA 24



## Ekogune

Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserria bisitatzeko plana azalduko digu Julen Iriondo kazetariak. | 22:00

12:00 Magazinea  
12:45 Gurean Gaur  
13:15 Hamaika.bit  
13:45 Harmailatik  
14:30 Musikaz Gain: Lehiotikan  
14:40 Zorion agurrak  
14:45 Berriak  
15:00 Eguraldia  
15:03 Onein: Legatz betea  
15:35 AsteON  
16:05 Dantza Txapelketa  
16:50 Berriak  
17:05 Eguraldia  
17:08 Harmailatik  
17:53 Zorion agurrak  
17:58 Musikaz Gain: Lauroba  
18:09 Beranduegi.tv  
18:33 Zorion agurrak  
18:38 Zorion agurrak  
18:43 28 klip  
19:13 Musikaz Gain: Eduardo Baranzano  
19:23 GCC: Garbiñe Irizar  
19:48 Zorion agurrak  
19:53 Berriak  
20:13 Eguraldia  
20:16 Magazinea  
21:00 Gurean Gaur  
22:00 Ekogune  
22:30 Berriak  
22:50 Eguraldia  
22:55 Magazinea  
23:40 Gipuzkoa Kultura  
00:10 Berriak  
00:15 Eguraldia

## EGUENA 25



## Gipuzkoa Kultura

Altzerri kobazuloaren aurkikuntzaren 50 urteurrenean, Aian dagoen erakusketa ezagutuko dugu. | 22:03

10:00 28 klip  
10:30 Bertso saioa  
12:25 Ekogune  
12:55 Zorion agurrak  
13:00 Magazinea  
13:45 Onein: Zapo otarrainxa  
14:13 Zorion agurrak  
14:16 GCC: Garbiñe Irizar  
14:41 Ikusten: Eskolen Festa  
15:39 Ur eta lur  
16:14 Magazinea  
16:59 Musikaz Gain: Manent  
17:10 Ekogune  
17:40 Bertso saioa  
19:35 Eguraldia  
19:38 Dantza Txapelketa  
20:23 Hamaika.bit  
20:53 Magazinea  
21:38 Beranduegi.tv  
22:03 Gipuzkoa Kultura  
22:33 Musikaz Gain: Lehiotikan  
22:43 Bertso saioa  
00:38 Ekogune

## EGUBAKOITZA 26



## Bertso saioa

Bizkaiko bertsolari txapelketaren lehenengo kanporaketa ikusgai izango dugu Goiena telebistan. | 14:44

10:00 Dantza Txapelketa  
10:45 Ur eta lur  
11:20 Ikusten: Eskolen Festa  
12:17 Zorion agurrak  
12:22 Onein: Zapo otarrainxa  
12:50 Beranduegi.tv  
13:14 Musikaz Gain: Malatxo  
13:24 Zorion agurrak  
13:29 Magazinea  
14:14 Gipuzkoa Kultura  
14:44 Bertso saioa  
16:39 Hamaika.bit  
17:09 Gipuzkoa Kultura  
17:39 Ekogune  
18:09 Zorion agurrak  
18:14 Ur eta lur  
18:49 GCC: Garbiñe Irizar  
19:14 Ekogune  
19:44 Magazinea  
20:29 Beranduegi.tv  
20:53 Gipuzkoa Kultura  
21:23 Zorion agurrak  
21:27 Musikaz Gain: Eduardo Baranzano  
21:37 Magazinea  
22:22 Gipuzkoa Kultura  
22:57 Ekogune  
23:58 Dantza Txapelketa

## ARRASATE IRRATIA

## 'Cut Off' saria irabazi duen Amaia Albes elkarrizketatuko dugu

Amaia Albes arrasatearrak egubakoitzean jaso zuen Donostian 'Cut Off' moda saria eta aste bukaeran San Telmo museoan Albesek egindako arropen bilduma erakusketa egin zuen. Horretaz, bere ibilbideaz eta moda kontuetaz hitz egingo dugu arropa diseinatzaile gaztearekin.

## 'Azken Portua' antzezlanerako sarrerak zozketatuko ditugu

Arrantzale zaharrek kontatzen dituzten istorioetan oinarritutako antzezlan da Dejabu konpainiak urriaren 28an Amaia antzokian eskainiko duena. Arrasate Irratian sarrerak ditugu eta nahi izanez gero deitu 943 25 05 05 telefonora edo bidali email bat [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera.


## Normalean baino aste motzagoa izango dugu Arrasate Irratian

Urriaren 25a jai eguna izanda, aste honetan Arrasate Irratiko autobusak hiru egunetako ibilbidea egingo du. Astelehen, martitzen eta eguaztenean ohiko programazioa izango da, egun eta egubakoitzean, berriz, aste bukaerako programazioa izango dugu. Arrasate Irratia entzuteko FMko 107.7an eta [goiena.net](http://goiena.net) atarian.

## TELE-ALBISTEAK

# Hauteskundeek emaitzen balorazioa gaur Magazinean

Atzoko saio berezian emaitzak eta zenbait balorazio jasogenituen eta gaurko beste iritzi batzuk entzungo ditugu



Goiatz Arana eta Julen Iriondo atzoko saio berezian. | ANDER MONEDERO

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Atzoko saio bereziaren ostean, gaur Eusko Legebiltzarreko hauteskundeek emandakoaren balorazioak, bitxikeriak eta egunak emandakoaren berri emango dugu Magazinean. Mikel Irizar iritzi emaileak EAEko hauteskundeek emandakoaren balorazioa egingo du eta Euskal Herrikan kanpo bizi diren debagoiendarekin ere izango gara: Neida Iturbek Bartzelonako prentsak jasotakoaren berri emango du eta Madrileko prentsak jasotako ere ekarriko dugu.

Bestalde, astelehenero bezala, Magazinearen bigarren tartean Tertulia izango dugu, gaurkotan gaian inguruan hitz egingo dute.

## Astelehenetik eguaztenera

Urriaren 25a jai eguna izanda aste laburra izango dugu Goiena telebistan. Astelehenetik eguaztenera bitartean, ohiko programazioa izango dugu, eta egun eta egubakoitzean asteburuko programazioa izango dugu.

# Bioerregaiak, Kontsumobide eta Igartubeiti baserria eguaztenean Ekogunen

Aste honetan Julen Iriondok, besteak beste, Gorka Bueno EHUKo iraslea elkarrizketatuko du

A.M. | ARRASATE

Eguaztenero bezala, Goiena Telebistan Ekogune saioa izango dugu. Julen Iriondok aurkeztutako saioan, besteak beste, bioerregaiak, Kontsumobide eta Igartubeiti baserriari buruzko informazioa emango du. Bioerregaiak gehiago jakiteko, Iriondok ingeniari eta telekomunikazioetan doktorea eta EHUKo irakaslea den Gorka Bueno elkarrizketatuko du.

Buenok bioerregaiak gaur egun garraiorako erabiltzen den petrolioaren deribatuen ordezkotuzena dela nabarmenduko du eta erregai hauek era-

biltzearen onurak eta alde txarrak azalduko ditu.

Kontsumobide Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo sailaren menpean dagoen erakunde da eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileak defendatzea du helburu eta baita kontsumo arduratsua, jasangarria eta solidarioaren alde egiten du. Erakundearen proiektuetako bat ezagutuko dugu.

Azkenik, plan berdean Ezkio-Itsason dagoen Igartubeiti baserria ezagutuko dugu. Bertan, sagardoaren museoa, interpretazio zentroa eta baserriak duen eskaintza ikusiko dugu.

## ZORION AGURRAK



**ANTZUOLA Amaier Legorburu Rodriguez**  
Urriaren 27an, 10 urte.  
Zorionak, Amaier! Aiora eta etxeko danen partetik.



**LEINTZ GATZAGA Xabat Otazu Arzelus**  
Urriaren 27an, 5 urte.  
Zorionak, Xabat! Bost urte, txapeldun! Patxo handi bat etxeko danon partetik!



**OÑATI Leire Barrena Jausoro**  
Urriaren 27an, 11 urte.  
Zorionak eta oso ondo pasatu eguna etxeko danon partetik.



**BERGARA Nekane Gabilondo Ugarte**  
Urriaren 26an, 38 urte.  
Zorionak, amatxo, japonésita bikain, segi horrela. Muxu handi bat aitaxo eta Saioaren partetik.



**ARETXABALETA Maren Lazpiur Eraña**  
Urriaren 25ean, 6 urte.  
Zorionak, Maren! Azkenean iritsi da eguna! Ondo-ondo pasatu zure egunien eta besarkada estu-estua eta patxuak Magali, aitaxo eta amatxoren partetik, politxo!



**ARRASATE Ekain Agirre Lete**  
Urriaren 24an, 2 urte.  
Zorionak eta patxo handi bat danon partetik, bereziki anaia Aimarrek.



**ARRASATE Aitor Canales Losa**  
Urriaren 23an, 3 urte.  
Zorionak, Spiderman maitia! Muxu asko Alazne, aitaxo eta amaren partetik. Ikusiko dugu denok elkar merendolan Makatzenan.



**ARRASATE Amaia Arroitia**  
Urriaren 23an, urtebetetzea. Amatxo, munduko amarik onena zoriondu nahi dugu. Zorionak, amatxo! Maite zaitugu: aitaxo, Luken eta Kerman.



**ARETXABALETA Jokin Murillo**  
Urriaren 23an, 11 urte.  
Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu eta patxo handi bat guztion partetik.



**OÑATI Maialen Goñi Arevalo**  
Urriaren 23an, 4 urte.  
Zorionak, potoli! Ondo pasatu zure egunian. Patxo handi bat familiaren, eta bereziki, Eiderrek partetik.



**ESKORIATZA Ekaitz Oñate Uribe**  
Urriaren 22an, 13 urte.  
Zorionak! Ene, zelako gizontxoak! Ondo-ondo ibili zure egunean. Muxu pila bat etxeko guztion partetik, bereziki, Argi eta Zuhaitzek.



**ARRASATE Julen Abarrategi Garay**  
Urriaren 22an, 11 urte.  
Zorionak, Julen. Ondo ibili eta txintxoak izan. Patxo potolo bat zure familiaren partetik.



**ESKORIATZA Nora Berezibar Arevalo**  
Urriaren 22an, 4 urte.  
Zorionak, printzesa! Familia eta lagun guztion partetik. Jarraitu horrelako pinpirina izaten. Maite zaitugu!



**ARETXABALETA Lorea Zubia Sanchez**  
Urriaren 22an, 5 urte.  
Zorionak eta musu handi bat aitaita Julian eta amama Bitoriren partetik.



**ARRASATE Alazne Sandoval Guerra**  
Urriaren 21ean, 10 urte.  
Zorionak, printzesa! Ederto pasatu eguna. Bi eskuko hatzamar guztiak bete dituzu eta nolako handi egiten ari zaren! Etxeko eta laguntxoaren partetik, 10 kilo patxo potolo! Muxutxuek, poxpolin!



**ARRASATE Urki Garitaonandia Uriarte**  
Urriaren 21ean, 7 urte.  
Zorionak, maitia! Mila muxu etxekoaren partetik, bereziki Ixone eta Hodei.



**ARRASATE Irati Lasa Uriarte**  
Urriaren 21ean, 10 urte.  
Zorionak, Irati! Patxo eder bat etxekoaren partetik!



**ARRASATE Uxue Lopez Lopez de Bergara**  
Urriaren 20an, 6 urte.  
Zorionak, tximeleta! Muxu pilo bat etxekoaren, familiaren eta bereziki Aurkenen partetik. Zure egunean, pastel gozoa egingo dugu guztiok!



**ARRASATE Elena Orueta Perez de Labeaga**  
Urriaren 20an, 16 urte. 16 urte eta hain guapa. Horrela jarraitu. Zorionak ama eta aitaren partetik.



**OÑATI Maider Vizcaino**  
Urriaren 20an, 5 urte.  
Zorionak, Maider! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat Oñatitik.



**BERGARA Jon Corbacho (Txiki)**  
Urriaren 20an, 16 urte.  
Zorionak eta urte askotarako lagunaren partetik! Ondo pasatu eguna!



**ARRASATE Julen Barandiaran Oruna**  
Urriaren 19an, 8 urte.  
Zorionak etxeko guztion partetik eta ia tragotxo bat ordaintzen duzun!



**BERGARA Ione Lazkano Epelde**  
Urriaren 19an, 40 urte.  
Zorionak eta mila muxu zuretako, zure kuadrilaren partetik.



**ARETXABALETA Eider Velasco Racionero**  
Urriaren 19an, urtebete.  
Zorionak, Eider! Muxu potolo bat tio Jon eta tia Ainararen partetik!



**OÑATI Elisabeth Iñurritegi**  
Urriaren 19an, 32 urte.  
Zorionak, Eli! Ondo-ondo pasatu eta disfrutatu urtebetetze eguna, merezi dozu eta! Familixakuen partetik, urte askotarako!



**ARRASATE Javi Isturiz**  
Urriaren 19an, 54 urte.  
Zorionak! Aupa txapeldun, besarkada eta irrintzi erraldoi bat laneko lagunaren partetik.



**OÑATI Unai Zurra Astigarraga**  
Urriaren 18an, 8 urte.  
Zorionak gure etxeko bikingo umoretsu eta alaiari bere zortigarren urtebetetzearen etxekoaren partetik.



**BERGARA Jose Luis Loidi Larrañaga**  
Urriaren 18an, urte bat gehiago. Zorionak eta mila muxu zuretako, zure kuadrilaren partetik.



**BERGARA Zalao Unamuno Lopez**  
Urriaren 18an, 6 urte.  
Zorionak, politxa! Ondo ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta jaso patxo mordu Laida, aitaxo eta amatxoren partetik. Jarrai ezazu hain polit eta jatorra izaten.



**ARRASATE Nikole Montero Elorza**  
Urriaren 18an, urtebete.  
Zorionak etxeko danon partetik eta muxu handi bat.



**ARETXABALETA Irati Iturbe Murgiondo**  
Urriaren 18an, 5 urte.  
Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztion partetik. Ondo-ondo ospatu zure eguna.



**BERGARA Mikel eta Ander Sarrao**  
Urriaren 18an, 24 urte.  
Zorionak, bikote! Ondo pasatu zure eguna eta juerga gutxi bota! Zuen lagun eta familia danaren partetik! Muxu pila bat!



**OÑATI Oier Zubizarreta Iñarra**  
Urriaren 17an, 5 urte.  
Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzearen partetik! Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



**ARRASATE Markel Errasti Altube**  
Urriaren 17an, 5 urte.  
Zorionak, artista! Oso ondo pasatuko dogu zure urtebetetzea ospatzen! Muxu erraldoia Joanesen partetik!



**OÑATI Izaro Umerez Madinabeitia**  
Urriaren 16an, 6 urte.  
Zorionak, potxola. Oñati arte bezalako txintxo eta alaiak izaten jarraitu. Muxu potoloak etxeko danon partetik, bereziki Ekain, Helene, Aiuri eta zure ahizpa txiki Nahia.



**ARRASATE Koldo Oianguren**  
Urriaren 16an, 31 urte.  
Zorionak, osaba Koldo! Datoren urtian ere zuk indako txokolatzeko pastela jatia espero dou... Izar eta Unax.



**DEBAGOIENA Nahia Anduaga Estrada**  
Urriaren 15ean, 2 urte.  
Zorionak, sorgintxo! Muxu handi-handi bat aita, ama eta Oinaten partetik.



**ARETXABALETA Paula Luri Vázquez**  
Urriaren 14an, urtebete.  
Zorionak, Paula! Muxu handi bat zure lehenengo urtebetetzearen. Amatxu, aita eta Swill.



**BERGARA M. Teresa Azkarate-Askasua**  
Urriaren 13an, 94 urte.  
Zorionak, amama! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna familiakoekin batera. Hurrengo urtian gehixau eta hobeto. Patxo handi-handi bat familia guztiaren partetik, batez ere birlobek.



**ARRASATE M. Eugenia Urroz**  
Urriaren 3an, 62 urte.  
Zorionak, amama! Espero dogu amama urte askotarako izatea... Unax eta Izar.



**OÑATI Rosario Kortabarria Urrutia**  
Urriaren 7an, 104 urte iñ eta gero, eskerrak emutia gustauko zakun. Lehenengo ama izan zinen, gero amandria, baita birramona be eta azkenik herenamona. Honeatik danatik eta zaren mokua izatitiatik, eskerrak asko danon partetik. Zorionak eta besarkada bat.

## OROIGARRIA

**Paulo Berriozabal Ugarte**

Kepa Martelo Goienako langilearen aitaita

Legution hil zen 2012ko urriaren 19an, 93 urte zituela.

Bat egiten dugu  
famiariaren saminarekin.**goiena**Goiena Komunikazio Taldea.  
Debagoiengan, 2012ko urriaren 22an.**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

**Goiena: irakurriena Debagoiengan.****ASTE BARRUAN, BAITA ERE:****ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## JAIOTAKOAK

**Martin Egaña Saiz**

Oñati. 3,900 Kilo. Urriaren 12a. Gurasoak: Arantzazu eta Manu. Argazkian, Martin ama eta aitarekin.

**Beñat Armentia Ruiz**

Aretxabaleta. 3,490 Kilo. Urriaren 13a. Gurasoak: Maria eta Ekaitz. Argazkian, Beñat gurasoekin.

**Paule Barrutia Ruiz**

Arrasate. 3,380 Kilo. Urriaren 14a. Gurasoak: Karmele eta Sergio. Argazkian, Paule aitaren besoetan.

**Lihier Sanchez Borrego**

Aretxabaleta. 3,620 Kilo. Urriaren 12a. Gurasoak: Vanessa eta Gustavo. Argazkian, Lihier ama, aita eta anaia Lihierrekin.

**Lili Arantzabal Larrañaga**

Elgeta. 3,870 Kilo. Urriaren 15a. Gurasoak: Mireia eta Iban. Argazkian, Lili amatxoren besoetan.

**Nile Agirretxe Ayala**

Aretxabaleta. 3,580 Kilo. Urriaren 15a. Gurasoak: Oihana eta Xabier. Argazkian, Nile sehaskan esna-esna.

**Janire Tudanca Martin**

Bergara. 2,950 Kilo. Urriaren 15a. Gurasoak: Sonia eta Xabier. Argazkian, Janire ama eta aitarekin.

**Haizea Apraiz Ramila**

Eskoriatza. 3 Kilo. Urriaren 15a. Gurasoak: Delia eta Edorta. Argazkian, Haizea amarekin.

**Aiert Uralde Amias**

Aretxabaleta. 2,780 Kilo. Urriaren 18a. Gurasoak: Leire eta Ander. Argazkian, Aiert aita eta amarekin.

**Ibai Montero Fernandes**

Arrasate. 3,200 Kilo. Urriaren 17a. Gurasoak: Eva eta Iñigo. Argazkian, Ibai amaren besoetan.

**Nicolas Pinilla Villamil**

Oñati. 3,380 Kilo. Urriaren 15a. Ama: Diana. Argazkian, Nicolas jaioberria sehaskan.

**Peru Baena Sologaitoa**

Eskoriatza. 3,550 Kilo. Urriaren 18a. Gurasoak: Dorleta eta Jabi. Argazkian, Peru aita eta amarekin.

**Ibai Irizar Martinez**

Bergara. 3,700 Kilo. Urriaren 18a. Gurasoak: Enkar eta Axier. Argazkian, Ibai jaioberria sehaskan.

**Jaio da!****Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.  
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkartza batera.**Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.  
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## Nor ausartzen da tronua kentzera?

Komun honek Zazpi Erreinetako errege sentiaraziko zaitu; kontuz baina, nobeletan legez egon daiteke-eta kentzen saiatuko denik. [www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)



## "Neskek, ikusten nautenean, badirudi azpian txorrota dutela"

ESTEBAN | "GANDIA SHORE"-KO PARTE-HARTZAILEA

MTV kateko saioaren ideia simplea da: muskuluz eta ile-luzapenez betetako zortzi neska-mutil hartu eta uda elkarrekin pasarazi. Alkoholak, hormonek eta parte-hartzaileen lotsagabekeriak egingo du gainerakoa. Normala gero saioan horrelako esaldiak entzutea...  
**MTV**



Max. 21°

Min. 10°

Astelehenean eguraldiak hobera egingo du nabarmen. Temperatura igo egingo da. [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

# goiena

2012-10-22

**Jasone Osoro** Elgoibarko idazle eta kazetariaren *Tentazioak*-en erotismoa zen nagusi eta *Bi marra arrosa*-rekin amatasuna landu zuen; orain nerabezaro kontuak dakartza *Ezekiel noraezean* liburuan | TXOMIN MADINA

## "Erotismoak badu oraindik ere morbo edo tabu kutsua"

### 1. Nerabeei buruz idaztean topikoetan erortzeak erreza dirudi.

Ikusi dut nerabatasuna egun edo duela hogeitaz urte antzekoa dela. Testuingurua aldatu arren, nerabeen buru, gorputz eta bihotzean gertatzen dena mantendu egiten da. Hori erabili dut istorio bat sortzeko.

### 2. Nola gogoratzen duzu zuk zure nerabezaroa?

Ez dakit oso errebeldia nintzen, amarentzat seguru baietz. Ez dut oroitzen onik: pasa beharreko etapa bat izan zen; ikasteko balio arren, nahiko korapilatsua.

### 3. Zein da gazte literaturaz entzun duzun topiko okerrera?

Arinkeria bezala hartzen da. Ez zaio duen garrantzia ematen: haur eta gazte literatura funtsezkoak dira gero, helduen literaturan ere, irakurleak gozatzen.

### 4. 30 urterekin, euskal idazle salduenaren saria. Nola egin burua ez galtzeko?

28rekin izan zen eta inuzentea nintzen. Leku guztietan agertzen nintzen; ez nekien ezetz esaten eta itolarri sentsazioa ere izan nuen. Trapolina izan zen baina gero etorri dena, nik landuta izan da.

### 5. *Bi marra arrosa* amatasunari buruzkoa da. Zer sentitu zenuen lehen aldiz ikusi zenuenean?

Ikaragarritzko poza; gero heldu ziren beldurra eta urduritasuna bezalakoak. Eta bikotearekin, konplizitate handia; batera geunden testa egitean.



AGM/MAIDER EGUES

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

## "Familiaren osasuna bermatuko nuke"

"Nire bizitza pertsonalean dagoen garrantzitsuena nire familia da, familiaren osasuna, eta makila magikoa banu nire familiaren osasuna bermatzeko erabiliko nuke. Badakit topikoa dela, baina konturatu naiz zenbat eta urte gehiago eduki, nire amak esaten zituenak errepikatzen ditudala; egun lehen baino gauza sinpleagoak baloratzen ditut".

### 6. Erotismoa bogan dago literaturan: hor dago *50 sombras de grey*. Zeu ere landutakoa zara.

Erotismoa egunerokoan dago; badu oraindik ere morbo edo tabu kutsua. Irakurri dut liburua: errez harapatu arren hortik aurrera ezer gutxi aurkitu diot. Baina meritua du milioika irakurle lortzeko.

### 7. Inoiz ikusiko ditugu pantaila handian gidoigintza zinematografikoan ikasi zenuenak?

Nahi bai! Baina edozein gidoi pantailara eroatea, garestia da. Gustatuko litzaidake *Jara* telesail bihurtzea; uste dut gazteen eskaintzan hutsunea dagoela telebistan.

### 8. Astero astero zutabe bat. Beti dago zer kontatu?

Beharko! Hamar urte daramat eta batzuetan errepikatzen nabilela sentitu arren, konturatu naiz hamar urtetan ni eta nire iritziak ere aldatu direla. Kontatzen ez dudanean utziko dut: ezin dituzu zeure burua eta irakurlea engainatu.

### 9. Duela hamar urte esango al zenuke idazle bat lehendakari izango zenik? Emakumea gainera?

Lehendakari izateko lehenengo ausardia behar da; idazlea edo emakumea izan, bigarren mailakoa da. Koherentzia ere behar da; Laurak, ezagutzen dudana, badu.

### 10. Zerk eragiten dizu eguneroko irribarrea?

Nere alabek: haur baten irribarrea da zeuri irribarrea kutsatzeko modu natural eta benetakoena.

IXIDOR SOLUPE ZULAIKA



Esan eta... izan?

Zutabe hau, argitaratzen denerako, Urriaren 21eko E. Legebiltzarreko hauteskundeen emaitzen, jakinian izango gara. Alderdi politikoa garailea zorian den lehenik, eta herritarrei zor zaizkiela gogora araztea bigarrenik. Herri eta herritarrekin, orain eta beti idazten hasi aurretik, 1968an Lourdes Iriondok abesten zuen "Ez gaude konforme" kantua nerabilen buruan:

*Gazte gera gazte, ta ez gaude konforme mundu garbiago bat bizi nahi genduke, gezurraren kontra injustizirik ez, gazte gera gazte ez gaude konforme Nere abesti hau ez da politika, justizia nahi det, egia agertu gizonak daduzkan eskubide hoiek kunplitu ditezen bihotzez abestu ez noa inoren kontra egia maite dut Gazte ...*  
*Gazte guralako maitasun batean sinistu nahi degu, bainan baita ere, gehiegi dakigu munduan dagoen gezur ta gorroto, injustizi asko gauza hoien kontra abestu nahi degu Gazte ...*  
*Bainan aho batez gure herriaren problemak esaten uzten ez badigute guk nahiago degu betiko ixildu gero egun batez beldurrarengaitik traidore ginala esan ez dezaten.*  
*Gazte...*

Denbora ez da alferrik pasatzen, ezta?.

**Hemen**  
ascensores • igogailuak  
debagoiena

Informazio gehiagorako:

Tel.: 691 52 22 04 / 943 04 40 01

[debagoiena@ascensoreshemen.com](mailto:debagoiena@ascensoreshemen.com) • [www.ascensoreshemen.com](http://www.ascensoreshemen.com)

Konpetentziak prezioa jaitsi eta guretara parekatu ostean,  
**hitz egin dezagun zerbitzuaz**

90€

oinarrizko kontratua

24 ordu erreskate eta matxuretan

Euskarazko zerbitzua

Urtebeteko kontratuak

115€

piezak barne